

EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea

Hizkuntza- -zuzenbidea Testu-bilduma euskaraz



EUSKALTZAINDIA

Lan kolektibo honetan, hizkuntza-zuzenbidearen inguruko xedapen nagusiak euskaratu dira, bai Europakoak, bai mundu-mailakoak; bereziki barruratu dira Espainiako erresumako eta Frantziako errepublikako xedapenak. Horrela, lurralde euskaldunetan aplikatu beharreko legeria euskaraz laburbildu da. Argitalpen honen bereizgarria da, hain justu ere, esparru horretako hainbat testu biltzea, irakurle interesdunak, aditua izan zein izan ez, euskarazko bilduma bakar eta erabilgarri batean halako materialak izan ditzan.

HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA
Testu-bilduma euskaraz

JAGON SAILA

Sustapen Batzordea:

BURUA

Andres Iñigo

IDAZKARIA

Erramun Osa

KIDEAK

Sagrario Aleman

Erramun Baxok

Pierre Charritton

Jean-Baptiste Coyos

Aingeru Epaltza

Henrike Knörr

Patxi Juaristi

Santiago Larrazabal

José Luis Lizundia

Manuel M. Ruiz Urrestarazu

Ana Toledo

Andres Urrutia

EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea

HIZKUNTZA-ZUZENBIDEA

Testu-bilduma euskaraz



EUSKALTZAINDIA

BILBO
2007

Lan honen argitalpenak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako
Sailordetzaren laguntza jaso du.



© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Diseinua: Ikeder, S.L.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-31-7
Lege-gordailua: BI-3558-07

AURKEZPENA

Aspaldixko ari da Euskaltzaindia lanean eta gogoetak egiten, euskarak Euskal Herritik kanpoko paisaia duen lekua ikusi nahian, eta, aldi berean, mundu zabaletik euskararen mesedeetarako zer baliabide berri datorren arakutzen.

Ildo horretatik, *Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasuna eta euskararen hizkuntza-politikak* gaiari ekin zion iaz, Sustapen Batzordeak antolatuta, izandako X. Jagon Jardunaldietan.

Ildo beretik segituz, bertze urrats bat egin nahi izan du batzorde horrek berak, oraingoan hizkuntza-zuzenbideko testu garrantzitsuen bilduma argitalpen batean eskainiz. Izan ere, euskara ukitzen duen corpus juridikoa biltzea izan da lan honen xedea, eta, ondorioz, han-hemenka eta hainbat hizkuntzatan sakabanatuta dauden gure hizkuntzaren erreferentzia juridiko guztiak euskaldunen eskura euskaraz jartzea.

Azkenik, bilduma honekin batera, eranskin gisa, aurkibide analitikoak eta iturrien zerrenda eskaini dira, lagungarri izanen direlakoan.

Andres Iñigo
Jagon sailburua

ATARIKOA

1. Hizkuntza-zuzenbidea eta euskara: testu-bilduma baten zergatia

Begi-bistakoak dira azken urteetan eremu urriko hizkuntzen inguruko kezka eta ardurak. Sarritan bizirautea dute helburu horiek, hamaikatxo oztopo eta arazoren aurrean.

Funtsezkoena, ahalegin horietan, halako hizkuntzak eurak gizartean erabiltzea eta zabaltzea, eremu berrietara heldu nahian, lehendik berezkoak dituenak alboratu gabe. Beharrezkoena, ordea, hizkuntza horietarako berme juridikoa izatea, zuzenbideak eremu jakinak babes ditzan horientzat.

Hizkuntza-zuzenbide esan ohi zaio horri, horretara bildu baitira, bateko, hizkuntza gutxituen araubidea osatzen duten xedapenak. Besteko ere, araubide horrek ekarri du, lege-munduan ohikoa den bezala, eskubide eta betebeharren multzoa, hizkuntzaren inguruan moldatua.

Hortaz, kontzeptu berria ere sortu da, alegia, hizkuntza-eskubideena, gizabanakoaren eskubideen alorrean, lehendik ezagunak direnen aldamenean (hots, politika-, ekonomia-, gizarte-arlokoak...), hizkuntza gutxituen hiztunak bere baitara biltzen dituenak.

Zuzenbideak hitzetan adierazten du bere edukia: *ius semper loquitur*. Hartara, euskaldunoi ere zuzenbideak hitz egiten digu ahots desberdinekin: batzuk, mundu-mailakoak, beste batzuk, Europa-mailakoak; ukatu gabe, Euskal Herrian bertan, euskararen araubidea dela eta, indarrean ditugunak.

Ahots desberdinak, hizkuntza desberdinetan. Horregatik, hain zuzen ere, berebiziko ahalegina egin du oraingoan Euskaltzaindiaren Jagon Saileko Sustapen Batzordeak ahots eta mezu horiek, hizkuntza-zuzenbidearenak, euskaraz batzen eta biltzen, euskaldun orok eskura izan dezan hots horiek barruratzten dituen mezua.

Bilduma batera ekarri du Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeak egun euskarari bere herrialde guztietan aplikagarri zaizkion testu nagusiak. Ipar zein Hego Euskal Herrian, osterantzeko antolamendu juridikoen gaintetik, hizkuntza-zuzenbidea helburu duten eta aplikagarri diren arauak eta bestelakoak dira honen eramaileak.

2. Bildumaren nondik norakoak

Araubide baten bildumaz denaz bezainbatean, egitura jakineko argitalpena da hau. Izatez, piramide baten antzera jokatu da kasu honetan, maila geografiko eta inoizkorik gehien duten testuetatik abiatu, eta egun Euskal Herriko herrialdeetan aginduzkoak direnak zehaztu arte.

Piramide horren mugarriak honetara daude sailkatuak:

§1. Nazio Batuak; §2. LANE; §3. UNESCO; §4. Hizkuntz Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Bartzelonakoa, 1996ko ekainaren 6koa); §5. Europar Batasuna; §6. Espainiako Erresuma; §7. Frantziako Errepublika.

Bide horretatik eskura dezake liburu honen erabiltzaileak halako ikuspegi orokorra, egun Euskal Herrian ez eze, mundu osoan hizkuntza-eskubideen nondik norakoak egoki barruratzen dituena.

Hizkuntza-araubidea emateko orduan, bestalde, arreta eta harrera bereizia eskaini zaio euskarari berari. Izan ere, testu guztiak euskaraz eman dira, uste izanik, nazioarteko testuen jatorrizko bertsiolari muzin egin gabe, behar ditugula euskaldunok halako testuak euskaraz eta argitalpen fidagarri baten bidez bildurik izatea.

Berehala sortu du horrek egundoko arazoa, testuak, kasurik gehienetan, euskaraz besteko hizkuntzetan emanak baitziren, aginduzkoa eta araubidezkoa dutena barruratzeko. Horren jakitun izan gara, eta, hala eta guztiz ere, euskaraz eman izan dira horiek, sakabanatuak baino, estekatuak eta lotuak izan ditzaten euskaldunek.

Badakigu, horrela jokatuta, gure testua ez dela hainbat kasutan (batez ere, nazioarteko testuen kasuan) aginduzko letrak bilduko dituena. Badakigu, orobat, horrek behartu egiten gaituela hainbat testu itzultzerara.

Hala egin da liburu honetan. Dena den, baziren lehendik ere liburu honetara bildutako testuetatik zenbaiten euskaratzeak. Horiek ere baliatu izan ditugu erreferentzia gisa, nahiz eta euskararen estandarizazioak azken urteetan izan duen bilakaera arinak beste bidetik eraman oraingo testugintza hau.

Hautua egin behar izan da. Hala nahita, gainera, hizkuntza-legeriaren multzoan modu askotara joka daitekeelako. Sustapen Batzordearen aburuz, testu nagusiak bildu beharrekoak ziren, hots, lege-maila edota nazioarteko hitzarmenarena dutenak. Eduki horietaz landa ere, ukaezinak dira jurisprudentzia eta gainerakoen zereginak. Azkenak, esan gabe doa, lan honen egitasmotik baztertu ditugu, gerogarreneko jorraketa baten esperantzan.

Bada, alabaina, azpimarratu beharreko puntua halakoetan, bizpahiru salbuespen egin baititugu. Lehena, eta agian nabariena, egun arauzkoa izan ez

arren, aipagai den *Hizkuntz Eskubideen Adierazpen Unibertsala*, Bartzelonakoa, 1996ko ekainaren 6koa. Hurrena, Europar hizkuntza-eskubideetan berebiziko oihartzuna izan duten ebazpenetatik zenbait (Kuijpers Ebazpena, Pasquale Ebazpena eta Kililea Ebazpena). Eta, azkena, egun indarrean ez diren legetestuak, nahiz eta garai batean oinarri sendoa izan mota horretako hizkuntzen garatze-bidean.

Euskarari gagozkiola, bidenabar agertzen da euskarak duen araubide linguistiko nagusia. Jakina da, bestalde, araubide horretan Hego Euskal Herrian (Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Komunitatean) duen ofizialtasuna, gaztelaniarekin batera. Ofizialtasun horrek ekarri du, besteak beste, testu ofizialak ere herrialde horien aldizkari ofizialetan agertzea. Hartara, testu ofizial horiek barruratu dira bilduma honetara, euren horretan, behinola aldarrikatu ziren modu berean.

Esan beharrik ez dago erabaki horretan pisu erabakigarria izan duela zuzenbidearen ikuspegitik testuen “ofizialtasunak”, guztiok jakin arren, hainbat urteren buruan, orduko euskarak zuen itxura eta erabilerak, batez ere arlo juridikoan, alde handia duela egun, euskararen bilakaeran, estandarizazioak eta erabilera juridikoak izan duten aurrerakada esanguratsuekin.

Jakin beza, hortaz, irakurle eta erabiltzaile horrek, halako zorra ordaindu behar izan duela bilduma honek, nahiz eta aringarri moduan azaldu, halako kasuetan eta oin-oharren bidez, ezinbesteko gaurkotze laburrak, batik bat toponimiaren alorrean egin izan direla.

Lege-bilduma egituratu baten barruan usu gertatzen da testu-metatze zabala, zer non aurkitu zailtzen duena. Erabilera errazteko asmoarekin, testuen aurkibide analitikoa du erabiltzaileak, kontzeptu-sarrera pisuzkoenak zein testutan eta testu-barruan zein lekutan idoroko dituen argituz eta zehaztuz.

Lagungarria da, halaber, horien ondoren ematen den hurrenkera, berorrek lotzen baititu testu-bilduma horren iturri nagusiak.

3. Sustapen Batzordea: bilduma honen bidea

Aspalditik izan du Sustapen Batzordeak bilduma hau egiteko asmoa. Iturriak bildu, testuak antolatu eta egitura baten barruan eman, iaz hasi zuen lanari segida emanez. Izan ere, Sustapen Batzordeak du horretarako agindua Euskaltzaindiaren barruan, batzordekide baititu euskararen gizarte-kezka duten adituetatik hainbat: soziolinguistak, juristak, irakasleak, funtzionarioak... hau da, egunero euskararekin bizitzaren hainbat esparrurekin harreman estuak dituztenak, euren lanbideak direla eta. Hori aski ez balitz, gogorra bedi Euskal Herriko herrialdeetan Euskaltzaindiak dituen ordezkariak ere kide direla, horretan ere Euskal Herriko ikuspegi osoa biltzen dela.

Batzordearen barruan, Andres Iñigoren burutzapean eta Erramun Osa idazkariaren gidaritzapean lan egin da, Andres Urrutia kideak koordinatu dituelarik beste kide guztien ekarpenak. Kide horiek dira bilduma honen eragile eta egile, hauspo eta eduki-ekarleak.

Horretara jarriak, tresna lagungarria eskaini nahi izan die Jagon Saileko Sustapen Batzordeak Euskaltzaindiari eta euskaldunei, euskararen aitzinatze-bidean, protagonista ez ezik, hainbat testu juridikoren eramaile ere izan dadin euskara, gure eguneroko bizitzan hizkuntzaren nondik norakoak erro-errotik markatzen dituzten testuena, hain justu ere.

Andres Urrutia
Sustapen batzordekidea

TESTUAK

§1. Nazio Batuak

1.1. NAZIO BATUEN GUTUNA (1945): 55. ARTIKULUA

55. artikulua

Nazioen arteko harremanak baketsuak eta lagunen artekoak izan daitezen, egonkortasun- eta ongizate-baldintzak sortu behar direnez gero, eta baldintza horiek sortzekotan, betiere eskubideen berdintasunari eta herrien determinazio askeari buruzko printzipioa errespetatuz, eta errespetu hori oinarri moduan harturik, Erakundeak sustatuko du:

a. bizitza-maila altuagoak, guztiontzako lan iraunkorra, eta ekonomia-nahiz gizarte-aurrerapen eta garapenerako baldintzak;

b. ekonomia-, gizarte- eta osasun-arloko nazioarteko arazoak konpontzea, eta horien ondoriozko bestelako arazoak ere, eta kultura- eta hezkuntza-alerretan nazioarteko lankidetzak; eta

c. guztion giza eskubideei eta oinarrizko askatasunei errespetu unibertsa-la, arraza-, sexu-, hizkuntza- edo erlijio-arrazoiak direla-medio bereizkeriarik egin gabe, eta eskubide eta askatasun horien eragingarritasuna.

1.2. GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA (1948)

HITZAURREA

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizaki-tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela;

Kontuan izanik estatu kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela;

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea;

BATZAR NAGUSIAK

GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSAL HAU EGITEN DU,

herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez. Beronen xedea da, bai gizabanakoek, bai erakundeek, adierazpen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzea irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez, eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartzea, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezzen zurratzeke, bai elkarkide diren estatuetakoa herrien artean, baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1. artikulua

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean sende legez jokatu beharra dute.

2. artikulua

Gizaki orori dagozkio adierazpen honetako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nolahalako burujabetasun-mugak dituen.

3. artikulua

Gizabanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. artikulua

Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

5. artikulua

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

6. artikulua

Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitortu diezaizkion eskubidea.

7. artikulua

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babes izateko eskubidea. Denek dute adierazpen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragilearen aurka babes berbera izateko eskubidea.

8. artikulua

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarrizko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtsio eraginkorra jartzeko eskubidea.

9. artikulua

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

10. artikulua

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeke.

11. artikulua

1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketara frogatzen ez den bitartean. Epaiketara bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

2. Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

12. artikulua

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babes izateko eskubidea.

13. artikulua

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.

2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

14. artikulua

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.

2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

15. artikulua

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.

2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

16. artikulua

1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia aratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.

2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.

3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

17. artikulua

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.

2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.

18. artikulua

Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

19. artikulua

Gizabanako guztiek dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

20. artikulua

1. Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

21. artikulua

1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.

2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.

3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldiari aldiari egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

22. artikulua

Pertsona orok du, gizarteko kideenez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, gizabanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa.

23. artikulua

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzeko, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izateko, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzeko.

2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.

3. Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.

4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

24. artikulua

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

25. artikulua

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguria izateko eskubidea ere.

2. Amek eta hurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

26. artikulua

1. Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.

2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen jarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

3. Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

27. artikulua

1. Pertsona orok du eskubidea, erkidegoaren kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.

2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

28. artikulua

Pertsona ororen eskubidea da nazioarteko gizarte-ordena ezartzea, eta, ordena horretan, adierazpen honetako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatzea.

29. artikulua

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.

2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezzen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.

3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurka.

30. artikulua

Adierazpen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo gizabanakoren bati adierazpen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo jardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

1.3. ESKUBIDE ZIBILEN ETA
POLITIKOEN NAZIOARTEKO ITUNA,
1966. URTEKO ABENDUAREN 16KOA:
27. ARTIKULUA

27. artikulua

Estatuetan etnia-, erlijio- edo hizkuntza-gutxiengoak daudenean, gutxiengo horietako gizakiei ez zaie ukatuko, haiek, talde bereko beste kideekin batera, duten eskubidea, euren kultura-bizitza izateko, euren erlijioa izan eta praktikan jartzeko, bai eta euren hizkuntza erabiltzeko ere.

1.4. EKONOMIA-, GIZARTE- ETA KULTURA-ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ITUNA, 1966. URTEKO ABENDUAREN 16KOA: 2. ARTIKULUA

2. artikulua

1. Itun honetan alderdi diren estatuek konpromisoa hartzen dute, bakar-ka nahiz nazioarteko laguntza eta lankidetzarekin, zenbait neurri hartzeko, batik bat neurri ekonomiko eta teknikoak, ahalik eta baliabide gehien erabili-ta, hemen aitortutako eskubideen eragingarritasun osoa mailaz maila erdies-teko; horretarako, bide egoki guztiak baliatuko dituzte, eta, bereziki, legegintzazko neurriak hartuko.

2. Itun honetan alderdi diren estatuek konpromisoa hartzen dute, itun honetan bertan aipatu eskubideen egikaritzea bermatzeko, bereizkeriarik egin gabe, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo beste era bateko iritzi, nazio-ko nahiz gizarteko jatorri, maila ekonomiko, jaiotza nahiz bes-telako gizarte-izateak direla medio.

3. Garatze bidean dauden herriek, giza eskubideak eta herri horien nazio-ko ekonomia behar bezala kontuan harturik, zehaztu ahal izango dute zein neurritan bermatuko dizkieten euren nazio-koak ez diren pertsonen itun hone-tan aitortu eskubideak.

1.5. TEHERANEKO ALDARRIKAPENA, 1968. URTEKO MAIATZAREN 13AN, GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO KONFERENTZIAK ONETSITAKOA: 1. PUNTUA

Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Konferentziak aldarrikatua, Teheranen, 1968ko maiatzaren 13an.

Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Konferentzia Teheranen bildu da 1968ko apirilaren 22tik maiatzaren 13a arte, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onetsi zenetik igarotako hogeit hamar urteetan zein aurrerapen gertatu den aztertzeko eta etorkizunerako egitaraua prestatzeko.

Azterturik Nazio Batuek, giza eskubideei eta oinarrizko askatasunei zor zaien begirunea sustatu eta bultzatzeko, zenbait jarduera burutu dituela, eta jarduera horien ondorioz zenbait arazo sortu direla;

Kontuan harturik Konferentziak berak onetsitako ebazpenak;

Kontuan izanik Giza Eskubideen Nazioarteko Urtea gertatu dela munduan aurretiaz inoiz izan ez den aldaketarekin batera;

Aintzat harturik zientziaren eta teknologiaren aurrerapen azkarrak aukera berriak eskaintzen dituela,

Gogoan izanik, liskarrak eta indarkeria munduko hamaika tokitan nagusitzen ari direnean, inoiz baino beharrezkoak direla gizakien arteko elkartasuna eta mendekotasuna;

Kontuan izanik bakea dela gizateriaren gurari unibertsala, eta bake hori eta justizia ere ezinbestekoak direla giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak bete-betean gauzatzeko;

Modu solemnean aldarrikatzen du:

1. Ezinbestekoa dela nazioarteko erkidegoak bere betebeharrak solemnean betetzea, hots, giza eskubideei eta oinarrizko askatasunei zor zaien begirunea

guztiontzat sustatu eta bultzatzea, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio eta iritzi politikoetan edo bestelako iritzietan oinarritutako berizketarik egin gabe.

**1.6. VIENAKO ADIERAZPENA,
1993. URTEKO EKAINAREN 25EAN,
GIZA ESKUBIDEEN MUNDUKO
KONFERENTZIAK ONETSITAKOA:
19 ETA 20. PUNTUA**

19. Gutxiengo-taldeetako pertsonen eskubideak sustatzeko eta babesteko jarduerak garrantzi handia dutenez gero, eta, pertsona horiek bizi diren estatuetako gizarte- eta politika-egonkortasunari begira, jarduerok lagungarri oso gertatzen direnez gero,

Giza Eskubideen Munduko Konferentziak baieztatzen du estatuen bete-beharra dela, gutxiengo-taldeetako pertsonen giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak, bete-betean eta eragingarritasunez, bereizkeriarik gabe eta legearen arabera berdintasun-egoera osoan, egikaritzen dituztela jagotea, Nazio Batuek Hizkuntza- eta Erlijio-Gutxiengo Nazional edo Etnikoetako Pertsonen Eskubideei buruz emandako Adierazpenarekin bat.

Gutxiengo-taldeetako pertsonen eskubidea dute euren kultura izateko, euren erlijioa eduki eta praktikatzeko, eta euren hizkuntza jendaurrean eta arlo pribatuan erabiltzeko, askatasun osoz eta inoren esku-sartze edo bereizkeriarik gabe.

20. Giza Eskubideen Munduko Konferentziak aitortzen du herri indigenei berez dagokien duintasuna, eta herri horiek garapenari eta gizartearen aniztasunari egindako ekarpen paregabea. Halaber, irmotasunez baieztatzen du nazioarteko erkidegoaren erabakia dela herri indigenen ekonomia-, gizarte- eta kultura-ongizatea bermatzea, eta herri horiei garapen iraunkorraren onurak helaraztea. Estatuek bermatu behar dute, herri indigenek gizartearen alde guztietan bete-betean eta askatasunez parte hartzea, bereziki, herrioi dagozkien arazoetan. Kontuan izanik herri indigenen eskubideak sustatzeko eta babesteko jarduerak garrantzi handia dutela, eta, herri horiek bizi diren

estatuetakoz gizarte- eta politika-egonkortasunari begira, jarduerok lagungarri oso gertatu direla, estatuak nazioarteko zuzenbidearekin bat datozen neurri positibo eta itunduak hartu behar dituzte, giza eskubide guztiei eta herri indigenen askatasunei zor zaien begirunea bermatzeko, berdintasuna eta bereizkeriarik eza oinarri harturik. Estatuak, orobat, aitortu behar dituzte herri indigenen nortasun desberdinak, kultura desberdinak eta gizartea antolatzeneko sistema desberdinak, bai eta horien guztien balioa eta aniztasuna ere.

1.7. HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA (1989): 30. ARTIKULUA

30. artikulua

Estatuetan etnia-, erlijio- edo hizkuntza-gutxiengoak daudenean, edo jatorri indigena duten gizakiak daudenean, gutxiengo horietako haurrei edota haur indigenei ez zaie ukatuko, haiek, talde bereko beste kideekin batera, duten eskubidea, euren kultura-bizitza izateko, euren erlijioa izan eta praktikan jartzeko, bai eta euren hizkuntza erabiltzeko ere.

1.8. RIOKO ADIERAZPENA, INGURUMENAZ ETA GARAPENAZ (1992): 22. PRINTZIPIOA

22. printzipioa

Herri indigenek eta euren erkidegoek, bai eta tokiko beste erkidego batzuek ere, euren jakiteen ondorioz eta tradizio-egineren ondorioz, funtsezko eginkizuna betetzen dute, ingurumena antolatu eta garatzeko orduan. Estatuak behar bezala aitortu beharko lituzkete haien nortasuna, kultura eta interesak, bai eta horiei guztiei lagundu ere, eta, garapen iraunkorra lortzeko helburu horretan, haien benetako parte-hartzea ahalbidetu beharko lukete.

1.9. HIZKUNTZA- ETA ERLIJIO-GUTXIENGO
NAZIONAL EDO ETNIKOETAKO PERTSONEN
ESKUBIDEEN ADIERAZPENA,
1992. URTEKO ABENDUAREN 18KOA:
1. ARTIKULUA

1. artikulua

1. Estatuek, euren lurraldeen barruan, babestu egingo dituzte gutxiengoen existentzia eta nazio- nahiz etnia-, kultura-, erlijio- eta hizkuntza-nortasuna, eta nortasun hori sustatzeko baldintzak eragingo dituzte.

2. Estatuek, helburu horiek guztiak lortzeko, neurri egokiak hartuko dituzte, legegintzaren arloan nahiz bestelakoetan.

§2. LANE*

* Forma osoa: Lanaren Nazioarteko Erakundea
Gaztelaniaz: Organización Internacional del Trabajo (OIT)
Frantsesez: Organisation Internationale du Travail (OIT)
Ingelesez: International Labor Organization (ILO)

LANE-REN 169. HITZARMENA, HERRI INDIGENA ETA TRIBALEI BURUZKOA: 26, 27, 28, 29 ETA 30. ARTIKULUAK

26. artikulua

Neurriak hartu beharko dira, horien bitartez bermatuta gera dadin, herri interesdunetako kideek maila guztietako hezkuntza lortzea, gainerako nazio-erkidegoarekin berdintasun-egoeran behinik behin.

27. artikulua

1. Herri interesdunentzako hezkuntza-programak eta -zerbitzuak garatu eta aplikatu beharko dira, herrion lankidetzarekin, haien beharrian bereziei aurre egiteko; gainera, programa eta zerbitzu horiek barnean hartu beharko dituzte herri horien historia, haien jakiteak eta teknikak, balio-sistemak eta herri horien gainerako gizarte-, ekonomia- eta kultura-gurariak.

2. Agintari eskudunak bermatu beharko du herri horietako kideen heziketa, eta, orobat, kide horiek hezkuntza-programen prestakuntzan eta betearazpenean parte hartzea, herriei arian-arian programa horiek egiteko erantzukizuna eskualda dakien, hori egoki izanez gero.

3. Gainera, gobernuek aitortu beharko dute herri horiek euren erakundeak eta hezkuntza-bideak sortzeko duten eskubidea; erakunde horiek, betiere, bete beharko dituzte agintari eskudunak, herrioi kontsulta egin eta gero, ezarritako gutxieneko arauak. Era berean, helburu horretarako egoki diren balia-bideak eman beharko zaizkie herri horiei.

28. artikulua

1. Bideragarri izanez gero, herri interesdunetako haurrei irakatsi beharko zaie, euren hizkuntza indigena edo haurrok zein taldetakoak izan eta talde horretan hitz egin ohi den hizkuntza horretan, irakurtzen eta idazten. Hori

bideraezin gertatuz gero, agintari eskudunek kontsultak egin beharko dizkiete herri horiei, helburu hori erdiesteko neurriak har daitezten.

2. Neurri egokiak hartu beharko dira, herri horiek aukera izan dezaten, hizkuntza nazionala edo estatuko hizkuntza ofizialetatik bat jakiteko.

3. Xedapenak eman beharko dira, herri interesdunetako hizkuntza indigenak babesteko, eta hizkuntza horien garapena eta erabilera sustatzeko.

29. artikulua

Herri interesdunetako haur-hezkuntzaren helburuetatik bat izan beharko da haur horiei jakite orokorrak eta gaitasunak ematea, haurrok bete-betean eta berdintasun-egoeran parte har dezaten, euren erkidegoaren bizitzan, bai eta nazio-erkidegoaren bizitzan ere.

30. artikulua

1. Gobernuek herri interesdunen tradizioekin eta kulturekin bat datozen neurriak hartu beharko dituzte, herrioi euren eskubideak eta betebeharrak ezagutarazteko, batez ere, lanari, aukera ekonomikoei, hezkuntza- eta osasun-arazoei, gizarte-zerbitzuei eta hitzarmen honen ondoriozko eskubideei dago-kienez.

2. Helburu horretarako, eta beharrezkoa izanez gero, herri horietako hizkuntzetan idatzizko itzulpenak eta masa-komunikabideak erabili beharko dira.

§3. UNESCO

3.1. KULTURA ANIZTASUNAREN ALDEKO ADIERAZPEN NAGUSIA (2001): 5 ETA 6. ARTIKULUAK

5. artikulua. Kultura-eskubideak, kultura-aniztasunarentzako eremu egoki

Kultura-eskubideak, izatez, giza eskubideen osagai dira, giza eskubideok unibertsalak, banaezinak eta elkarren mendeak izanik. Aniztasun sortzailea garatzeko, nahitaezkoa da kultura-eskubideak oso-osorik gauzatzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikulua, eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-Eskubideen Nazioarteko Itunaren 13 eta 15. artikuluek definitu bezala. Gizaki orok aukera izan behar du adierazpenak egiteko, eta bere obrak sortu eta zabaltzeko, berak nahi duen hizkuntza horretan, eta, bereziki, ama-hizkuntzan; gizaki oren eskubidea da kalitatezko hezkuntza eta heziketa izatea, eta hezkuntza eta heziketa horiek haien kultura-nortasuna bete-betean errespetatzea; gizaki orok aukera izan behar du berak hautatu duen kultura-bizitza horretan parte hartzeko eta bere kulturarekin bat datozen eginerak burutzeko, betiere giza eskubideei eta oinarritzko askatasunei zor zaien begiruneak zein muga izan eta muga horien barruan.

6. artikulua. Guztiok eskuratzeko moduko kultura-aniztasunaren bila

Ideien zirkulazio askea bermatuta dago, zirkulazio hori hitzaren nahiz irudiaren bitartez gerta daitekeela. Hori bermatzearekin batera, zaindu behar da kultura guztiak adierazpenak egin eta euren burua ezagutarazi ahal izatea. Kultura-aniztasunaren bermatzaile dira, besteak beste, adierazpen-askatasuna; komunikabideen aniztasuna; eleaniztasuna; adierazpen artistikoak eta jakite zientifiko nahiz teknologikoak eskuratzeko berdintasuna —horien aurkezpen elektronikoa barnean dela—; eta, orobat, kultura guztiak aukera izatea, adierazpide eta hedabideetan lekua izateko.

3.2. KULTURA-ADIERAZPENEN ANIZTASUNA BABESTU ETA SUSTATZEKO KONBENTZIOA (2005): AITZINSOLASAREN 14. IRAGARPENA ETA 6.2.B) ARTIKULUA

[...]

Gogoan izanik hizkuntza-aniztasuna kultura-aniztasunaren oinarritzko osagaia dela; eta, kultura-adierazpenak babesteko eta sustatzeko orduan, hezkuntzak oinarritzko eginkizuna betetzen duela berriro baieztaturik;

[...]

6. artikulua. Alderdien eskubideak nazioaren esparruan

1. Alderdiek, euren kultura-politiken eta kultura-neurrien eremuan, hala-koak 4. artikuluko 6. paragrafoan definituta dauden bezala, euren inguruabar eta beharrian bereziak aintzakotzat harturik, zenbait neurri hartu ahal izango dituzte, euren lurraldeetan kultura-adierazpenen aniztasuna babestu eta sustatzeko.

2. Neurri horiek, besteak beste, hurrengoak izan daitezke:

[...]

b) nazioaren lurraldean eskura dauden kultura-jarduera, -ondasun eta -zerbitzu guztien artean, nazioko kultura-jarduera, -ondasun eta -zerbitzuei buruz neurriak hartu eta horiei aukera egokiak ematea, halakoak sor, ekoitz, bana, heda eta goza daitezten, jarduera, ondasun eta zerbitzu horietan zein hizkuntza erabili eta hizkuntza horiei buruzko xedapenak barne hartuta.

[...]

§4. Hizkuntza-Eskubideen Adierazpen Unibertsala
(Bartzelonakoa, 1996ko ekainaren 6koa)

ATARIKOAK

Hizkuntza-eskubideen adierazpen unibertsal hau sinatzen dugunok, erakunde nahiz gobernuz kanpoko erakunde, Bartzelonan bildurik, 1996ko ekainaren 6tik 9a bitartean.

Ikusirik Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948koa, bere hitzaurrean baieztatzen duena “gizakiaren oinarrizko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea”, eta bigarren artikuluan ezartzen duena “gizaki orori dagozkio aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak”, “arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik” inolako bereizkeriarik onartu gabe;

Ikusirik Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1996ko abenduaren 16koa (27. artikulua), eta, data berekoa dena, Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-Eskubideen Nazioarteko Ituna, beren hitzaurreetan baieztatzen dutenak gizakia ezin dela aske izan, ez badira baldintza egokiak sortzen, eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, gizarte- eta kultura-izaerakoak baliatu ahal izateko;

Ikusirik 47/135 Ebazpena, 1992ko abenduaren 18koa, Nazio Batuen Erakundearen Biltzar Nagusiarena, Hizkuntza- eta Erlijio-Gutxiengo Nazional edo Etnikoetako Pertsonen Eskubideen Adierazpena bere egiten duena;

Ikusirik Europako Kontseiluaren adierazpenak eta hitzarmenak, hala Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4koa (14. artikulua); Europako Kontseiluaren Ministro-Kontseiluaren Konbentzioa, 1992ko ekainaren 29koa, horrek onetsi baitzuen Erregioen nahiz Gutxiengoaren Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna; Europako Kontseiluaren Gailurraren Adierazpena, 1993ko urriaren 9koa, nazio-gutxiengoei buruzkoa; eta nazio-gutxiengoaren babeserako konbentzio-markoa, 1944ko azarokoa;

Ikusirik Santiago de Compostelako Adierazpena, Nazioarteko PEN Clubarena, eta 1993ko abenduaren 15eko Adierazpena, Nazioarteko PEN Clubeko itzulpen eta hizkuntza-eskubideen Batzordearena, Hizkuntza-Eskubidei buruzko Munduko Konferentzia egiteko proposamenari buruzkoa;

Ikusirik, Brasilgo Recife Adierazpenean, Kulturen arteko Komunikazioa Garatzeko Nazioarteko Elkarteak Nazio Batuei gomendatzen diela beharrezko neurriak har ditzan Hizkuntza-Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartzeko eta aplikatzeko;

Ikusirik OIT deiturikoaren 169. Konbentzioan, 1989ko ekainaren 26koan, herrialde independentetako herri indigenei buruzkoa;

Ikusirik Herrien Eskubide Kolektiboei buruzko Adierazpen Unibertsalak, 1990eko maiatzekoak, adierazten duela edozein herrik duela eskubidea bere kultura, hizkuntza eta antolatze-erak adierazteko eta garatzeko, eta, hori lortzeko, politika-, hezkuntza- eta komunikazio-egiturez eta administrazio publikoko egiturez, esparru politiko desberdinetan, bere burua hornitzeko;

Ikusirik Hizkuntza Bizien Irakasleen Nazioarteko Federazioaren Biltzar Orokorrak 1991ko abuztuaren 16an Hungariako Pecsén egindako azken Adierazpena, horrek gomendatzen baitu hizkuntza-eskubideak gizabanakoaren oinarritzko eskubidetzat har daitezela;

Ikusirik Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren Giza Eskubideen txostena, 1994ko apirilaren 20koa, herri indigenen eskubideei buruzkoa, gizabanakoen eskubideak eskubide kolektiboen argitan baloratzen dituena;

Ikusirik Amerika arteko Batzordeak giza eskubideei buruz prestatutako adierazpenaren zirriborroa, herri indigenen eskubideei buruzkoa, 1995eko irailaren 18an eta 1278. bilkuran onetsia;

Kontuan izanik munduko hizkuntza mehatxatu gehienak subiranotasunik gabeko herriei dagozkiela, eta kontuan izanik hizkuntza mehatxatuen garapena eragotzi eta hizkuntza-ordezkatzea azkartzen duten eragile nagusiak direla autogobernurik eza eta euren egitura politiko-administratiboa eta hizkuntza inposatzen duten estatuak;

Kontuan izanik inbasioak, kolonizazioak eta okupazioak, bai eta menderatze politiko, ekonomiko edo sozialaren beste kasuek ere, sarritan hizkuntza arrotza inposatzea dakartela, edo, behintzat, hizkuntzen balioen pertzepzioaren endekatzea eta hiztunen hizkuntza-leialtasunari kalte eragiten dioten hizkuntza-jarrera hierarkizatzaileak izatea; eta kontuan izanik arrazoi horiengatik subiranotasunera heldu diren herri batzuen hizkuntzak hizkuntza ordezkatze prozesuan murgildurik daudela, antzinako botere kolonizatzaile edo inperialaren hizkuntzaren alde jokaten duen politikaren ondorioz;

Kontuan izanik unibertsalismoaren oinarria izan behar duela hizkuntza-eta kultura-aniztasunaren kontzepzioak, aldi berean joera homogeneizatzaileak eta isolamendu baztertzailerako joerak baztertzeko;

Kontuan izanik hizkuntza-erkidegoen arteko bizikidetzak baketsua bermatzeko ezinbestekoa dela guztien gaineko printzipio batzuk aurkitzea, eta, printzipio horiei esker, hizkuntza guztien sustapena, errespetua eta gizarte-erabilera, publiko zein pribatua, ziurtaturik geratzea;

Kontuan izanik hizkuntzaz kanpoko hainbat faktorek (historikoak, politikoak, lurraldeari dagozkionak, demografikoak, ekonomikoak, sozio-kulturalak, soziolinguistikoak eta jarrera kolektiboei dagozkienak) hizkuntza ugarien desagertzea, bazterketa eta endekatzea eragin eta hainbat arazo sorrarazten dituztela, eta beharrezkoa dela, hortaz, hizkuntza-eskubideak ikuspegi

zabalago batetik aztertzea, kasuan-kasuan konponbide berezi eta egokiak aplika daitezzen;

Oharturik ezinbestekoa dela Hizkuntza-Eskubideen Adierazpen Unibertsala, bide emango duena hizkuntzen arteko desorekak zuzentzeko, eta, modu horretan, ahalbidetzeko, bai hizkuntza guztien errespetua eta garapen osoa, bai mundu osoan zehar hizkuntza-bake zuzen eta ekitatezkoaren printzipioak ezartzea, gizarte-bizikidetzari eusteko gakoa baita hori;

ADIERAZTEN DUGU

HITZAURREA

Hizkuntza bakoitzaren egoera, aurreko datu guztiak ikusirik, faktore desberdin ugarien elkartze eta elkar-eraginaren emaitza da. Halako faktoreak dira, besteak beste, politiko-juridikoak, ideologikoak eta historikoak, demografiakoak eta lurraldeari dagozkionak, ekonomikoak eta gizarte-arlokoak, kultura-eremukoak, hizkuntzari dagokionez, eta, berebat, subjektiboak.

Egungo egoeraren ezaugarri zehatzak honako hauek dira:

I. Estatu gehieneko joera bateratzailea nabaria dute, eta horrek berarekin dakar desberdintasuna murriztea eta kultura- nahiz hizkuntza-aniztasunaren aurkako jarrerak sustatzea.

II. Mundializazio-prozesuak, ekonomiarenak, aurrenik, informazioaren, komunikazioaren eta kulturaren merkatuarenak, hurrenik, azpikoz gora jarri ditu hizkuntza-erkidego bakoitzaren barne-kohesioa bermatzen duten harreman-esparruak eta elkar-eraginak.

III. Hazkunde-eredu ekonomizista gertatu da, nazioz haraindiko talde ekonomikoek bultzatuta. Eredu horren barruan, gauza berberak dira aurrerapena eta desarauketa, indibidualismo lehiakorra eta askatasuna. Horrela, gero eta desberdintasun gehiago atzeman daitezke, ekonomia, gizarte, kultura eta hizkuntzaren eremuetan.

Une honetan, hizkuntza-erkidegoek mehatxuak jasaten dituzte, dela auto-gobernurik ezarengatik, dela demografia murriztarengatik, dela zati bateko nahiz oso-osoko sakabanaketaren, dela kodetu gabeko hizkuntza izateagatik, dela nagusiaren aurkako kultura-eredua izateagatik; eta mehatxu horiek eragiten dute ezinezkoa izatea, hizkuntza askorentzat, bizitzea edo goratzea, ardatz nagusi horiek kontuan hartu ezik:

I. Politikaren ikuspegitik, hizkuntza-desberdintasunarentzat halako antolakera pentsatzea, hizkuntza-erkidegoek benetako partaidetza izan dezaten hazkunde-eredu berri honetan.

II. Kulturaren ikuspegitik, guztiz bateragarri bihurtzea mundu-mailako komunikazio-esparrua, alde batetik, eta, garapen-prozesuan herri, hizkuntza-erkidego eta pertsona orok partaidetza orekatua edukitzea, bestetik.

III. Ekonomiaren ikuspegitik, garapen iraunkorra bideratzea, nor bere partaidetzan, gizarteen oreka ekologikoari zor zaion errespetuan, eta hizkuntza nahiz kultura guztien arteko ekitatezko loturan oinarriturik.

Hori guztia dela eta, adierazpen honek estatuak eta hizkuntza-erkidegoak hartzen ditu abiapuntutzat, gizaki guztientzat garapen iraunkor eta orekatua bermatzera bideratuta dago, eta, horretan, nazioarteko erakundeen lana indartu nahi du. Eta, era berean, helburutzat dauka hizkuntza-desberdintasunaren antolaketa-politikoarentze eremu egokia ezartzea, eremu hori bizikidetzan eta elkarren arteko errespetuan nahiz onuran oinarritu dadin.

ATARIKO TITULUA KONTZEPTUAK ZEHAZTEA

1. artikulua

1.- Adierazpen honen arabera, gizarte oro *hizkuntza-erkidegoa* dela ulertzen da, baldin eta, historian zehar lur-eremu zehatz batean kokatuta egonik, eremu hori aitortuta egon zein egon ez, gizarte horrek bere burua herritzat badauka, eta hizkuntza erkidea garatu badu, bere kideen arteko berezko komunikazioaren eta kultura-kohesioaren bide gisa. *Lurralde zehatz bateko bereko hizkuntza* aipatzea, erreferentzia egin nahi zaio eremu horretan historian zehar ezarritako erkidegoaren mintzairari.

2.- Hizkuntza-eskubideak aldi berean banakakoak eta kolektiboak dira, eta printzipio hori da, hain zuzen ere, adierazpen honen abiapuntua. Hizkuntza-eskubideen osotasunak, gainera, abiaburu du hizkuntza-erkidego historikoa, beraren lurralde-eremuan kokatuta. Lurralde-eremu hori, erkidegoa zein gune geografikotan bizi eta gune da; eta, horrez gain, hizkuntza garatzeko ezinbestekoa den gizarte-esparru funtzionala ere bada. Abiaturua hori izanik, artikulua honen 5. puntuan aipatutako hizkuntza-taldeen eskubideak mailaka daitezke, edo, behintzat, horien arteko *continuum* delakoa ezar daiteke; gauza bera egin daiteke, halaber, erkidegoaren lurraldetik kanpo dauden pertsonen eskubideekin ere.

3.- Adierazpen honen ondorioetarako ulertzen da taldeak euren lurralde propioan daudela eta hizkuntza-erkidegoaren kideak direla, baldin eta taldeok ondoko baldintzak betetzen badituzte:

I. Muga politiko edo administratiboengatik euren erkidegoaren gune nagusitik bereizita egotea;

II. Eremu geografiko txiki batean, beste hizkuntza-erkidegoetako kideez inguraturik, historian zehar kokatuta egotea;

III. Beste hizkuntza-erkidego batzuetako kideekin batera, gune geografiko berean finkatuta egotea, erkidego horiek ere antzeko historikotasuna dutenean.

4.- Adierazpen honen ondorioetarako, hizkuntza-erkidegoak dira, euren lurralde historikoaren barruan, bai herri nomadak, beren joan-etorrien eremuetan, bai asentamendu barreiatuetan bizi diren herriak.

5.- Adierazpen honen arabera, edozein giza talde *hizkuntza-taldea* da, baldin eta hizkuntza bera badu eta beste hizkuntza-erkidego baten lurralde-eremuan kokatuta badago, baina azken horrekin antzeko historikotasunik izan gabe; horixe gertatzen da, esate baterako, inmigratuen, errefuxiatuen, deportatuen eta diasporretako kideen kasuan.

2. artikulua

1.- Adierazpen honen arabera, hizkuntza-erkidego eta -talde desberdinek lurralde berean kokatuta daudenean, adierazpen honetan jasotako eskubideen egikaritzea oinarritu behar da guztion arteko errespetuan eta gehieneko berme demokratikoetan.

2.- Behar bezalako oreka sozio-linguistikoa ezartzeko unean, hau da, hizkuntza-erkidego eta -talde horien eskubideak behar bezala eratzeko unean, beharrezkoa da kontuan hartzea, bai haien historikotasun erlatiboa eta modu demokratikoan adierazitako borondatea, bai konpentsazio-helburua duen tratu birrorekatzailea eta hori gomenda dezaketen beste faktoreak; esate baterako, erkidego eta talde desberdinak elkarrekin bizitzera bultzatu dituzten migrazioak eta horien nahitaezkotasuna, edota haien ahulezia politiko, sozioekonomiko edo kulturala.

3. artikulua

1.- Adierazpen honen arabera, eskubide pertsonal besterenduezinak eta edozein egoeratan egikaritzeko modukoak dira honako hauek:

I. Nor bere hizkuntza-erkidegoko kide gisa aitortua izateko eskubidea;

II. Hala jendaurrean nola maila pribatuan, hizkuntza erabiltzeko eskubidea;

III. Nork bere izena erabiltzeko eskubidea;

IV. Jatorrizko hizkuntza-erkidegoko beste kideekin harremanak izateko eta elkartzeko eskubidea;

V. Nork bere kulturari eutsi eta hori garatzeko eskubidea.

VI. Eta, Eskubide Zibilen eta Politikoaren Nazioarteko Itunean, 1966ko abenduaren 16koan, eta, halaber, data berean, Ekonomia-, Gizarte- eta Politika-Eskubideen Nazioarteko Itunean, hizkuntza-edukiarekin aitortutako eskubide guztiak.

2.- Adierazpen honen arabera, hizkuntza-taldeen eskubide kolektiboak dira, haien kideentzat aurreko paragrafoan ezarritakoez gain, honako hauek ere, 2.2 artikuluko zehaztapenen arabera:

I. Nork bere hizkuntza eta kulturaren irakaskuntza izateko eskubidea;

II. Kultura-zerbitzuak jasotzeko eskubidea;

III. Taldearen hizkuntzek eta kulturek komunikabideetan ekitatezko tokia dutelako eskubidea,

IV. Erakunde ofizialetan eta harreman sozio-ekonomikoetan nor bere hizkuntzan harrera izateko eskubidea.

3.- Aurretiaz aipatutako pertsona eta taldeen eskubideak ezin daitezke oztopo izan, haien eta hizkuntza-erkidego hartzailearen arteko harremanetarako eta integrazioarako, eta, modu berean, ezin diete erkidegoari edo beraren kideei inolako mugarik jarri, horien eskubidea baita euren lurralde-esparru osoan berezko hizkuntza propioa osotasunez eta jendaurrean erabiltzea.

4. artikulua

1.- Adierazpen honen arabera, norbait bereaz beste hizkuntza-erkidego baten lurraldera lekualdatzen eta bertan kokatzen bada, eskubide eta betebeharrak du bertan *integratio*-harremanak izateko. *Integratioak* esan nahi du pertsona horiek halako sozializazio gehitua izan behar dutela, eta, horri esker, jatorrizko kultura-ezaugarriak gorde ahal izango dituzte, baina eurak hartzen dituen gizartearekin hainbat erreferentzia, balore eta portaera partekatuko dituzte, gizartearen oso-osoko ibilerak erkidego hartzailearen kidearenak baino zailtasun handiagoa izan ez ditzan.

2.- Haatik, adierazpen honen arabera, *asimilazioa* da pertsonak gizarte hartzailean akulturatzea, euren jatorrizko kultura-ezaugarrien ordez, gizarte hartzailearen erreferentzia, balore eta portaera propioak hartuz. Asimilazioa ezin da inola ere derrigortua edo eragindakoa izan, baizik eta askatasun osoz egindako aukeraren ondorioa.

5. artikulua

Adierazpen honen uztarria da honako printzipio hau: hizkuntza-erkidego guztien eskubideak berdinak dira, kontuan izan gabe hizkuntza ofizialaren, erregioeko hizkuntzaren edo gutxiengoaren hizkuntzaren izate juridiko nahiz politikoa. Erregioetako hizkuntza edo gutxiengoaren hizkuntza bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen; egia esan, zenbait kasutan, erregioetako hizkuntza edo gutxiengoaren hizkuntza aitortua izateak eskubide zehatz batzuen egikaritzea erraztu dezake, baina sarri askotan halako esamoldeak erabiltzen dira, hizkuntza-erkidegoaren eskubideak murrizteko asmoarekin.

6. artikulua

Adierazpen honek baztertu egiten du hizkuntza zehatz bat lurralde jakin bateko hizkuntza propiotzat hartzea, horretarako arrazoi bakarra bada estatua-ren hizkuntza ofiziala izatea, edo lurralde horretan administrazioaren nahiz kultura-jarduera jakin batzuen hizkuntza gisa erabiltzeko tradizioa edukitzea.

LEHEN TITULUA PRINTZIPIO OROKORRAK

7. artikulua

1.- Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektiboaren adierazpen, eta errealitatea beste modu batera atzemateko eta deskribatzeko tresna; hortaz, guztiak ere baldintza egokiak izan behar dituzte, eginkizun guztietan haiek garatu ahal izateko.

2.- Hizkuntza bakoitza taldean eraikitako errealitatea da, eta, erkidego zehatz baten magalean, gizabanakoarentzat erabilgarri bilakatzen da, kohezioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazgarritasun sortzailearen tresna gisa.

8. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, horrela gizarte-eginkizun guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurta dadin.

2.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, beharrezkoak diren baliabideak eskura izateko, hizkuntzaren transmisioa eta jarraikuntza ziurta daitezen.

9. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, bere hizkuntza-sistema kodetzeko, estandarizatzeko, garatzeko eta sustatzeko, derrigorturiko edo eragindako interferentziarik gabe.

10. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidegoko guztiak eskubide berberak dituzte.

2.- Adierazpen honen arabera, arbuiagarriak hizkuntza-erkidegoen aurka bereizkeria guztiak, hala haien subiranotasun politikoan, haien gizarte-egoeran edo egoera ekonomikoan, eta antzeko irizpideetan oinarriturikoak, nola hizkuntza horiek lortu duten kodetze-, eguneratze- edo modernizatze-mailan oinarritutakoak.

3.-Berdintasun-printzipioa aplikatuta, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira, berdintasun hori benetakoa izan dadin.

11. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, zuzeneko edo alderantzizko itzulpenerako baliabide guztiak eskura izateko, baliabide horiek adierazpen honetan jasotako eskubideen egikaritzea bermatzen duten neurrian.

12. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du, alor publikoko jarduera guztiak bere hizkuntzan egiteko, baldin eta bera bizi den lurraldeko hizkuntza propioa hori baldin bada.

2.- Gizaki orok eskubidea du, eremu pertsonalean nahiz familia-eremuan bere hizkuntza erabiltzeko.

13. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du, bizi den lurraldeko hizkuntza propioa ikasteko.

2.- Gizaki orok eskubidea du eleaniztun izateko, eta bere garapenerako edo gizarte-mugagarritasunerako lagungarrien iruditzen zaion hizkuntza ikasteko; horri kalterik egin gabe, adierazpen honetan zenbait berme ezarri dira lurraldeko hizkuntza propioaren erabilera publikoa bermatzeko.

14. artikulua

Adierazpen honetako xedapenak ezin dira interpretatu edo erabili estatu-ko nahiz nazioarteko araubideko edozein arau edo egineraren aurka, baldin eta arau edo eginera horrek tratu mesedegarriagoa ematen badio hizkuntza-ren berezko lurraldea zein izan eta lurralde horretan hizkuntza erabiltzeari.

BIGARREN TITULUA HIZKUNTZA-ARAUBIDE OROKORRA

I. ATALA ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA ORGANO OFIZIALAK

15. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntza ofizial gisa erabili dadin bere lurraldearen barruan.

2.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, jarduera judizial eta administratiboak, dokumentu publiko eta pribatuak, eta erregistro publikoetan egin-

dako inskripzioak baliozkoak eta eragingarriak izan daitezzen, lurraldeko hizkuntza propioan egiten direnean; eta inork ezin izango du alegatu hizkuntza hori ez dakienik.

16. artikulua

Hizkuntza-erkidego zehatz bateko kide orok eskubidea du, bere hizkuntzan harremanak izateko, eta, orobat, hizkuntza horretan harrera izateko, hizkuntza hori zein lurraldetan hizkuntza propio izan eta lurralde horretako botere publikoen eta administrazio-dibisioetako zerbitzuen aldetik, zentralak izan, lurraldekoak, tokikoak nahiz lurraldez gaindikoak izan.

17. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, dokumentazio ofiziala bere hizkuntza propioan eskura izateko eta eskuratzeko, paperean, euskarri informatikoan edo beste edozein euskarritan, hizkuntza hori zein lurraldetan propioa izan eta lurralde horri dagozkion harremanetan.

2.- Botere publikoek eskura izan behar dituzte lurralde-hizkuntzetan presatutako formulario, inprimaki eta ereduak, paperean, euskarri informatikoan edo beste edozein euskarritan, eta jendeari halakoak eskaini behar dizkie kasuan kasuko hizkuntza zein lurraldetako hizkuntza propioa izan eta lurralde horiei dagozkien zerbitzuetan.

18. artikulua

1.-Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du berari dagozkion legeak eta gainerako arau juridikoak lurraldearen hizkuntza propioan argitara daitezzen.

2.- Botere publikoek, beren jarduera-eremuaren barruan, lurraldearen arabera historikoa den hizkuntza bat baino gehiago dutenean, hizkuntza-horietan argitaratu behar dituzte legeak eta gainerako arau juridikoak, kontuan hartu gabe haien hiztunek beste hizkuntzak ulertzen dituzten ala ez.

19. artikulua

1.- Ordezkarien biltzarrek ofizialtzat hartu behar dituzte ordezkari diren lurraldeetan historian zehar hitz egindako hizkuntza edo hizkuntzak.

2.- Eskubide honek bere barruan hartzen ditu, halaber, asentamendu barreiatutako erkidegoen hizkuntzak, 1. artikuluko 4. paragrafoan aipatutakoak.

20. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du, ahoz eta idatziz, justizia-auzitegietan historian zehar hitz egindako hizkuntza erabiltzeko, betiere auzitegiok kokatuta daudenean hizkuntza hori hitz egiten den lurraldean. Auzitegiak lurraldeko hizkuntza propioa erabili behar dute bere barne-jardueretan, eta, estatuaren antolaketa judiziala dela eta, prozesuak hasierako lurraldetik kanpo egin behar badu aurrera, hasierako hizkuntzari eutsi beharko zaio.

2.- Edozein kasutan ere, gizaki orok eskubidea du berak ulertzen duen eta hitz egin dezakeen hizkuntza batean epaitua izateko, edo interpretatzailea doan lortzeko.

21. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du erregistro publikoetako idazkurnak lurraldeko hizkuntza propioan egin daitezen.

22. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, notarioek eta fede publikoa duten funtzionarioek eskuetsitako dokumentuak idatziak izan daitezen, notarioak edo fede publikoa duen funtzionarioak bere egoitza zein lurraldetan izan eta lurralde horretako hizkuntza propioan.

II. ATALA HEZKUNTZA

23. artikulua

1.- Hezkuntza lagungarri izan behar da, hori ematen den lurraldeko hizkuntza-erkidegoak bere hizkuntza eta kultura adierazteko gaitasuna indartu dezan.

2.- Hezkuntza lagungarri izan behar da, ematen den lurraldeko hizkuntza-erkidegoak berak hitz egiten duen mintzairari euts diezaion eta hori gara dezan.

3.- Hezkuntza, betiere, hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren zerbitzupuan egongo da, eta, orobat, munduan zeharreko hizkuntza-erkidego desberdinen arteko harreman harmoniotsuen alde.

4.- Aurreko printzipioak kontuan hartuta, gizaki orok eskubidea du edozein hizkuntza ikasteko.

24. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du erabakitzeo zein izango den bere hizkuntzak, hala hezkuntzaren hizkuntza gisa, nola irakaskuntzaren gai gisa, izango duen presentzia, bere lurraldeko maila guztietako hezkuntzan: eskolaurrean, oinarrizko hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, hezkuntza teknikoan eta lanbide-heziketan, unibertsitateko hezkuntzan eta helduen hezkuntzan.

25. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du eskura izateko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak bere lurraldearen barruko irakaskuntzaren maila guztietan, bere hizkuntzak nahi duen presentzia-maila lor dezan: modu egokian hezitako irakasleak, metodo pedagogiko egokiak, eskuliburuak, diruiturriak, lokalak eta ekipamenduak, baliabide teknologiko tradizionalak zein berritzaileak.

26. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du halako hezkuntzaz gozatzeko non bere kide guztiei bide emango zaien bere hizkuntza propioa erabat menderatzeko, ohiko erabilera-eremu guztiei dagozkien gaitasun guztiekin, eta baita ikasi nahi dezaketen beste edozein hizkuntzaren jabetzerik osoena ere.

27. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du hezkuntzak bere kideei ahalbide diezaien kultura-tradizio propioari loturiko hizkuntzak ikastea, esate baterako, kultura- nahiz erlijio-hizkuntzak, antzina erkidego horren ohiko hizkuntzak izanez gero.

28. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du hezkuntzak bere kideei ahalbide diezaien beren kultura-ondarea (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenak) sakon ezagutzea, eta, halaber, ezagutu nahi dituzten kulturetatik beste edozein ahalik eta gehien menderatzea.

29. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du bera bizi den lurraldeko hizkuntza propioan hezkuntza jasotzeko.

2.- Eskubide honek ez du alboratzen beste edozein hizkuntza ahoz nahiz idatziz ezagutzeko eskubidea, hori komunikazio-tresna izan badaiteke beste hizkuntza-erkidego batzuekin komunikatzeko.

30. artikulua

Unibertsitateko ikaskuntza eta ikerkuntzaren gai izango dira hizkuntza-erkidego bakoitzaren hizkuntza eta kultura.

III. ATALA ONOMASTIKA

31. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, esparru eta egokiera guztietan, bere onomastika-sistemari eusteko eta hori erabiltzeko.

32. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere lurraldeko toki izenak bere hizkuntzan erabiltzeko, ahoz eta idatziz, esparru pribatu, publiko eta ofizialean.

2.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du toki izen autoktonoak finkatzeko, gordetzeko eta berrikusteko. Toki izen horiek ezin izango dira nahierakeriaz ezabatu, aldatu ez egokitu; era berean, ezin izango dira ordeztu gorabehera politikoen edo bestelako aldaketen ondorioz.

33. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere burua hizkuntza propioan izendatzeko. Hortaz, beste hizkuntzetara egindako itzulpena egitean, baztertzekoak izango dira izendapen nahasgarri zein erdeinuzkoak.

34. artikulua

Gizaki orok eskubidea du bere antroponimia eremu guztietan berea duen hizkuntzan erabiltzeko, eta beste sistema grafiko batera, behar denean soilik, ahalik eta modu fonetikorik fidelenean transkribatzeko.

IV. ATALA

KOMUNIKABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

35. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntzak bere lurraldeko komunikabideetan zein mailatako presentzia izan behar duen erabakitzeko, hala tokikoak eta tradizionalak, nola irismen handiagokoetan eta teknologia aurreratuagokoetan, kasuan-kasuan erabiltzen den hedapen- edo igorpen-sistemari erreparatu gabe.

36. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak eskura izateko, eta, horren bitartez, bere hizkuntzaren eta kultura-autoadierazpenaren presentzia ziurtatu ahal izateko, bere lurraldeko komunikabideetan behar adinakoak izan dadin: prestakuntza egokia duten langileak, finantzaketa, lokalak eta ekipoak, baliabide teknologiko tradizionalak eta berritzaileak.

37. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du komunikabideen bidez bere kultura-ondarea (historia, geografia, literatura eta kultura propioaren beste adierazpenak) sakon ezagutzeko, eta, halaber, ezagutu nahi dituzten kulturetatik beste edozein ahalik eta gehien menderatzeko.

38. artikulua

Hizkuntza-erkidegoen hizkuntza eta kultura guztiak ekitatezko tratu ez-baztertzailerak izan behar dute mundu osoko komunikabideen edukietan.

39. artikulua

Adierazpen honen 1. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan deskribatutako erkidegoek, bai eta artikuluko 5. paragrafoan azaltzen diren taldeek ere, eskubidea dute, egoitza non finkatu edo lekualdatzen diren lurraldeko komunikabideetan, beren hizkuntzek errepresentazio orekatua izan dezaten. Eskubide horren egikaritzea harmonizatu egin beharko da lurraldeko beste talde edota erkidegoen eskubideen egikaritzarekin.

40. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du, informatikaren eremuan, bere hizkuntza-sistemari egokitutako ekipoak izateko, eta bere hizkuntzan erramintak eta produktuak lortzeko, teknologia horiek eskaintzen dituzten aukera guztietik onura atera dezan, bai autoadierazpenari, hezkuntzari, argitarapenari edo itzulpenari dagokionez, bai, oro har, informazioaren tratamenduari eta kultura-hedapenari dagokionez.

V. ATALA KULTURA

41. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntza kultura-adierazpen guztietan erabiltzeko, horri eusteko eta bultzatzeko.

2.- Eskubide hori bete-betean egikaritu ahal izango da, eta kanpoko kulturek ezin izango dute inongo erkidegoren espazioa modu hegemonikoan okupatu.

42. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere kultura-mundu propioan erabat garatzeko.

43. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntzan egindako lan guztietan irispenera izateko.

44. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du kultura arteko programetan irispenera izateko, behar adinako informazio-hedapenaren bidez, eta, halaber, atzerriarren hizkuntza-ikasketari, itzulpenari, bikoizketari, postsinkronizazioari, azpтитulugintzari eta antzeko ekintzei behar besteko laguntza eman dakien.

45. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du lurraldeko hizkuntza propioak toki nagusia zan dezan kultura-gertakarietan eta –zerbitzuetan (hala nola,

liburutegiak, bideotekak, zinemak, teatroak, museoak, artxiboak, informatika-ekoizpena, folklorea, kulturaren industriak eta kultur bizitzak eratorritako beste gertakari guztiak).

46. artikulua

Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntza- eta kultura-ondarea zaintzeko, barnean izanik haien adierazpen materialak, hala nola, dokumentu-funtsak, arte- eta arkitektura-lanak, monumentu historikoak eta bere hizkuntzaren agerpen epigrafikoak.

VI. ATALA ALOR SOZIOEKONOMIKOA

47. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntzaren erabilera bere lurraldearen barruko jarduera sozioekonomiko guztietan ezartzeko.

2.- Hizkuntza-erkidegoaren kide orok eskubidea du bere hizkuntzan lanbide-jarduerako baliabide guztiak izateko, hala nola, kontsultarako dokumentuok eta liburuak, jarraibideak, formularioak, eta informatikako ekipamenduak, tresnak eta produktuak

3.- Kasuan-kasuan egiten den lanbide-jardueraren izaera izango da, izan ere, alor sozioekonomikoan beste hizkuntzen erabilera justifika dezaketen arrazoi bakarra. Ezin da inola ere onartu berriki etorria den hizkuntzak lurraldean berezkoa den hizkuntza ezkutatzea edo horren erabilera menderatzea.

48. artikulua

1.- Gizaki orok bere hizkuntza-erkidegoaren lurraldean eskubidea du bere hizkuntza balio juridiko osoz erabiltzeko, era guztietako merkataritza-jardueretan, hala nola, ondasun eta zerbitzuen salerosketetan, banku-eragiketetan, aseguruetan, lan-kontratuetan eta gainerakoetan.

2.- Ekintza pribatu horietako klausuletatik batek ere ezin du baztertu edo mugatu lurraldeko hizkuntza propioaren erabilera.

3.- Gizaki orok eskubidea du, bere hizkuntza-erkidegoaren lurraldean eta bere hizkuntzan, aipatu eragiketetan behar dituen agiriak eskura izateko, hala nola, inprimakiak, txekak, kontratuak, fakturak, ordainagiriak, emate-agiriak, eskaerak eta gainerakoak.

49. artikulua

Gizaki orok eskubidea du, bere hizkuntza-erkidegoaren lurraldean, bere hizkuntza edozein motatako erakunde sozioekonomikoetan erabiltzeko, hala nola, lan-erakundeak, sindikatu-erakundeak, patronalak, lanbidekoak eta botigoak.

50. artikulua

1.- Hizkuntza-erkidego orok eskubidea du bere hizkuntzak presentzia nagusia izan dezan publizitatean, errotulazioan, kanpoko zeinaleetan eta lurraldearen irudi orokorrean.

2.- Hizkuntza-erkidegoaren beraren lurraldean, gizaki orok eskubidea du bere hizkuntzan informazio osoa izateko, idatzia zein ahozkoa, lurraldean finkatutako merkataritza-establezimenduek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuei buruz, hala nola, erabiltze-jarraibideak, etiketak, osagai-zerrendak, publizitatea, bermeak eta gainerakoak.

3.-Pertsonen segurtasunari dagozkion argibide publiko guztiak hizkuntza-erkidegoaren hizkuntza horretan adieraziko dira behintzat, beste edozein hizkuntzatarako adierazpenak baino baldintza ez okerragoetan.

51. artikulua

1.- Gizaki orok eskubidea du, lurraldeko hizkuntza propioa enprekin, merkataritza-establezimenduekin eta erakunde pribatuekin dauzkan harremanetan erabiltzeko, eta hizkuntza horretan harrera izateko eta erantzuna jasotzekoa ere.

2.- Gizaki orok eskubidea du, bezero, kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, jendeari zabaldutako establezimenduetan lurraldeko hizkuntza propioan argibideak jasotzeko, hala ahoz nola idatziz.

52. artikulua

Gizaki orok eskubidea du lan- nahiz lanbide-jarduerak lurraldeko hizkuntza propioan egiteko; salbuetsita geratzen dira lanpostuari dagozkion eginkizunak, horietan beharrezkoa denean beste hizkuntza batzuk erabiltzea, barbarako, hizkuntza-irakasleak, itzultzaileak, turismo-gidariak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.-

Botere publikoek neurri egoki guztiak hartu beharko dituzte, zeinek bere jardute-arloan, adierazpen honetan aldarrikatutako eskubideak aplikatzeko. Zehatz esateko, nazioarteko funtsak eskura jarri beharko dira, nabariro baliabide-eskasia dauden erkidegoen hizkuntza-eskubideen egikaritzari eusteko. Era berean, botere publikoek behar den laguntza guztia eman beharko dute, erkidegoen hizkuntzak kodetzeko, idatziz jasotzeko, irakasteko eta administrazioan erabiltzeko.

Bigarrena.-

Botere publikoek bermatu behar dute agintari, erakunde eta pertsona egoekiek informazioa jaso dezaten, adierazpen honetatik ateratzen diren eskubide eta eginbeharrei buruz.

Hirugarrena.-

Botere publikoek, indarreko legerien arabera, ezarri behar dute zein zehajarriko den, adierazpen honetako hizkuntza-eskubideak urratuz gero.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.-

Adierazpen honek proposatzen du Hizkuntzen Kontseilua sortzea, Nazio Batuen baitan. Nazio Batuen Biltzar Orokorrari dagokio Kontseilu hori sortu eta definitzea, kontseilukideak izendatzea, eta, adierazpen honetan aitortutako eskubideei dagokienez, hizkuntza-erkidegoak babestuko dituen nazioarteko erakundea sortzea.

Bigarrena.-

Adierazpen honek gomendatu eta sustatzen du *Hizkuntza-Eskubideen Munduko Batzordea* sortzea; hori ez da ofiziala izango, aholku-emailea baizik, eta gobernuz kanpoko erakundeen ordezkariak eta hizkuntza-zuzenbidearen alorreko erakundeek osatuko dute.

Bartzelona, 1996ko ekainaren 6an.

§5. Europar Batasuna

5.1. EUROPAKO KONTSEILUAREN PARLAMENTU BILTZARRA

Cirili txostena eta 928. gomendia: 1981. urteko urriaren 7ko gomendia, Europako eremu urriko hizkuntzen eta dialektoen hezkuntza- eta kultura-arazoei buruzkoa

Biltzarrak,

1. Kontuan hartuta oso garrantzitsua dela, Europaren bilakaerarentzat eta Europaren inguruko ideientzat, Europako kultura guztiakin, eta, bereziki, hizkuntza-nortasunekin, begirunea izatea eta horien garapena orekatua izatea;

2. Kontuan hartuta desberdintasun handiak daudela, demografiari dagokionez, egoera soziologikoari dagokionez, hizkuntzen normalizazioari dagokionez, hizkuntza horien erabilera pribatu edo publikoari dagokionez, eta hezkuntza lortzeko nahiz komunikabideetan lekua izateko aukerei dagokionez, konponbideak kasuan kasukoak eta bereziak izan behar dira, ezin baita konponbide orokorrik eman;

3. Kontuan hartuta hizkuntza bakoitzaren tratamendu zientifikoak, giza tratamenduak eta kultura-tratamenduak honako printzipio hauek izan behar dituztela oinarrian:

- Kautotasun zientifikoari zor zaion begirunea.
- Haurrak bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubidea.
- Giza erkidegoek euren hizkuntza eta kultura propioak garatzeko duten eskubidea.

4. Ministroen Kontseiluari gomendia luzatzen dio, horrek azter dezan ea aukerarik dagoen, estatu kideetako gobernuak, baliabiderik egokienak erabiltzea, jarraiko neurriak har ditzaten:

a. Zientziaz denaz bezainbatean, eta, kasua denean, ohiko izenarekin bat etorrita, toponimiaren forma egokiak ezari-ezarian bereganatzea, lurraldean jatorrizkoak diren hizkuntzak horretarako abiapuntu izanik, lurralde hori txikia izan arren.

b. Gizakiaz denaz bezainbatean, haur-hezkuntzan ama-hizkuntza arian-arian barneratzea (eskolaurrean, ahoz dialektoa erabiltzea; lehen hezkuntzan, ama-hizkuntzaren forma normalizatuak barruratzea, eta, lehen hezkuntza horretan ere, gutxika-gutxika baina jarraitutasunez, ama-hizkuntzarekin batera, herriko hizkuntza nagusia sartzea).

c. Kulturaz denaz bezainbatean, eremu urriko hizkuntza normalizatuaren toki erabilerarekin begirunea izatea eta erabilera horrentzako laguntza publikoak ematea, erabilera hori ohikoa izan dadin lurralde zehatz horietako goi hezkuntzan eta masa-komunikabideetan, betiere hizkuntza noriek zein erkidegotan hitz egin eta erkidego horiek hala nahi dutenean.

d. Politikaz denaz bezainbatean, lurraldeek euren hizkuntza propioa baldin badute, eta, lurraldeek zein estaturen barruan egon eta estatu horretan, nolabaiteko administrazio-egitura badute, lurralde horietan ezarritako boteerak hizkuntza hori aitortzea hizkuntza ofizial edo ofizialkide moduan.

5. Aurretiaz aipatu a, b, c eta d idatz-zatietan zein proposamen jaso eta proposamen horiek Europako eremuan abian jartzeaz denaz bezainbatean, gonbita luzatzen dio Ministroen Batzordeari, horrek azter dezan ea aukerarik dagoen, eremu honetan gertatuko berrikuntzak bildu eta horien gaineko informazioa zabaltzeko.

5.2. EUROPAKO PARLAMENTUA

5.2.1. Arfé gomendioa

5.2.1.a) Europako Parlamentuak 1981. urteko urriaren 16an emandako Ebazpena, Erregioen Hizkuntza eta Kulturei buruzko Europako Gutuna eta Eremu Urriko Etnien Eskubideei buruzko Gutuna aipatzen dituena

EUROPAKO PARLAMENTUAK,

- Kontuan harturik etnia- eta hizkuntza-gutxiengoek mugimendu bereziak piztu dituztela, euren nortasun historikoa hobeto uler eta aitordadin;
- Aitorturik, mugimendu horiekin batera, erregioetako hizkuntzak eta kulturak indarberritu egin direla, eta Europako zibilizazioarentzat aberastasun-iturri eta bizitasun-seinale direla;
- Kontuan harturik nazioarteko erakunderik esanguratsu eta ospetsuenek (Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak, besteak beste) egindako printzipio-adierazpenak, eta aintzakotzat izanik guztion onarpenarekin arestian zabaldu diren teoria politikoak, lege-teoriak eta teoria antropologikoak;
- Kultura-gaietan erantzukizuna duten ministro europarrek, 1976. urtean, Osloko Biltzarrean, 1. zenbakiarekin emandako Ebazpenari lotuta;
- Kontuan harturik Europako Erkidegoko gobernu guztiek, orokorrean bederen, aitortu dutela talde horiek adierazpen pertsonalak nahiz kultura-adierazpenak askatasunez egiteko duten eskubidea, eta sortu dutela, kasurik gehienetan, eremu zehatz horri buruzko legeria, eta hasiera eman dietela ekintza-programa koordinatuei;
- Kontuan harturik kultura-nortasuna, gaur egun, beharrian psikologikoetatik garrantzitsuenetako bat dela, beharrian materialak ez direnen artean behintzat;

- Gogoan izanik autonomia ez dela ulertu behar tradizio desberdinetako pertsonak integratzeko aukera gisa, baizik eta baliabide gisa, pertsona horiek euren kabuz zuzen dezaten interkomunikazioa gehitzeko beharrezkoa den prozesua;
- Kontuan harturik, beraz, hizkuntza- eta kultura-ondarea ezin dela babestu, ez badira baldintza egokiak sortzen, kulturaren eta ekonomia-aren garapena behar bezalakoa izan dadin;
- Helburu sendoa izanik Europako herrien artean lotura estuagoak ezartzea eta haien hizkuntza biziak iraunaraztea, eta, horrela, haien desberdintasunak baliatuz, guztion kultura-ondarea aberatsagoa eta anitzagoa izatea;
- 1- 371/79, 1-436/79 eta 1-790/79 Ebazpenetako mozioak aintzakotzat harturik;
- Kontuan harturik Gazteria, Kultura, Hezkuntza, Informazio eta Kirol Batzordeak emandako txostena, eta Erregioen Politika eta Plangintzari buruzko Batzordeak emandako irizpena ere (1-965/80),

1. Nazioetako gobernuei, eta erregioetako nahiz tokiko agintariei eskatzen die, euren egoerak arras desberdinak izanik ere, eta haiek duten independentzia-mailari kalterik egin gabe, eremu honetan politika zehatza aplikatzea, politika horrekin guztiok helburu berberak lor ditzaten. Horretarako, beren beregi galdatzen die:

a) Hezkuntzaren esparruan:

- Erregioetako hizkuntza eta kulturen irakaskuntza ahalbidetu eta sustatzea, ikasketa ofizialen programetan, haurtzaindegitik hasita unibertsitate arte;
- Biztanleek adierazitako beharrian zehatzei erantzuna emateko, maila guztietako irakaskuntza-eskolak onartu eta ematea erregioetako hizkuntzetan, eta, horrekin batera, arreta berezia jartzea haur-eskoletako irakaskuntzan, haurra bere ama-hizkuntza hitz egiteko gauza dela ziurtatzeko;
- Ikasketa-programa guztietan, erkidego horien literatura eta historiari buruzko irakaskuntza barnera dadin ahalbidetzea;

b) Masa-komunikabideen esparruan:

- Beharrezkoak diren neurriak ahalbidetu eta hartzea, tokiko irrati eta telebistak eskuragarriak izan daitezen ziurtatzeko; horrela, komunikazio koherente eta eragingarria bermatu ahal izango da erkidegoaren barruan. Orobat, erregioetako aurkezle espezializatuen heziketa sustatzea;
- Gutxiengo-taldeek kultura-ekintzetarako antolaketa-laguntzak eta laguntza ekonomikoak jasotzen dituztela ziurtatzea, laguntza horiek gehiengoak duten taldeek jasotzen dituztenen bestekoak izanik;

c) Gizarte-bizitzaren eta gizarte-gaien esparruan:

- Europako Kontseiluaren barruan, Toki Botereetako Biltzarrak Bordelen egindako Adierazpena kontuan harturik, gai honen gaineko zuzeneko erantzukizuna tokiko agintarien gain jartzea;
- Ahal den neurrian, kultura-erregioen eta tokiko erakundeen muga geografikoak bat etor daitezten sustatzea;
- Pertsonen eskubidea denez beren hizkuntza erabili ahal izatea, bizitza publikoaren eta gizarte-arazoan esparruan, erakunde ofizialekin harremanak dituztenean, eta epaitegietan dihardutenean ere, eskubide hori bermatzea;

2. Europako Batzordeari eskaria egiten dio, horrek, ahalik eta modurik egokienean, datu berri, zehatz eta erkatzeko modukoak eman ditzan, estatu kideen biztanleek erregioetako hizkuntza eta kulturei begira dituzten jarrera eta jokabideei buruz, herri desberdinetan;

3. Europako Batzordeari galdatzen dio, horrek eredu-proiektuak presta ditzan, hizkuntzen irakaskuntzaren arloan; horrela, hezkuntza eleanitzaren metodoekin espermentatu ahal izango da, eta metodorik egokienak definitu ahal izango dira, banakako kulturek bizirik iraun dezaten eta kanporantz hobeto babestuta egon daitezten;

4. Gomendioa luzatzen du Erregioen Funtsak laguntza ekonomikoa eman diezaien erregio nahiz herritako kulturak iraunarazteko helburua duten proiektuei; Europako Batzordeari eskatzen dio, berebat, horrek, bere hezkuntza- eta kultura-programetan, neurri egokiak har ditzan, Europako kultura-politika egokia sustatzeko, eta, politika horren bidez, etnia- eta hizkuntza-gutxiengo desberdinen gurariak eta igurikimenak kontuan hartzeko, gutxiengo horiek Europari eta horren erakundeei so egiten baitiete, konfiantza eta itzaropenarekin;

5. Proposamena egiten du Erregioen Funtsak finantzaketa eman diezaien erregioetako proiektu ekonomikoei; izan ere, erregio zehatz baten kultura-nortasunak iraungo badu, nahitaezkoa da erregio horretako biztanleak euren esparru geografikoan bizi eta lan egiteko gauza izatea;

6. Europako Batzordeari eskaria egiten dio, horrek Europako Erkidegoko legeak eta eginerak berrikus ditzan, lege edo eginera horiek eremu urriko hizkuntzen aurka bereizkeriak egiten dituzten neurrian;

7. Bere lehendakariari agintzen dio, ebazpen hau helaraz diezaien Europako Kontseiluari eta Batzordeari, estatu kideetako erregio-gobernu eta -agintariei, bai eta Europako Kontseiluari ere.

5.2.1.b) Europako Parlamentuak 1983. urteko otsailaren 11n emandako Ebazpena, Eremu Urriko Hizkuntza eta Kulturen Aldeko Neurriei buruzkoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK,

- Kontuan harturik Europako Erkidegoko herritarren artetik 30 milioik baino gehiagok ama-hizkuntza dutela erregio-hizkuntzetatik bat edo gutxi hitz egiten diren horietatik bat;
 - Kontuan harturik etnia- eta hizkuntza-gutxiengoek mugimendu bereziak piztu dituztela, euren nortasun historikoa hobeto uler eta aitortu dadin;
 - Aintzakotzat harturik berak gai honen gainean 1981. urteko urriaren 16an emandako Ebazpena;
1. Europako Batzordeari eskatzen dio:
 - Arlo honetan egindako ahaleginekin aurrera egin eta horiek indartzea, bereziki, eredu-proiektuak eta -azterketak sortuz;
 - Europako Erkidegoko nahiz nazioetako legeak eta eginerak berrikustea, lege eta eginera horiek eremu urriko hizkuntzen aurka bereizkeria egiten duten neurrian, eta Europako Erkidegoko tresna egokiak sortzea, bereizkeria hori bukarazteko;
 - 1983. urtearen bukaeran, Parlamentuari informazioa helaraztea, aurreko bi atalen inguruan egindako jardunari buruz eta jardun horren emaitzei buruz.

2. Europako Batzordeari eskaria egiten dio, horrek Parlamentuari informazioa helaraz diezaien, egun hartuta dauden edo bihar-etzi hartzekoak diren neurriei buruz, neurri horien helburua denean, masa-komunikabideen esparruan eta kultura-programen eremuan, erregio nahiz herrietako kulturak eta kultura-politikak sustatzea; orobat, erregioetako proiektu ekonomikoei finantzaketa ematea, Erregioen Funtsak 1981. urteko urriaren 16ko Ebazpenaren 4 eta 5. paragrafoetan ezarri bezala.

3. Parlamentuak emandako ebazpenaren printzipioak gogoan izanik, Europako Kontseiluari eskaria egiten dio, horrek praktikan ziurta dezan printzipio horiek betetzen direla.

4. Bere aburuz, Parlamentuak eutsi beharko lioke Europako Erkidegoaren esparruan izandako aurrerapenen gaineko berrikuspenari, eta kasuan kasuko parlamentu-batzordeek baterako bilera egin beharko lukete, guztien artean erabaki dezaten zein den modurik onena hori gauzatzeko.

5. Bere lehendakariari agintzen dio, ebazpen hau helaraz diezaien Europako Batzordeari, Europako Kontseiluari, eta estatu kideetako gobernuei.

5.2.2. Kuijpers Ebazpena

Europako Parlamentuak 1987. urteko urriaren 10ean emandako Ebazpena, Europako Erkidegoko Erregioen eta Eremu Urriko Etnien Hizkuntza eta Kulturei buruzkoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK,

- Ikusirik Columbu jaunak eta beste sinatzaile batzuek Ipar Kataluniako hizkuntza-eskubideei buruz prestatutako ebazpen-proposamena (2-1259/84 agiria);
- Ikusirik Kuijpers eta Vandemeulebroucke jaunek Europako Erkidegoko erregioen hizkuntzak eta kulturak defendatu eta sustatzeari buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-76/85 agiria);
- Ikusirik Rossetti jaunak eta beste sinatzaile batzuek gutxiengo eskubi-deak aitortzeari buruz eta haien kultura baloratzeari buruz prestatutako proposamena (B2-321/85 agiria);
- Ikusirik Vandemeulebroucke eta Kuijpers jaunek prestatutako ebazpen-proposamena (proposamen horren eretzean, Europako Batzordeak ez du gaitasunik izan Europako Parlamentuak onetsitako ebazpenari bidea egiteko, ebazpen horrek Erregioen Hizkuntza eta Kulturen Europako Gutuna eta Eremu Urriko Etnien Eskubideei buruzko Gutuna aipatzen zituela) (B2-1514/85 agiria);
- Ikusirik Vandemeulebroucke eta Kuijpers jaunek irrati askeen aitortpenari buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-1532/85 agiria);
- Ikusirik Vandemeulebroucke jaunak eta beste sinatzaile batzuek Frisian telebista frisoia izateari buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-31/86 agiria);
- Ikusirik Kuijpers eta Vandemeulebroucke jaunek Herbehereetako Ongizate, Herri Osasun eta Kultura ministroak duen asmoari buruz eta asmo horrek mugaz gaindiko kultura-lankidetzarentzat ekarriko dituen ondorio latzei buruz prestatutako ebazpen-proposamena (ministro horren

- asmoa bide da Herbehereetako Aliantza Nagusiari emandako laguntza ezabatzea) (B2-890/86 agiria);
- Ikusirik Columbu jaunak eta beste sinatzaile batzuek eremu urriko hizkuntzentzat hizkuntza-ikerketarako erakundeak sortzeari buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-1346/86 agiria);
 - Ikusirik Rubert de Ventós jaunak katalana unibertsitatean eta telebistan erabiltzeko dauden zailtasunei buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-1323/86 agiria);
 - Ikusirik Mizzau jaunak eta beste sinatzaile batzuek, eremu urriko hizkuntzak defendatzeko helburuarekin, hizkuntza-ikerketarako erakunde edo elkarteentzako laguntzei buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-1346/86 agiria);
 - Ikusirik Kuijpers jaunak eta beste sinatzaile batzuek SEASKA elkarteak Ipar Euskal Herrian administratutako eskola elebidunak integratzeari buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-1346/86 agiria);
 - Ikusirik Colom i Naval jaunak Europako Ekonomi Elkartean eremu urriko hizkuntzak sustatzeari buruz prestatutako ebazpen-proposamena (B2-291/87 agiria);
 - Ikusirik Gazteria, Kultura, Hezkuntza, Informazio eta Kirol Batzordeak emandako txostena, eta entzunda Herritarren Eskubideen Batzorde juridikoak emandako iritzia (A2-150/87 agiria);

A) Kontuan harturik berak 1981. urteko urriaren 16an Erregioen Hizkuntza eta Kulturen Europako Hitzarmenari buruz eta Eremu Urriko Etnien Eskubideen gaineko Hitzarmenari buruz emandako Ebazpena, bai eta 1983. urteko otsailaren 11n Eremu Urriko Hizkuntza eta Kulturen Aldeko Neurriei buruz emandako Ebazpena ere;

B) Kontuan harturik Nazio Batuek eta Europako Kontseiluak gutxiengo eskubideei buruz aldarrikatu eta onetsitako printzipioak;

C) Batzordeak, gaur arte, ez duenez proposamenik prestatu, aipatu ebazpenak betearazteko (horietan etnia-, hizkuntza- eta kultura-gutxiengoaren arazoak euren osotasunean aztertzen direla), hori deitoratuz;

D) Kontuan harturik eragozpen asko daudela nazio- eta hizkuntza-gutxiengoek euren kultura- eta gizarte-nortasuna gauza dezaten, eta, gutxiengo horiei begira eta euren arazoei begira, sarri askotan ez-jakitea eta ezin-ulertzea nagusitzen direla, eta, are gehiago, zenbait kasutan, bereizkeria ere;

E) Europako Erkidegoaren Erregioen Biltzarraren azken adierazpenari so eginez, eta Europako Erkidegoak 1984. urteko apirilaren 13an Europa demokratikoa eraikitzeko orduan erregioek duten zereginari buruz emandako Ebazpenari erreparaturik; eta, orobat, Erregioen Biltzarraren emaitzak aintzatzat harturik (emaitza horien arabera, Europako Erkidegoko erregioen

autonomia indartzea eta politikaren ikusmiratik gero eta batuago dagoen Europa sortzea elkarren osagarri eta bateragarri dira, eta bilakaera politikoak bi-biok behar ditu, Europako Erkidegoak eragingarritasunez bete ditzan bere eginkizunak);

F) Kontuan harturik erregioen egoera ekonomikoak baldintzatu egiten dituela tokiko kulturen adierazpena eta garapena; horregatik, arlo horretan beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira, Europako erregio-politika orekatu baten barnean, erregio-oinarrian abiaburua duena, eta inguruneak zentrorra ihes egitea oztopatzen duena;

1. Eskatzen du goian aipatu ebazpenetan, alegia, 1981. urteko urriaren 16ko eta 1983. urteko otsailaren 11ko ebazpenetan, jasotako printzipioak eta neurriak oso-osorik aplikatzea.

2. Uste du nahitaezkoa dela estatu kideek beren eremu urriko hizkuntza-gutxiengoak aitortzea, euren ordena juridikoaren esparruan; horrela, erregio nahiz etnien kulturak eta hizkuntzak iraunarazi eta garatzeko baldintzak sortuko dira.

3. Estatu kideei gonbita luzatzen die, euren konstituzioetan gutxiengoak babesteko printzipio orokorrak jasoak dituztenei, ahalik lasterren ziurtatzea, xedapen organiko aplikagarrien bitartez, printzipio horiek praktikan zehatz-mehatz gauzatzen direla.

4. Laguntza ematen die Europako Kontseiluak Erregioetako eta Eremu Urriko Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna prestatzeko egin dituen ahaleginei.

5. Estatu kideei gomendioa luzatzen die, horiek, batik bat, jarraiko neurriak har ditzaten, hezkuntzaren arloan:

- Kasuan kasuko hizkuntza-erregioetan, eskolaurretik unibertsitatea arte, bai eta hezkuntza iraunkorrean zehar ere, erregioetako eta eremu urriko hizkuntza irakasteari dimentsio ofiziala ematea, eta maila berean jartzea irakaskuntza hori eta nazio-hizkuntzen irakaskuntza.
- Indarreko nazio-xedapenen arabera, elkarteek irakasteko gaikuntza izan eta elkarte horiek ikastaroak, klaseak eta eskolak ematen dituztenean, halakoak modu ofizialean aitortzea, heziketarako hizkuntza nagusia erregioiko edo eremu urriko hizkuntza dela.
- Irakasleak erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan trebatu daitezten, arreta berezia jartzea, eta beharrezkoak diren neurri pedagogikoak hartzea, aipatu neurriak abian jar daitezten.
- Erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan irakasteko dauden aukera desberdinei buruz, informazioa sustatzea.
- Lanbide-gaikuntzarako diploma, ziurtagiri eta gainerako titulu nahiz ziurtapenen baliokidetasuna arautzea; horrela, estatu kide zehatz batek beste estatu kide batzuekin kultura-harremanak dituenean, estatu kide

horietako erregioei edo eremu urriko taldeei errazago egingo zaie estatu kide zehatz horren lan-merkatuan sartzea.

6. Estatu kideei gomendioa luzatzen die, horiek, batik bat, jarraiko neurriak har ditzaten, administrazio- eta epaiketa-arloan:

- Legegintzazko xedapenen bitartez, zuzen-zuzenean bermatzea erregioetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko eskubidea; lehenik eta behin, tokiko agintarien kasuan, horietan gutxiengoaren izatea errealitate bihurtu denean.
- Nazioko legeek eta eginerek eremu urriko hizkuntzen aurka bereizkeria egiten dutenean, horiek guztiak berrikustea, horixe agintzen baitu Europako Parlamentuak European Faxismoa eta Arrazakeria Gehitzeari buruz emandako Ebazpenak.
- Estatuko zerbitzu deszentralizatuei ere agintzea, kasuan kasuko erregioetan nazio nahiz erregio horietako eta eremu urriko hizkuntzak erabil ditzaten.
- Erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan ezarritako patronimikoak eta leku-izenak modu ofizialean aitortzea.
- Hauteskundeetako zerrendetan baimentzea erregioetako edo eremu urriko hizkuntzetan ezarritako leku-izenak eta bestelako adierazpenak jar daitezen.

7. Estatu kideei gomendioa luzatzen die, horiek, batik bat, jarraiko neurriak har ditzaten, masa-komunikabideen arloan:

- Toki, erregio eta nazioko irrati-telebista eskuratzeko baimena ematea eta hori ahalbidetzea, erregioetako nahiz eremu urriko hizkuntzetan egindako emisioen iraunkortasuna eta eragingarritasuna bermatuz.
- Ahaleginak egitea, gutxiengo-taldeek, euren programak gauzatzeko orduan, antolaketa- eta finantza-laguntza jaso dezaten; laguntza horrek eta gehiengoak jasotzen duenak izaera berbera edukiko dute.
- Aipatu neurriak gauza daitezen, komunikabideetako kazetari eta profesionalen heziketarako diru-laguntzak ematea.
- Erregioetako eta eremu urriko hizkuntzen esku jartzea komunikazio-teknologien eskuraketa berriak.
- Era berean, idazketa bereziek, besteak beste, zirilikoak, hebreerak, grekoak eta antzekoek, material berezia behar dutenez gero, material horri dagokion kostu osagarria kontuan hartzea.

8. Estatu kideei gomendioa luzatzen die, horiek, batik bat, jarraiko neurriak har ditzaten, kultura-azpiegiturei dagokienez:

- Ekipoez eta kultura-jarduerez denaz bezainbatean, taldeek erregioetako edo eremu urriko hizkuntza hitz egiten dutenean, talde horietako ordezkariak zuzeneko parte-hartzea izan dezaten ziurtatzea.

- Fundazioak edo erakundeak sortzea, haien helburua izan dadin erre-
gioetako eta eremu urriko hizkuntzak aztertzea. Fundazio edo erakun-
de horien zeregina izango da, bereziki, material didaktikoak prestatzea,
material horiek beharrezkoak direnean erregioetako eta eremu urriko
hizkuntzak ikastetxeetan sar daitezen; haien eginkizuna izango da, oro-
bat, hizkuntza horien “inbentario orokorra” egitea.
 - Erregioetako eta eremu urriko hizkuntzetan ikus-entzunezko ekoiz-
penak sustatzeko, bikoizketa- eta azpitolazio-teknika bereziak gara-
tzea.
 - Aipatu neurriak gauza daitezen beharrezkoak diren laguntza materialak
eta finantza-laguntzak ematea.
9. Estatu kideei gomendioa luzatzen die, horiek, batik bat, jarraiko neu-
rriak har ditzaten, gizarte eta ekonomiaren arloan:
- Enpresa publikoek (adibidez, posta-trafikoak) erregioetako eta eremu
urriko hizkuntzak erabil ditzaten ahalbidetzea.
 - Finantza-transakzioetan (posta-txekeetan eta banku-eragiketetan), erre-
gioetako eta eremu urriko hizkuntzak erabil daitezen onartzea.
 - Kontsumitzaileei informazioa emateko orduan eta produktuei etiketak
jartzeko orduan, erregioetako eta eremu urriko hizkuntzak erabil daite-
zen ahaleginak egitea.
 - Errepideetako trafiko-seinaleetan, zirkulazio-adierazleetan eta kaleen
izenetan, erregioen hizkuntzak erabil daitezen ezartzea.
10. Estatu kideei gomendioa luzatzen die, horiek, batik bat, jarraiko neu-
rriak har ditzaten, erregioetako eta eremu urriko hizkuntzak estatu kide bate-
an baino gehiagotan hitz egiten direnean, eta, bereziki, hori muga-erregioetan
gertatzen denean:
- Mugez gaindik, kultura- eta hizkuntza-arloko elkarlana ziurtatuko
duten mekanismo bereziak sortzea.
 - Tokiko botereen artean, mugez gaindiko elkarlana sustatzea, Lurralde-
Taldea edo Agintarien Mugaz Gaindiko Elkarlanari buruzko Europako
Hitzarmen-Markoarekin bat etorritik.
11. Estatu kideei gonbita luzatzen die, Eremu Urriko Hizkuntzen Euro-
pako Bulegoa eta bulego horren nazio-batzorde guztiak susta eta irauaraz
ditzaten.
12. Batzordearen ardurapean jartzen du:
- Horrek, bere eskumen-esparruaren barruan, 5. paragrafitik 10. erakoe-
tan ezarritako neurriak har daitezen laguntzea.
 - Horrek Europako Erkidegoko erregio- eta etnia-gutxiengoaren hizkun-
tzak eta kulturak aintzakotzat hartzea, Europako Erkidegoko politika

desberdinak prestatzeko orduan, eta, batez ere, kultura- eta hezkuntza-politikaren esparruan Europako Erkidegoaren ekintzak prestatzeko orduan.

- Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoari aitortzea kontsulta-organo ofizialaren maila.
- Ikerketarako bisita-sistema ezartzea, gutxiengoek hobeto ezagut dezaten elkar.
- Gutxiengoen kulturentzat beharrezkoa den antena-denbora erreserbatzea, Europako Erkidegoaren telebistari dagokion eremuan.
- Europako Erkidegoaren informazio-gastuetan, eremu urriko hizkuntzen arazoentzat atalen bat erreserbatzea.

13. Kontseiluari eta Batzordeari gonbita luzatzen die, horiek Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoa irauaraz eta susta dezaten:

- Aurrekontuetatik behar besteko kredituak horri emanaz, eta horrentzat bereziki aurrekontu-lerroa berrezarrit.
- Aurrekontuen esparruan, proposamenak aurkeztuz, aurretiaz aipatu neurriak gauza daitezten.
- FEDER eta FSE izeneko funtsetatik baliabideak hartu, eta baliabide horiek programa eta proiektu zehatzetarako bideratuz, erregio eta herri desberdinen kulturak sustatzeko helburuarekin.
- Urtero-urtero, Parlamentuari txostena bidaliz, Europako Erkidegoko erregio eta gutxiengo desberdinen hizkuntzek zein egoera duten azalduz, eta estatu kideek eta Erkidegoak berak goian aipatu puntuak gartzeko zein neurri hartu duten adieraziz.

14. 1988. urterako aurrekontuaren esparruan, kreditu egokiak aurreikus-tea proposatzen da; kreditu horiekin (gutxienez, milioi bat ecu-koak), hedadura txikiko hizkuntzen aldeko ekintzaren bat burutuko da.

15. Argi eta garbi azpimarratzen da ebazpen honetako xedapenak ez direla interpretatu edo aplikatu behar, estatu kideen lurralde-osotasuna edota ordena publikoa arriskuan jartzeko tenorean.

16. Batzorde eskudunaren ardurapean jartzen da horrek irizpen bananduak idaztea, herri ibiltarien hizkuntza eta kulturei buruz; herritarrek zein estatu kideetakoak izan eta beste estatu kide bateko egoiliar direnean, herritar horiek dituzten hizkuntza eta kulturei buruz; eta, berebat, itsasoz bestaldeko emigrante eta gutxiengoen hizkuntza eta kulturei buruz. Talde horiek guztiek eta eremu urriko hizkuntzen erabiltzaileek antzeko trabak izan ohi dituzte; baina, euren arazoak bereziak direnez gero, arazo horientzat tratu berezia ezarri behar da.

17. “Eremu urriko hizkuntzak eta kulturak” izeneko barne-taldeari barne-talde ofizialaren maila aitortzen dio bete-betean.

18. Bere lehendakariari agintzen dio, ebazpen hau helaraz diezaien Europako Kontseiluari eta Batzordeari, estatu kideetako nazio nahiz erregioetako agintariei, Europako Kontseiluko Kontsulta Biltzarrari, eta Europako Toki Botereen eta Erregioen Biltzar Iraunkorrari ere.

5.2.3. Pasquale Ebazpena

Europako Parlamentuak 1988. urteko azaroaren 18an emandako Ebazpena, Europako Erkidegoaren Erregio-Politikari eta Erregioen Zereginari buruzkoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK,

- Ikusirik Erregioen Biltzarrak 1984. urteko apirilaren 13an onetsitako Ebazpena, ebazpen horrek Europa demokratikoa eraikitzeko orduan erregioek duten zeregina aipatzen duela;
- Ikusirik Europako Kontseiluak, Batzordeak eta Parlamentuak, hirurek batera, 1984. urteko ekainaren 18an egindako adierazpena (ebazpen horren arabera, beharrezkoa da erregioek bat egitea Europako Erkidegoan erabakiak hartzeko dagoen prozesuarekin);
- Ikusirik Erregioen lehenengo Biltzarrean, 1994. urtean, Europako Parlamentuak onetsi zuen azken adierazpena;
- Ikusirik Europako Ekonomi Erkidegoaren Tratatuak 130 A artikulua;
- Ikusirik Europar Batasunari buruzko Tratatuaren proiektua, 1984. urteko otsailekoa (horren hitzaurrean aipatzen da Europa eraikitzeko orduan beharrezkoa dela tokiko eta erregioetako botereek parte hartzea, formula egokien bitartez);
- Ikusirik 1988. urteko ekainaren 20ko bateratze-prozeduraren emaitza, tartean Kontseilua eta Batzordea daudela (prozedura horretan, egitura-helburudun funtsen eginkizunak eta eragingarritasuna aipatzen dira, bai eta haiek euren parte-hartzeetan izan behar duten koordinazioa ere; orobat, Europako Inbertsio Bankuarenak, eta egun dauden gainerako finantza-baliabideak);
- Ikusirik Erregioen Politika eta Lurraldearen Antolaketa Batzordeak gai nagusiari buruz emandako sei txostenak, eta entzunda Erakunde Batzordearen iritzia;

- Ikusirik Europako Batzordeak 1988. urteko ekainaren 24an Erregio-eta Toki-Erakundeen Kontsulta Kontseilua sortu duela;
- Ikusirik Europako Kontseiluko Toki eta Erregioen Biltzar Iraunkorrek eta Europako erregioetako elkarteek (Europako Erregioen Biltzarrak, Europako Erregioetako Udalerrien Kontseiluak eta sektore horretako zenbait elkarteek) erregionalizazioaren alde egindako lana;

[...]

IV. Europako Erkidegoaren erregionalizazioa: Ekonomia garatu eta bate-ratzeko, Europako integrazioa demokratizatzeke eta kultura-berezitasunak gogoan hartzeke eragilea

[...]

22. Europako kultura-nortasunarentzat, ezinbestekoa da egun diren erre-gio-berezitasunek euren tokia izatea estatu nazional bakoitzean, egungo bereizgarriak gogoan izanik eta erregioen interesak, gurariak, eta historia-, hizkuntza- nahiz kultura-ondarea errespetatuz. Ezinbestekoa da, halaber, mugaz gaindiko nahiz erregioen arteko hizkuntza- eta kultura-elkarlana erraztea, historia-, hizkuntza- eta kultura-ondare erkideak direnean, egungo administrazio-zatiketen gainetik.

V. Azken oharrak

[...]

31. Haren aburuz, kasuan kasuko biztanleen borondatea izan behar da erregionalizazioaren abiaburua, eta erregionalizazio hori nazioaren esparru juridikoaren barruan gauzatu behar da, betiere estatuaren adostasunarekin.

Baldintza horiek guztiak gertatzen direnean, erregionalizazioaren uztarri izan behar dira gutxieneko printzipio hauek:

[...]

c) Erregioei behar den besteko eskumenak eratzikitzea, behintzat, euren erakundeak antola ditzaten, erregioaren garapen ekonomikoa susta eta antola dezaten, eta euren kultura- eta hizkuntza-ondarea defenda dezaten.

5.2.4. Kililea Ebazpena

Europako Parlamentuak 1994. urteko otsailaren 9an emandako Ebazpena, Europako Erkidegoko Eremu Urriko Hizkuntza eta Kulturei buruzkoa

EUROPAKO PARLAMENTUAK,

- Ikusirik 1981. urteko urriaren 16an emandako Ebazpena, ebazpen horrek Erregioen Hizkuntza eta Kulturei buruzko Europako Gutuna eta Eremu Urriko Etnien Eskubideei buruzko Gutuna aipatzen dituela;
- Ikusirik 1983. urteko otsailaren 11n emandako Ebazpena, ebazpen hori eremu urriko hizkuntza eta kulturen aldeko neurriei buruzkoa dela;
- Ikusirik 1987. urteko urriaren 10ean emandako Ebazpena, ebazpen hori Europako Erkidegoko erregioen eta eremu urriko etnien hizkuntza eta kulturei buruzkoa dela;
- Ikusirik 1993. urteko urtarrilaren 21ean emandako Ebazpena (ebazpen horren arabera, Europako Batzordeak Europako Kontseiluari, Parlamentuari, eta Ekonomia eta Gizarte Batzordeari komunikazioa luzatu zien, “Europako Erkidegoko kultura-ekintzarako ikuspegi berriak” izenburuarekin);
- Ikusirik jaun-andre hauek aurkeztutako ebazpen-proposamenak:
 - Hume jaunak eta beste batzuek, eremu urriko hizkuntzei buruz (B3-0016/90);
 - Gangoiti Llaguno jaunak, erregioetako nahiz eremu urriko hizkuntzen sustapenari eta erabilerari buruz (B3-2113/90);
 - Bandrés Molet jaunak, irratiek euskarazko saioak egiteko behar dituzten baimenei buruz (B3-0523/91);
 - Van Hemeldonck andreak, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatzeari buruz (B3-1351/92);
- Ikusirik Erregioetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (Europako Kontseiluak Europako hitzarmenen lege-forma eman dio gutun horri, eta sinadurarako aurkeztu da 1992. urteko azaroaren 5ean);

- Ikusirik CSCE izenekoaren giza hedadurari buruz Kopenhagen (1990. urteko ekainaren 5etik 29a arte) izandako biltzarraren azken agiria, eta, bereziki, agiri horren IV. kapitulua;
- Ikusirik Europa berri baterako Parisko Gutuna (CSCE izenekoa), 1991. urteko azaroaren 21ean onetsitakoa;
- Ikusirik Erregelamenduaren 148. artikulua;
- Ikusirik Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Komunikabideen Batzordeak emandako txostena, eta entzunda Herritarren Arazo Juridiko eta Eskubideen Batzordeak emandako iritzia (A3-0042/94);

A. Europako Erkidegoaren Tratatu 128. artikuluan jasotako engaiamenduak bultzaturik (horren arabera, Europako Erkidegoak laguntasuna eman behar du estatu kideetako kulturak gara daitezen, aldi berean estatu kide horien erregio- eta nazio-aniztasuna errespetatuz);

B. Europako hizkuntza-kulturaren beharra dagoela aldarrikatuz, eta, horren eremuaren barruan, hizkuntza-ondarearen defentsa, hizkuntza-mugen gainditzea, hedadura txikiko hizkuntzen sustatzea eta eremu urriko hizkuntzen babesa barneratzen direla aitorturik;

C. Europa erdialde eta ekialdeko demokratizazio-prozesua eragile izanik, eta, bereziki, demokrazia eskuratu berri duten herriek, euren hizkuntza eta kultura propioak aldarrikatzeko orduan, joera sendoa izan eta joera hori pizgarri izanik;

D. Kontuan harturik herri orok eskubidea duela, bere hizkuntza eta kultura errespetatuak izan daitezen, eta, ondorenez, herri orok aukera izan behar duela, hizkuntza eta kultura horiek babestu eta sustatzeko zein lege-baliabide behar eta baliabide horiek izateko;

E. Kontuan harturik Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasuna haren kultura-aberastasunaren oinarritzko osagaia dela;

F. Kontuan harturik Europar Batasunean hizkuntza-aniztasunaren gaineko babesa eta sustatzea, izatez, gakoak direla Europa baketsu eta demokratikoa eraikitzeke tenorean;

G. Kontuan harturik Europako Erkidegoaren erantzukizuna dela estatu kideei, euren ahaleginetan, laguntasuna ematea, haien kulturak garatzeko eremuan, eta nazio nahiz erregioen aniztasuna babesteko orduan, erregioen eta gutxiengoen berezko hizkuntzen aniztasuna tartean dela;

H. Kontuan harturik Europako Erkidegoak sustatu beharko lukeela estatu kideen ekintza, batez ere, hizkuntza eta kultura horien gaineko babesa askiez edo ezereza denetan;

I. Kontuan harturik Europako Erkidegoaren betebeharra dela, orobat, estatu elkartuetako nahiz hirugarren estatuetakoa gobernuekin harremanak dituenen, gutxiengoen eskubideak azpimarratzea; hala denean, aurrekoaz

gain, betebeharra du gobernuari laguntasuna emateko, gobernu horiek eskubideok baliaraz daitezzen; kondenatu behar ditu, halaber, eskubide horiek hala nahita ukatzen dituzten guztietan;

J. Kontuan harturik Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunak haren kultura-aniztasuna islatzen duela, eta, maiz-sarri, aniztasun horri ez zaiola behar den besteko aitortpena egiten;

K. Azpimarraturik hizkuntza oinarritzko osagaia dela, osatze bidean dagoen Europar Batasunaren eremuan elkarrekin komunikatzeko, eta Europa egiteak bateratu behar dituela, bateko, hedadura handiko hizkuntzak komunikazioan erabiltzea, egungo barne mugetan zehar, eta, besteko, hedadura txikiko hizkuntzak babestu eta defendatzea, erregioetako nahiz erregioez gaindiko eremuetan;

L. Kontuan harturik eremu urriko hizkuntza eta kulturak ere Europako kultura eta ondarearen osagaiak direla, eta, ikuspuntu horretatik, Europako Erkidegoak babes juridikoa eman behar diela, finantza-baliabide egokiak bermatzearekin batera;

M. Kontuan harturik eremu urriko hizkuntza horietatik asko arriskuan daudela eta euren hiztun-kopurua azkar gutxitu dela, hori mehatxu izanik, biztanle-talde zehatz batzuen ongizateari begira; eta, gainera, Europaren sortze-gaitasun osoa, neurri handi batean, txikitu egiten dela gertaera horren ondorioz;

N. Kontuan harturik estatu kideetako gobernuen eginbeharra dela euren hizkuntza ofiziala babestu eta sustatzea, eta eginbehar horri zor zaion osoko begiruneak ezin diela inola ere kalterik egin eremu urriko hizkuntzei, ezta hizkuntza horiek dituzten biztanleei ere, biztanleontzat halako hizkuntzak baitira berezko kultura-eramaileak;

O. Oharturik, edonondik begiratuta, “eremu urriko hizkuntzak eta kulturak” adierazmoldeak ezaugarri eta neurri desberdinetako gertaerak har ditza-keela bere barnean, estatu kideen egoerak ere desberdinak direlako, batez ere horren barruan sartzen badira zenbait estatu kideetan dagoeneko ofizial diren hizkuntza batzuk, hain zuzen ere, behar den moduko hedapena edo parepareko estatutua ez dutenak aldameneko estatu kidean edo beste estatu kide batean.

1. Eskaria egiten du 1981. urteko urriaren 16ko, 1983. urteko otsailaren 11ko eta 1987. urteko urriaren 30eko ebazpenetan jasotako printzipioak eta proposamenak, lehen aipatu direnak, bete-betean aplikatu daitezzen.

2. Berritoki ere nabarmentzen du beharrezkoa dela estatu kideek euren hizkuntza-gutxiengoak aitortzea, eta lege- nahiz administrazio-neurriak hartzea, hizkuntza horiek iraunarazi eta garatzeko oinarritzko baldintzak sor daitezzen.

3. Uste du, berebat, eremu urriko hizkuntza eta kultura guztiek babestuta egon beharko luketela estatu kideetan, horretarako lege-estatutu egokia onetsiz.

4. Bere aburuz, lege-estatutu horrek, gutxienez, jarraikoak barneratu beharko lituzke: hizkuntza eta kultura horien erabilera eta sustatzea, hezkuntzaren, kulturaren, justiziaren, Herri Administrazioaren, komunikabideen eta toponimiaren esparruetan, bai eta bizitza publikoaren eta kultura-bizitzaren gainerako sektoreetan ere. Horri kalterik egin gabe, hedadura handiko hizkuntzak erabili ahal izango dira, estatu kide bakoitzaren barruan, eta Europar Batasunean oro har, komunikazioaren errazteak hori behar duenean.

5. Azpimarratzen du, estatu bateko biztanle batzuen hizkuntza edo kultura ez denean estatu horretan nagusia dena, edota ez denean estatuko zati edo erregio horretan nagusia dena, horrek ez du bereizkeriarik eragin behar, eta, batez ere, ez du gizarte-bazterketarik ekarri behar, halakoek oztopatzen dutenean biztanleok enplegua lortzea edo enpleguan irautea.

6. Erregioetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren alde egiten du, horren lege-forma Europako hitzarmenarena dela, eta, tresna eragingarri eta malgu horren bitartez, eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzen direla.

7. Estatu kideetako gobernuei eskatzen die hitzarmen hau presaz sina eta haien parlamentuetan berrets dezaten, oraindik hori egin ez badute. Estatu kideok, une oro, aukeratu beharko dute hitzarmenaren xedapenetatik zeintzuk diren euren hizkuntza-erkidegoek dituzten beharrian eta gurariei gehien egokitzen zaizkienak.

8. Estatu kideetako gobernuei, eta tokiko nahiz erregioetako agintariei eskatzen die, elkarte espezializatuak susper eta bultza ditzaten, bereziki, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoko estatu kideen batzordeak. Hartara, herritarrek eta euren antolakuntzek euren hizkuntzak garatzeko orduan duten erantzukizuna baliatu ahal izango da.

9. Estatu kideei, bai eta erregioei eta tokiko talde eskudunei ere, eragiten die, horiek azter dezaten ea aukerarik duten zenbait hitzarmen sinatu, eta, hitzarmen horien bitartez, mugaz gaindiko hizkuntza-erakundeak sortzeko, eremu urriko hizkuntza eta kulturetatik edozeinentzat, halako hizkuntza edo kulturak bi estatu mugakidetan edo gehiagotan erabiltzen direnean, edota estatu kide baten baino gehiagotan aldi berean.

10. Europako Batzordeari honako hau eskatzen dio:

a) Batzordeak, bere eskumen-eremuan, estatu kideei laguntasuna ematea, horiek arlo honetan bideratutako ekimenak aplikatu ditzaten.

b) Batzordeak, eremu desberdinetan Europako Erkidegoaren politika prestatzeko orduan, kontuan hartzea eremu urriko hizkuntzak eta horien kul-

turak; eta, horrekin batera, hezkuntza- eta kultura-programa guztietan (besteak beste, Europarentzako Gazteria, ERASMUS, TEMPUS, Europako Dimentsioa, Europako Plataforma, MEDIA, literatura garaikidea itzultzeko proiektuetan...), beharrezkoa xedapenak onestea eremu urriko hizkuntzen erabiltzaileek izan ditzaketen premiei erantzuteko, eremu zabaleko erabiltzaileek bezainbeste.

c) Eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzea, Europako Erkidegoaren ikus-entzunezko politikan, adibidez, definizio handiko telebistari dagokionez. Orobat, laguntasuna ematea eremu urriko hizkuntzetan egindako ekoizpen eta emanaldiei, 16:9 formatuan programa berriak ekoitz daitezten.

d) Telekomunikazioen teknologia digital modernoaren erabilera bermatzea, horri esker satelite nahiz kable bidezko irrati-hedapeneko transmisioak gehi baitaitezke, eta, bide batez, eremu urriko hizkuntza gehiago zabal.

e) Ahalik arinen, eta LINGUA egitasmoa abiapuntu moduan harturik, programa zehatza abian jartzea, eremu urriko hizkuntzentzat; horretarako, dagoeneko garatuta dauden sareak (esaterako, MERCATOR hezkuntza-sarea) erabil daitezke, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoak burutzen dituen jardueren esparruan.

f) Europako Erkidegoan eremu urriko hizkuntzei buruzko mapa zientifikoa, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoak prestatu duena, zuzendu eta osatu ondoren, horren berehalako argitalpena erraztea.

g) Europako Erkidegoen tratatuak, eta Europako Erkidegoaren oinarrizko xedapenak nahiz informazioak, bai eta horien guztien jarduerak ere, Europar Batasunean eremu urriko hizkuntzetan argitara daitezten bultzatzea.

11. Europako Kontseiluari eta Europako Batzordeari honako hau eskatzen die:

a) Europako antolakuntza jakin batzuek (bereziki, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoak) eremu urriko hizkuntzak ordezkatzeko dituztenez gero, antolakuntza horiek laguntzeari eta sustatzeari ekitea, eta beharrezkoak diren baliabideak haiei helaraztea.

b) Europako programa jakin batzuk eremu urriko hizkuntzen aldekoak eta horien kulturen aldekoak direnez gero, programa horientzat egoki diren aurrekontu-zuzkidurak bermatzea, eta, gai horretan, urte anitzeko ekintza-programa proposatzea.

c) Erregioen hizkuntza- eta kultura-oinordetza behar bezala aitortzea, euren erregio-politika garatzeko orduan eta FEDER izenekoaren baliabideak esleitzeko orduan; halaber, erregioen garapenerako proiektu integratuei laguntza ematea, baldin eta proiektu horietan zenbait neurri jasotzen badira, erregioetako hizkuntzak eta kulturak sustatzeko; orobat, euren gizarte-politika aplikatzeko orduan eta FSE deiturikoaren baliabideak esleitzeko orduan.

d) Europa zentral nahiz ekialdeko herrietan, eremu urriko hizkuntzen erabiltzaileen beharrezkoak behar den moduan aintzakotzat hartzea, ekonomia eta gizartea berrosatzeko helburuarekin Europako programak garatzen direnean, eta, zehatz-mehatz, PHARE programaren eremuan.

e) Eremu urriko hizkuntzen artean, edo Europako Erkidegoko hizkuntzak xede-hizkuntza direla, liburuak eta literaturako lanak itzul daitezela, eta pelikulei azpigituluak jar dakizkien, sustatzea.

f) Eremu urriko hizkuntzak sustatzeko orduan bermatzea Europako Erkidegoak ez diela kalterik egiten garrantzi handiagoko hizkuntza nazionaleri; aitzitik, bermatu behar da sustatze horrek ez diola inola ere kalterik egiten eremu zabaleko hizkuntza horien irakaskuntzari.

12. Itsasoz bestaldeko hizkuntzak estatu kideetako lurralde jakin batzuetan hitz egiten direnean, hizkuntza horiek eta kontinenteko hizkuntzek esku-bide eta xedapen berberak izatea eskatzen du.

13. Lurralde-hizkuntza ez diren berezko hizkuntzen kasuan (berbarako, ijitoen hizkuntza, sinto hizkuntza eta yiddish izenekoak), erakunde eskudun guztiei eskatzen die *mutatis mutandis* aplikatzea ebazpen honetan ezarritako gomendioak.

14. Azpimarratzen du ebazpen honetan jasotako gomendioek ez dutela inola ere mehatxupean jartzen estatu kideen lurralde-osotasuna, ezta ordena publikoa ere. Gainera, gomendio horiek ez dira interpretatu behar, edozein jarduera edo ekintza burutzeko eskubide gisa, baldin eta jarduera edo ekintza horrek urratzen baditu Nazio Batuen Gutunak dituen helburuak edota nazioarteko legerian ezarritako betebeharretatik beste edozein.

15. Bere lehendakariari agintzen dio ebazpen hau helaraz diezaien Europako Batzordeari, Kontseiluari, estatu kideetako gobernu zentraleri nahiz erregioetako gobernuari, Europako Kontseiluko Parlamentu Biltzarrari, Europako Toki eta Erregioetako Botereen Biltzar Iraunkorrari, Europako Segurtasun eta Lankidetzaren Biltzarrari, Nazio Batuei eta UNESCOri.

5.2.5. Maastrichteko Tratatu, 1992. urteko otsailaren 7koa: 128. artikulua

128. artikulua

1.) Erkidegoak laguntasuna emango du, estatu kideetako kulturak loratu daitezzen, betiere haien nazio- eta erregio-aniztasuna errespetatuz, eta, aldi berean, erkide duten kultura-ondarea azpimarratuz.

2.) Erkidegoaren ekintzak erraztu egingo du estatu kideen arteko elkarlana; eta, beharrezkoa bada, laguntasuna eman eta osatu egingo du haien ekintza honako eremu hauetan:

- Europako herrien ezagutza hobetzean, eta haien kultura eta historia zabaltzean;
- Europan garrantzia duen kultura-ondarea iraunarazi eta babestean;
- merkataritzakoak ez diren kultura-trukeetan;
- artea eta literatura sortzean, ikus-entzunezko sektorea barne harturik.

3.) Erkidegoak eta estatu kideek sustatu egingo dute beste herri batzuekin eta kulturaren eremuan eskudun diren nazioarteko erakundeekin elkarlanean aritzea; bereziki, Europako Kontseiluarekin.

4.) Erkidegoak, itun honetako xedapenen ondorioz diharduenean, kon-tuan hartuko ditu kultura-alderdiak.

5.) Artikulu honen helburuak lortzen laguntzeko, Europako Kontseiluak hartuko ditu:

- aho batez, 189 B artikuluan ezarritako prozedura dela medio, eta aurretiaz Eskualdeetako Komiteari kontsulta eginez, sustapen-neurriak, estatu kideen lege- eta erregelamendu-xedapenak harmonizatzeari kalterik egin gabe. Kontseiluak aho batezko iritziak ematen ditu, 189 B artikuluan ezarritako prozedura osoan zehar.
- eta, aho batez, Batzordeak hala proposatuta, gomendioak emango ditu.

5.2.6. Nizako Ituna (2001). Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna: 21 eta 22. artikulua

21. artikulua. Bereizkeriarik ez

1. Bereizkeria oro debekatuta dago, batez ere, bereizkeriaren eragilea den an sexua, arraza, kolorea, etnia- edo gizarte-jatorriak, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa, pentsamoldeak, iritzi politikoak nahiz beste edozein motatako iritziak, nazio-gutxiengo bateko izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina edota sexu-joera.

2. Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekatuta dago Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta Europar Batasuneko Tratatu aplikatzen diren eremuan, aipatu tratatu horiek kasuan kasuko xedapenetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

22. artikulua. Kultura-, erlijio eta hizkuntza-aniztasuna

Batasunak errespetatu egiten du kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna.

5.2.7. Europarentzat Konstituzio bat eratzten duen Trataturia (2004): I-3, II-82, III-280 eta I-448 artikulua

I-3. artikulua. Batasunaren xedeak

1. Batasunak bakea, bere balioak eta bere herrien ongizatea sustatzea du helburu.

2. Batasunak barne-mugarik gabeko askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua eskainiko die herritarrei, eta lehia askea eta faltsutu gabea izango duen barne-merkatua.

3. Batasunak Europaren garapen iraunkorraren alde egingo du lan, horretarako oinarritzat hartuta ekonomia-hazkunde orekatua eta prezioen egonkortasuna, enplegu bete eta gizartearen aurrerabidea jomuga dituen lehiakortasun handiko merkatuko ekonomia soziala eta ingurumenaren babes-maila eta kalitatearen hobekuntza-maila handia. Era berean, aurrerabide zientifikoa eta teknikoa ere sustatuko ditu.

Batasunak gizarteko bazterkeriaren eta bereizkeriaren aurka egingo du eta gizarte-justizia eta -babesa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna eta haurren eskubideen babesa sustatuko ditu.

Batasunak estatu kideen arteko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa eta elkartasuna bultzatuko ditu.

Batasunak bere kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren aberastasuna errespetatuko du eta Europaren kultura-ondarea zaintzeko eta garatzeko ardura izango du.

4. Munduko gainerakoekin dituen harremanetan Batasunak bere balioak eta interesak indartu eta sustatuko ditu. Bakea, segurtasuna, Lurraren garapen iraunkorra, herrien arteko elkartasuna eta errespetua, merkataritza aske eta zuzena, pobretasuna ezabatzea eta giza eskubideak -batez ere haurren eskubideak- babestea, nazioarteko zuzenbidea zorrotz bete eta garatzea, eta, bereziki, Nazio Batuen Gutunaren printzipioen errespetua bultzatuko ditu.

5. Batasunak bitarteko egokiak erabiliko ditu bere helburuak lortzeko, Konstituzioan ematen zaizkion eskumenen arabera.

II-82. artikulua. Kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna

Batasunak kultura-aniztasuna, erlijio-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu.

III-280. artikulua

1. Estatu kideetako kulturak suspertzen lagunduko du Batasunak, barruko nazio eta eskualdeetako aniztasuna errespetatuz, eta, aldi berean, kultura-ondare erkidea nabarmenduz.

2. Batasunaren ekintzaren helburua izango da estatu kideen arteko lankidetzaren sustatzea eta, beharrezkoa bada, honako esparru hauetan estatu horien lana babestea eta osatzea:

a) Europako herrien kultura eta historia hobeto ezagutzea eta haien berri zabaltzea;

b) Europarako garrantzizkoa den kultura-ondarea zaindu eta babestea;

c) merkataritza-izaera ez duten kultura-trukaketak;

d) arte eta literaturako sorkuntza, ikus-entzunezkoen arloa barnean hartuta.

3. Batasunak eta estatu kideek lankidetzaren bultzatuko dute, batetik, hirugarren herrialdeekin, bestetik, kultura-gaietan eskumenak dituzten nazioarteko erakundeekin, eta batez ere Europako Kontseiluarekin.

4. Konstituzio honetako beste xedapenen indarrez jardun behar duenean, Batasunak kultura-ikuspegiak ere hartuko ditu kontuan, bereziki bertako kulturen aniztasuna errespetatu eta sustatzeko.

5. Errazagoa izan dadin artikulua honetan aipaturik datozen helburuak lortzea:

a) Europar legeak edo esparru-legeak hainbat sustapen-neurri zehaztuko du, estatu kideen lege eta erregelamendu-xedapenak harmonizatzeko ahalegin oro alde batera utzita. Eskualdeetako Komiteari aurretiaz kontsulta eginda onetsiko da europar lege edo esparru-lege hori;

b) Batzordeak proposaturik, Kontseiluak gomendioak emango ditu.

IV-448. artikulua. Testu kautoak eta itzulpenak

1. Tratatu hau ale bakar batean idatzi da hurrengo hizkuntzetan: alemanez, txekieraz, danieraz, eslovakieraz, eslovenieraz, espainieraz, estonieraz, fin-

landieraz, frantsesez, grezieraz, hungarieraz, ingelesez, irlandera, italieraz, letonieraz, lituanieraz, malteraz, nederlandera, polonieraz, portugesez eta suedieraz. Testu horiek guztiak kautoak dira, eta Italiako Errepublikako Gobernuaren artxiboan jasoko dira. Gobernu horrek kopia kautotu bana igorriko die gainerako gobernu sinatzaileei.

2. Tratatu hau estatu kideek zehaztuko dituzten beste hizkuntzetara itzuli ahal izango da, baldin eta estatu horietako konstituzio-ordenamenduaren arabera maila ofiziala badute lurralde osoan edo zati batean. Kasuan kasuko estatu kideak itzulpen horien kopia ziurtatua bidaliko du, Kontseiluaren artxiboetan gordetzeko.

5.3. EUROPAKO KONTSEILUA

5.3.1. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (1992)

HITZAURREA

Europako Kontseiluko kide diren eta Gutun hau izenpetzen duten estatuek,

Kontuan harturik Europako Kontseiluaren helburua kide guztien arteko batasun sendoagoa lortzea dela, batez ere kideen ondare komuna osatzen duten idealak eta printzipioak babestu eta sustatzearren;

Kontuan harturik Europako eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza historikoen —horietako batzuk denborarekin galtzeko arriskuan daude— babesak Europako ohitura eta kultur aberastasuna mantendu eta garatzen laguntzen duela;

Kontuan harturik eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat bizitza pribatuan edo publikoan erabiltzea eskubide preskribaezina dela, Nazio Batuen eskubide zibil eta politikoei buruzko Nazioarteko Itunean jasotako printzipioekin bat, eta Gizakiaren Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen babesarako Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren espirituarekin bat;

Aintzat harturik Europako Segurtasuneko eta Lankidetzako Biltzarrean egindako lana, eta, bereziki, Helsinkiko Azken Akta eta Kopenhageko 1990eko bilerako agiria;

Kultura artekotasunak eta eleaniztasunak duten balioa azpimarratuz, eta kontuan harturik eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzea ez litzatekeela hizkuntza ofizialen eta horiek ikasteko beharrianaren kalterako egin beharko;

Jakitun izanda Europako eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak Europako eskualdeetan eta herrialdeetan babestu eta sustatzeak ekarpen garrantzitsua egiten diola demokraziaren eta kultur aniztasunaren printzi-

pioetan oinarrituta eraikitako Europa eraikitzeari, nazioen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren;

Aintzat harturik Europako eskualde bakoitzak dituen berariazko baldintzak eta berezko ohitura historikoak, ondokoa erabaki dute:

1. ZATIA – XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua - Definizioak

Gutun honen ondorioetarako:

a) “Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza” aipatzerakoan, hauek adierazi nahi dira:

i) Estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, Estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; eta

ii) hizkuntzok ez dira Estatu horretako hizkuntza ofizialak izango; eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak;

b) “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen den lurraldea” da Gutun honetan aurreikusitako babes-eta sustapen-neurriak hartzea justifikatzeko besteko hiztun-kopurua duen hizkuntzaren geografia-eremua;

c) “lurralderik gabeko hizkuntzak” dira Estatuko gainontzeko biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzak, baina Estatuko lurraldean tradizioz hitz egiten dituen arren, bertako geografia-eremu jakin bati lotu ezin dakizkionak.

2. artikulua - Konpromisoak

1. Alde guztiek hartu dute II. zatiko xedapenak bakoitzaren lurraldean hitz egiten diren eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza guztiei aplikatzeko konpromisoa, baldin eta hizkuntzok 1. artikuluko definizioak betetzen badituzte.

2. Berretsi, onartu edo onesteko unean adierazitako hizkuntza guztiei dago-kienez, 3. artikuluaekin bat, Alde bakoitzak Gutun honetako III. zatiko xedapenen artetik gutxienez hogeita hamabost paragrafo edo idatz-zati hautatu aplikatzeko konpromisoa hartu du; horietako hiru gutxienez 8 eta 12 artikuluetan hautatu behar dira, eta 9, 10, 11 eta 13 artikuluetan, berriz, bana.

3. artikulua - Modalitateak

1. Gutuna sinatu duten Estatuak berretsi, onartu edo onesteko agirian zehaztu behar dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bakoitza, edo

bakoitzaren lurralde osoan edo horren zati batean eremu urriagoa duen hizkuntza ofizial bakoitza, eta horri 2. artikuluko 2. paragrafoarekin bat hautatutako paragrafoak ezarriko zaizkio.

2. Aldeek, geroagoko edozein unetan, berretsi, onartu edo onesteko agirian zehaztu zituzten paragrafoez aparte Gutuneko beste edozein paragrafo-tako xedapenen ondoriozko betebeharrak onartzen dituztela jakinaraz diezaiokete Idazkaritza Nagusiari, edo artikuluko honetako 1. paragrafoa aplikatuko dietela beste eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batzuei, edo lurralde osoan edo zati batean eremu urriagoa duten beste hizkuntza ofizial batzuei.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako konpromisoak berrespen, onespen edo onarpenaren partetzat joko dira, eta ondorio berberak izango dituzte jakinarazten diren egunetik bertatik.

4. artikulua. - Dagoeneko badiren babes-estatusak

1. Ezin da interpretatu Gutun honetako ezein xedapenek Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak bermatutako eskubideak mugatu edo indargabetzen dituenik.

2. Gutun honetako xedapenak ez dituzte murrizten eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen egoera arautzen duten xedapen faboragarriagoak, ez eta gutxiengoetako kide diren pertsonen estatutu juridikoa ere; horiek Aldeetako batean dagoeneko existitzen dira edo alde biko edo o alde anitzeko berriazko akordioetan jasota daude.

5. artikulua. - Dauden betebeharrak

Gutun honetako ezer ezin izango da interpretatu eskubidea ematen duenik Nazio Batuen Eskutitzaren helburuak edo nazioarteko zuzenbidearen beste betebeharrak batzuk, estatuen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren printzipioa barne, urratzen dituen jardueraren bat hasi edo ekintzaren bati ekiteko.

6. artikulua. - Informazioa

Aldeek konpromisoa hartu dute dagozkien agintari, erakunde eta pertsonen Gutun honek ezartzen dituen eskubideen eta betebeharren informazioa jaso dezaten.

II. ZATIA – 2. ARTIKULUKO 1. PARAGRAFOAREKIN BAT LORTU NAHI DIREN HELBURUAK ETA PRINTZPIOAK

7. artikulua. - Helburuak eta printzipioak

1. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzei dagokienez, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeetan eta hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, ondoko helburuak eta printzipioak izango dira aldean politika, legedia eta jardunaren oinarria:

a) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak aitortzea, kultur aberastasuaren erakusle dira eta;

b) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bakoitzak hartzen duen geografia-eremua errespetatzea; hala, beraz, administrazio-banaketak, lehenetik hor zeudenak nahiz berriak, ez dira oztopo izango eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza hori sustatzeko;

c) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak sustatzeko ekintza seguru baten beharra, hizkuntzok babestearren;

d) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak bizitza publikoan eta pribatuan ahoz eta idatziz erabiltzea erraztu eta/edo sustatzea;

e) Gutun honek hartzen dituen esparruetan, harremanak sortu eta garatzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza erabiltzen duten taldeen eta Estatu berean hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten beste talde batzuen artean, bai eta kultur harremanak sortzea beste hizkuntza batzuek erabiltzen dituzten Estatuko beste talde batzuekin ere;

f) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak irakasteko eta ikasteko modu eta bitarteko egokiak jartzea erako estatu guztien esku;

g) bitartekoak jartzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza hitz egiten den eremu batean bizi baina hizkuntza hori hitz egiten ez dutenen esku, nahi izanez gero hizkuntza hori ikas dezaten;

h) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzei buruzko azterketak eta ikerketak sustatzea unibertsitateetan edo erakunde baliokideetan;

i) Gutun honek biltzen dituen arloetan, nazioz gaindiko elkartruckerako era egokiak sustatzea, estatu bitan edo gehiagotan modu berean edo antzekoan erabiltzen diren eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzentzat.

2. Aldeek konpromisoa hartu dute ezabatzeko, oraindik egin ez badute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat erabiltzeko egon daitezkeen bereizketa, bazterkeria, murriztapen edo lehentasun justifikatu gabe oro, alegia, hizkuntza hori ahultzea edo hori mantendu edo garatzea arriskuan jartzea helburutzat izan dezaketenak.

Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako

diskriminazio-ekintzat, neurri on helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabiltzen dituztenen eta gainontzeko herritarren arteko berdintasuna bultzatzea edo hiztun horien egoera partikularrak aintzat hartzea bada.

3. Aldeek konpromisoa hartu dute, neurri egokiak erabilia, herrialde guztiko hizkuntza-taldeen arteko elkar ulertzea sustatzeko. Horretarako, batez ere, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen errespetua eta horienganako ulermena eta tolerantzia jasoko dute herrialdean jeskaintzen den hezkuntzan eta prestakuntzaren helburuen artean, eta helburu bera lortzera animatuko dituzte masa-komunikabideak.

4. Aldeek konpromisoa hartu dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzei buruzko politikak definitzerakoan kontuan hartzeko hizkuntza horiek erabiltzen dituzten taldeek adierazitako beharrianak eta gurariak.

Aldeei eskatu zaie, beharrezkoa denean, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzekin zerikusia duten gaiet buruz agintariak aholkatzeko organoak sortzeko.

5. Aldeek konpromisoa hartu dute 1etik 4rako paragrafoetan zerrendatutako printzipioak mutatis mutandis aplikatzeko lurralderik gabeko hizkuntzei.

Alabaina, hizkuntza horien kasuan, Gutun hau burutzeko hartu beharreko neurrien izaera eta irismena modu malguan ezarriko dira, hizkuntzok erabiltzen dituzten taldeen beharrianak eta gurariak kontuan hartuta, eta horien ohiturak eta ezaugarriak errespetatuz.

III. ZATIA – ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZAK BIZITZA PUBLIKOAN ERABILTZEAREN ALDEKO NEURRIAK, 2. ARTIKULUKO 2. PARAGRAFOA BETEZ HARTUTAKO KONPROMISOEKIN HARTU BEHARREKOAK

8. artikulua. - Irakaskuntza

1. Irakaskuntzaren arloan, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeari dago-kionez, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta Estatuko hizkuntza ofizialen irakaskuntzari kalterik egin gabe, ondoko konpromisoak hartu dituzte aldeek:

- a) i) eskolaurreko hezkuntza kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo
- ii) eskolaurreko hezkuntzaren zati handi bat kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo

- iii) aurreko bi puntuetako neurrietako bat, gutxienez, aplikatzea horrela nahi duten familietako ikasleei, horien kopurua nahikotzat jotzen bada; edo
- iv) herri-agintariek ez badute eskumen zuzenik eskolaurreko hezkuntzan, lehenengo bi puntuetan jasotako neurriak aplikatzea erraztu eta/edo sustatzea;
- b) i) lehen mailako irakaskuntza kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo
- ii) lehen mailako irakaskuntzaren zati handi bat kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako batean bermatuta dagoela ezartzea; edo
- iii) lehen mailako irakaskuntzaren barruan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza curriculumaren parte izatea ezartzea; edo
- iv) aurreko hiru puntuetako neurrietako bat, gutxienez, aplikatzea horrela nahi duten familietako ikasleei, horien kopurua nahikotzat jotzen bada;
- c) i) bigarren mailako irakaskuntza kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo
- ii) bigarren mailako irakaskuntzaren zati handi bat kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako batean bermatuta dagoela ezartzea; edo
- iii) bigarren mailako irakaskuntzaren barruan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza curriculumaren parte izatea ezartzea; edo
- iv) aurreko hiru puntuetako neurrietako bat, gutxienez, aplikatzea horrela nahi duten ikasleei —edo, horrela ez bada, horien familiek nahi badute—, horien kopurua nahikotzat jotzen bada;
- d) i) irakaskuntza tekniko eta profesionala kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan bermatuta dagoela ezartzea; edo
- ii) irakaskuntza tekniko eta profesionalaren zati handi bat kasuan kasuko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako batean bermatuta dagoela ezartzea; edo
- iii) irakaskuntza tekniko eta profesionalaren barruan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza curriculumaren parte izatea ezartzea; edo
- iv) aurreko hiru puntuetako neurrietako bat, gutxienez, aplikatzea horrela nahi duten ikasleei —edo, horrela ez bada, horien familiek nahi badute—, horien kopurua nahikotzat jotzen bada;
- e) i) unibertsitate mailako irakaskuntza edo beste goi-mailako irakaskuntza-motak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ezartzea; edo

- ii) hizkuntzok unibertsitateko edo goi-mailako irakaskuntzaren ikasgai gisa ikastea ezartzea; edo
- iii) Estatuak goi-mailako irakaskuntzako erakundeekiko duen zeregina dela eta, i) eta ii) idatz-zatiak ezin izango balira aplikatu, ondokoak ezartzea suspertu eta/edo baimentzea: eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan unibertsitate mailako edo goi-mailako bestelako irakaskuntza-motak, edo hizkuntzok unibertsitatean edo goi-mailako irakaskuntzako beste erakunde batzuetan ikasi ahal izateko bitartekoak;
- f) i) beharrezkoak diren xedapenak ematea, helduen hezkuntzako edo hezkuntza iraunkorreko ikastaroak hein handi batean edo osorik eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan eskaintzea bermatu dadin; edo
- ii) hizkuntza horiek proposatzea helduen hezkuntzako edo hezkuntza iraunkorreko ikasgai gisa; edo
- iii) herri-agintariak ez badute eskumen zuzenik helduen hezkuntzan, hizkuntza horiek irakastea erraztu eta/edo sustatzea helduen hezkuntza-aren edo hezkuntza iraunkorraren barruan;
- g) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzek adierazten duten historia eta kultura irakasten dela bermatzeko xedapenak ematea;
- h) irakasleen beharrezko hasierako eta etengabeko prestakuntza bermatzea, Gutuna sinatzen duen Alde bakoitzak a)-tik g)-rako idatz-zatietatik onartutakoak aplikatzeko;
- i) kontrolerako organo bat edo gehiago sortzea, eta horren ardura izango da eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen irakaskuntza ezartzeko edo garatzeko hartu diren neurrien eta egin diren aurrerapenen jarraipena egitea, eta puntu horiei buruz aldian-aldian txostenak egitea; txostenok jendaurrean jarriko dira.

2. Irakaskuntzaren arloan, eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak tradizioz erabiltzen diren eskualdeetatik kanpo dauden lurraldeei dagokienez, aldeek konpromisoa hartu dute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza baten hiztun-kopuruak hori justifikatzen badu, eta irakaskuntzaren maila egokietan, irakaskuntza eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan egitea edo hizkuntza bera irakastea baimendu, sustatu edo ezartzeko.

9. artikulua. - Justizia

1. Jarraian zehazten diren neurriak hartzea justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten agintari judizialen barrutiei dagokienez, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta baldintza batekin, alegia, paragrafo honek eskaintzen dituen aukerez baliatzeak ez dezala epaileak hartu justizia ondo administratzeko oztopotzat.

Hauek dira konpromisoak:

a) prozesu penaletan:

i) jurisdikzio-organoeak, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; eta/edo

ii) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egiteko eskubidea bermatzea akusatuari; eta/edo

iii) errekerimenduak edo frogak, idatzizkoak zein ahozkoak, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean formulatuta egote hutsagatik onartezinak ez izatea ezartzea; eta/edo

iv) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza horietan ematea, hala eskatuz gero, prozedura judizial bati lotutako egintzak, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilia, eta interesatuei inolako gastu gehigarrikeragin gabe.

b) prozesu zibiletan:

i) jurisdikzio-organoeak, aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; eta/edo

ii) Alde bat auzitegi baten aurrean bertaratu behar denean, bere eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egitea baimentzea alde horri, hori dela-eta gastu osagarriei aurre egin behar izan gabe; eta/edo

iii) dokumentuak eta frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan aurkeztea baimentzea, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilia;

c) administrazio-arloan eskudunak diren jurisdikzioen aurreko prozesuetan:

i) jurisdikzioek, auzi-bidean parte hartzen duen aldeetako batek eskatuta, prozesua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan gara dezatela ezartzea; eta/edo

ii) alde bat epaitegi baten aurrean bertaratu behar denean, bere eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan hitz egitea baimentzea alde horri, hori dela-eta gastu osagarriei aurre egin behar izan gabe; eta/edo

iii) dokumentuak eta frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan sortzea baimentzea, beharrezkoa bada interpreteak eta itzultzaileak erabilia;

d) neurriak hartzea, b) eta c) idatz-zatietako i) eta iii) idatz-zatien aplikazioak eta interpreteen eta itzulpenen balizko erabilerak ez diezaien gastu osagarrikerakarri interesatuei.

2. Aldeek hartu dituzten konpromisoak:

a) Estatu batean ezarritako egintza juridikoen baliozkotasuna ez baztertzea, egintzok eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean erredaktatuta egote hutsagatik; edo

b) Estatu batean ezarritako egintza juridikoen, aldeen artean, duten baliozkotasuna ez baztertzea, egintzok eskualdeetako edo eremu urriko hiz-

kuntza batean erredaktatuta egote hutsagatik, eta egintzok hizkuntza hori hitz egiten ez duten hirugarren interesatuen aurka erabili ahal izango direla ezartzea, baldin eta egintzaren edukia erabiltzen duenak berak jakinarazten badie; edo

c) Estatu batean ezarritako egintza juridikoez, aldean artean, duten baliozkotasuna ez baztertzea, egintzok eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean erredaktatuta egote hutsagatik.

3. Aldeek konpromisoa hartu dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan emateko Estatuko lege-testurik garrantzitsuenak eta hizkuntza horien erabiltzaileei bereziki dagozkienak, testuok beste modu batean erabilgarri daudenean izan ezik.

10. artikulua. - Administrazioako agintariak eta zerbitzu publikoak

1. Jarraian zehazten diren neurriak hartzea justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten Administrazioako agintarien barrutiei dagokienez, eta hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, posiblea den neurrian; hain zuzen ere hauek:

a) i) administrazioako agintariak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituztela zaintzea; edo

ii) jendearekin harremana duten agintari horien agenteek eurongana hizkuntza horietan jotzen duten pertsonekin eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituztela zaintzea; edo

iii) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek eskaerak ahoz zein idatziz aurkez ditzaketela eta erantzuna hizkuntza horietan jaso dezaketela zaintzea; edo

iv) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek eskaerak ahoz zein idatziz aurkez ditzaketela zaintzea; edo

v) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek hizkuntza horietan idatzitako agiri bat balio osoz aurkez dezaketela zaintzea;

b) maiz erabiltzen diren formularioak eta administrazio-testuak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan, edo bertsio elebidunetan, jartzea jendearen eskueran;

c) dokumentuak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean erredaktatzea baimentzea administrazioako agintariari.

2. Jarraian zehazten diren neurriak justifikatzeko besteko eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztun-kopurua duten lurraldeetako toki eta eskualde mailako agintariari dagokienez, ondokoak baimendu eta/edo sustatzeko konpromisoa hartu dute aldeek:

a) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera eskualde edo toki mailako administrazioan;

b) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunek eskaerak ahoz zein idatziz aurkezteko duten aukera;

c) eskualdeko taldeek beren testu ofizialak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere argitaratzea;

d) tokiko taldeek beren testu ofizialak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere argitaratzea;

e) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako eskualdeko taldeek beren batzarretako eztabaidetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzea, baina ez da baztertuko, hala ere, Estatuko hizkuntza ofizialak erabiltzea;

f) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako tokiko taldeek beren batzarretako eztabaidetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzea, baina ez da baztertuko, hala ere, Estatuko hizkuntza ofizialak erabiltzea;

g) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako toponimiako ohiko formak eta zuzenak erabili edo onartzea, beharrezkoa bada hizkuntza ofizialetako izendapenekin batera.

3. Administrazioko agintariek edo horien kontura jarduten diren beste pertsona batzuek bermatzen dituzten zerbitzu publikoei dagokienez, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera eta hori posiblea den neurrian, konpromisoa hauek hartu dituzte Gutuna sinatzen duten aldeek:

a) zerbitzua ematerakoan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen direla zaintzea; edo

b) eskaerak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan aurkeztu eta erantzuna hizkuntza horietan jasotzea baimentzea hizkuntzotako hiztunei; edo

c) eskaerak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan aurkeztea baimentzea hizkuntzotako hiztunei.

4. Aldeek onartu dituzten 1, 2 eta 3 paragrafoetako xedapenak martxan jartzearren, ondoko neurrietako bat edo batzuk hartzera konprometitu dira:

a) idatzizko edo ahozko itzulpena egitera, eskatuz gero;

b) funtzionarioak eta bestelako agente publikoak kopuru nahikoan errekutatuzera, edo, beharrezkoa bada, horiek prestatzera;

c) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bat ezagutzen duten agente publikoek destinoa hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan izateko egin ditzaketen eskariak asetzea, ahal den neurrian.

5. Aldeek konpromisoa hartu dute, interesdunek hala eskatuz gero, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako patronimikoak erabili edo hartzea baimentzeko.

11. artikulua. - Komunikabideak

1. Aldeek zenbait konpromiso hartu dituzte eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunei dagokienez, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeetan, hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, eta agintari publikoek, modu zuzenean edo zeharkakoan, arlo horretan boterea edo eginkizunen bat duten neurrian, beti ere komunikabideen independentzia eta autonomia printzipioak errespetatuz. Konpromisoak hauek dira:

- a) irratia eta telebista zerbitzu publikoak diren neurrian:
 - i) gutxienez irrati-estazio eta telebista-kate bana sortzea eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan; edo
 - ii) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez irrati-estazio eta telebista-kate bana sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo
 - iii) beharrezkoak diren xedapenak ematea difusioaren arduradunek eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan egindako emisioak programatu ditzaten;
- b) i) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez irrati-estazio bat sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo
ii) irrati-programak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean emititzea sustatu eta/edo erraztea
- c) i) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez telebista-kate bat sortzea sustatu eta/edo erraztea; edo
ii) telebista-programak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean zabaltzea sustatu eta/edo erraztea
- d) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako egindako entzunezko eta ikus-entzunezko materialen ekoizpena eta zabalkundea sustatu eta/edo erraztea;
- e) i) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan gutxienez prentsa-organo bat sortu eta/edo mantentzea sustatu eta/edo erraztea; edo
ii) prentsa-artikuluak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan modu erregularrean argitaratzea sustatu eta/edo erraztea
- f) i) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen dituzten komunikabideen kostu osagarriak estaltzea, legeak komunikabideentzat, orokorrean, finantza-laguntzarik ezarrita duenean; edo
ii) dauden finantza-laguntzak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako ikus-entzunezko ekoizpenei ere ematea;
- g) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan lan egiten duten komunikabideentzako kazetarien eta beste langile batzuen prestakuntza bultzatzea.

2. Aldeak konpromisoa hartu dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza edo antzekoa hitz egiten duten hurbileko herrialdeetako biztanleek irrati-eta telebista-emisioak modu zuzenean jasotzeko askatasuna izango dutela bermatzeko, bai eta hurbileko herrialdeek hizkuntza horretan egin ditzaketen irrati- eta telebista-emisioen aurka ez egiteko ere. Konpromisoa hartu dute, bestalde, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean edo antzekoan sortutako informazioaren adierazpen-askatasuna eta horren zirkulazio askea dela-eta idatzizko prentsari ez zaiola inolako murrizketarik ezarriko zaintzeko. Aipatutako askatasunak erabiltzeak betebeharrak eta erantzukizunak dakartza, eta legez ezarritako zenbait formalitate, baldintza, murriztapen edo zehapenen menpe egon daiteke. Horiek guztiak beharrezko neurriak dira, gizarte demokratiko batean, segurtasun nazionalerako, lurralde-osotasunerako edo segurtasun publikorako, ordenaren defentsarako eta krimenaren prebentziorako, osasunaren edo moralaren babeserako, hurkoaren ospearen eta eskubideen babeserako, isilpeko informazioak zabaltzea eragozteko, edo botere judizialaren agintea edo inpartzialtasuna bermatzeko.

3. Aldeek konpromisoa hartu dute eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen interesak ordezkaturata egon daitezen edo aintzat har daitezen komunikabideen askatasuna eta pluraltasuna bermatzeko egitekoa duen legearekin bat sor daitezkeen egituretan.

12. artikulua. - Kultur jarduerak eta ekipamenduak

1. Kultur jardueri eta ekipamenduei dagokienez —bereziki, liburutegiak, bideotekak, kultur zentroak, museoak, akademi artxiboak, antzokiak eta zinemak, literaturako eta zinema-ekoizpeneko lanak, kultura herrikoia adierazpenerako lanak, jaialdiak, kultur industriak, eta batez ere teknologia berrien erabilera kontuan hartuta—, zenbait konpromiso hartu dituzte aldeek, hizkuntza horiek erabiltzen diren lurraldeari dagokionez, eta agintari publikoak arlo horretan eskumena, boterea edo egitekoa duten neurrian.

Konpromiso hauek hartu dituzte:

a) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen adierazpidea eta berezko ekimenak sustatzea, eta hizkuntza horietan sortutako lanak eskuratzeko bitartekoak erraztea;

b) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako lanak beste hizkuntza batzuetan eskuratzeko bitartekoak erraztea, eta, horretarako, itzulpen-, bikoizketa-, postsinkronizazio-, eta azpitolazio-lanak lagundu eta garatzea;

c) beste hizkuntza batzuetan sortutako lanak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan eskuratzeko bitartekoak erraztea, eta, horretarako, itzulpen-, bikoizketa-, postsinkronizazio-, eta azpitolazio-lanak lagundu eta garatzea;

d) zenbait kultur jarduera abiarazteko edo horiei laguntzeko ardura duten organismoek beren ekimeneko edo beraiek laguntzen dituzten ekimenetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen ezagutza eta erabilera neurri egokian integratzen dutela zaintzea.

e) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza, bai eta beste biztanleen hizkuntzak ere, menperatzen dituen pertsonala zenbait kultur jarduera abiarazteko edo horiei laguntzeko ardura duten organismoen eskueran jartzen laguntzea;

f) ekipamenduak hornitzerakoan eta kultur jarduerak programatzerakoan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen ordezkariak zuzeneko parte-hartzea izan dezatela bultzatzea;

g) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan sortutako lanak bildu, gordailuan jaso eta aurkeztu edo argitaratzeko ardura duen organismo baten edo gehiagoren sorrera suspertu eta/edo erraztea;

h) beharrezkoa bada, itzulpen-zerbitzuak eta terminologia-ikerketako zerbitzuak sortzea eta/edo sustatu eta finantzatzea, batez ere, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bakoitzean administrazio-, merkataritza-, ekonomia-, gizarte-, teknologia- edo lege-terminologia egokia mantendu eta garatzearen.

2. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak tradizioz erabiltzen diren lurraldeak ez direnei dagokienez, aldeek konpromisoa hartu dute, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzako hiztunen kopuruak horrelakorik justifikatzen badu, kultur jarduera eta ekipamendu egokiak sustatu eta/edo ezartzeko, aurreko paragrafoarekin bat.

3. Aldeek konpromisoa hartu dute leku egokia emateko, beren atzerriko kultur politikan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzei eta horiek islatzen duten kulturari.

13. artikulua. - Ekonomia- eta gizarte-bizitza

1. Ekonomia- eta gizarte-jarduerari dagokienez, aldeek ondoko konpromisoak hartu dituzte, herrialde osorako:

a) beren legedietatik kanpo uztea ekonomia- eta gizarte-bizitzari buruzko dokumentuetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzeko aukera, arrazoi justifikagarririk gabe, debekatzen edo mugatzen duen xedapen oro, batez ere lan-kontratuetan eta dokumentu teknikoetan, esaterako, produktuak edo ekipamenduak erabiltzeko jarraibideetan.

b) enpresen barne-araudietan eta egintza pribatuetan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera baztertu edo mugatzen duen ezein klausula sartzea debekatzea, gutxienez hizkuntza bera hitz egiten dutenen artean;

c) ekonomia- eta gizarte-jardueretan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera ahultzeko asmoa duten praktiken aurka egitea;

d) aurreko idatz-zatietan azalduetako bitartekoak baino beste batzuk erabilia, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera erraztu eta/edo sustatzea.

2. Ekonomia- eta gizarte-jarduerei dagokienez, aldeek zenbait konpromisoa hartu dituzte, agintari publikoek eskumena duten neurrian, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak erabiltzen diren lurralderako, eta hori posiblea den neurrian. Konpromisoak hauek dira:

a) finantza eta banaka arloetako arautegien bidez definitzea, merkataritzako erabilerarekin bateragarriak diren baldintzetan, ordainketa-aginduak (txekekak, truke-letrak, etab.) edo beste finantza-agiri batzuek idazterakoan eskualde mailako edo gutxiengoan hizkuntzak erabiltzeko aukera ematen duten modalitateak, edo, horrelakorik ezean, prozesu hori martxan jarri dela zaintzea;

b) zuzenean beren kontrolaren menpe dauden (sektore publikoa) ekonomia- eta gizarte-sektoreetan, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko ekintzak egitea;

c) ospitale, zaharren egoitza edo bestelako gizarte-ekipamenduetan, horietara osasuna, adina edo beste arrazoi batzuk direla-eta joan behar izan duten eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunei beren hizkuntzan hartu eta artatzeko aukera eskainiko dietela zaintzea;

d) modalitate egokiak erabilia, segurtasun-kontsignak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere erredaktatuta egongo direla zaintzea;

e) agintari eskudunek kontsumitzaileen eskubideei buruz eskainitako informazioak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan ere erabilgarri bilakatzea;

14. artikulua – Mugaz haraindiko elkartrukeak

Aldeek hartu dituzten konpromisoak:

a) hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten estatuak konprometitzen dituzten alde biko edo anitzeko akordioak aplikatzea, edo horiek amaitzen saiatzea, beharrezkoa bada, estatu horietan hizkuntza bereko hiztunen arteko harremanak erraztearren, bai kulturari, irakaskuntzan, lanbide-heziketan eta hezkuntza iraunkorrean;

b) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen alde, mugaz haraindiko lankidetzara erraztu eta/edo sustatzea, batez ere hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten eskualde edo toki mailako taldeen artean;

IV. ZATIA – GUTUNAREN APLIKAZIOA

15. artikulua. - Aldizkako txostenak

1. Jarraitutako politikari buruzko txostena aurkeztuko diote aldeek, aldian-aldian, Europako Kontseiluko idazkari nagusiari, Ministroen Kontseiluak ezarriko duen eran, eta Gutun honetako II. zatiarekin bat. Aldeek III. zatiko xedapenetatik bere egin dituztenak aplikatzeko hartu dituzten neurriei buruzkoa izango da txosten hori. Alde bakoitzak Gutuna berarentzat indarrean sartu ondoko lehenengo urtean aurkeztu behar du, beste txostenak, berriz, lehenengoa aurkeztu ondoren, hiru urtean behin aurkeztu behar dira.

2. Aldeek jendaurrean jarriko dituzte beren txostenak.

16. artikulua. - Txostenen azterketa

1. 15. artikuluan xedatutakoa betez Europako Kontseiluko idazkari nagusiari aurkeztuko zaizkion txostenak 17. artikuluan xedatutakoari jarraiki osatutako adituen batzordeak aztertuko ditu.

2. Gutuna sinatu duen aldeetako baten lurraldean legez eraturako erakundeek eta elkarteek Alde horrek hartutako konpromisoen inguruko gaiez ohar-tarazi ahal izango dute adituen batzordea, Gutun honetako III. zatia jarraiki. Alde interesatuari galdetu ondoren, adituen batzordeak aintzat har ditzake informazio horiek artikuluko honetako 3. paragrafoan aipatzen den txostena prestatzerakoan. Erakunde eta elkarte horiek, bestalde, Alde batek egindako politikari buruzko adierazpenak egin ahal izango dituzte, II. zatiarekin bat.

3. 1. paragrafoan aipatutako txostenak eta 2. paragrafoan aipatutako informazioak oinarri hartuta, Ministroen Kontseiluentzako txosten bat prestatuko du adituen batzordeak. Txosten horri aldeei eskatuko zaizkien oharrak gehituko zaizkio; horiek guztiak jendaurrean jarri ahal izango ditu Ministroen Kontseiluak.

4. 3. paragrafoan aipatutako txostenak adituen batzordeak Ministroen Kontseiluari egindako proposamenak jasoko ditu, bereziki, Kontseiluak, beharrezkoa bada, Alde bati edo batzuei egingo dizkien gomendioak prestatzearen.

5. Europako Kontseiluko idazkari nagusiak bi urteko txosten xehatua, Gutunaren aplikazioari buruzkoa, egingo dio Parlamentu-batzarrari.

17. artikulua. - Adituen batzordea

1. Adituen batzordearen osieran Alde bakoitzeko kide bana egongo da. Kide hori Ministroen Kontseiluak aukeratuko du Alde bakoitzak proposatu-

tako zerrendako pertsonen artetik; zerrenda horretan egongo direnak zuzentasun osoko pertsonak izango dira eta karta jorratzen dituen arloetan aintzatsitasitako gaitasuna dutenak.

2. Adituen batzordeko kideak sei urterako aukeratuko dira eta horien agintaldia berritu ahal izango da. Kide batek ezin badu bere agintaldia bete, 1. paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraiki ordezkatu da, eta hori ordezkatzeko izendatutako kideak lehengoaren agintaldia bukatuko du.

3. Adituen batzordeak onartuko du bere barne-araudia. Batzorde horren idazkaritza Europako Kontseiluko idazkari nagusiak bermatuko du.

V. ZATIA – AZKEN XEDAPENAK

18. artikulua

Gutun hau Europako Kontseiluko kide diren estatuek sina dezakete. Berretsi, onartu edo onetsi egin beharko da. Berretsi, onartu edo onesteko agiriak Europako Kontseiluko idazkari nagusiari utzi beharko zaizkio gordailuan.

19. artikulua

1. Gutun hau Europako Kontseiluko bost kidek, 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gutunarekin konprometituta daudela onartzen duten egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunean sartuko da indarrean.

2. Gutunarekin konpromisoa hartzeko prest daudela beranduago adierazten duten estatuen kasuan, berretsi, onartu edo onesteko agiria gordailuan utzi den egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunean sartuko da indarrean Gutun hau.

20. artikulua

1. Gutun hau indarrean sartu ondoren, Europako Kontseiluko Ministroen Lantaldeak bere esku izango du Europako Kontseiluko kide ez den edozein estaturi Gutunari atxikitze gonbita egitea.

2. Gutunarekin bat egin duen edozein estaturen kasuan, atxikitze-agiria Europako Kontseiluko idazkari nagusiari gordailuan utzi zaion egunetik zenbatzen hasita hiru hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunean sartuko da indarrean Gutun hau.

21. artikulua

1. Estatu guztiek, Gutuna sinatzerakoan edo Gutuna berretsi, onartu, onetsi edo horri atxikitzeke agiria gordailuan uzterakoan, erreserba bat edo gehiago aurkez diezaiekete Gutun honetako 7. artikuluko 2tik 5erako paragrafoei. Ez da beste erreserbarik onartuko.

2. Aurreko paragrafoaren arabera erreserbaren bat aurkeztu duen edozein Estatu sinatzaileek erreserba hori osorik edo zati batean ken dezake; horretarako, jakinarazpen bat bidali behar dio Europako Kontseiluko idazkari nagusiari. Erreserba kentzeak idazkari nagusiak jakinarazpena jaso duen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

22. artikulua

1. Alde guztiek, edozein unetan, Gutun hau salatu dezakete; horretarako, jakinarazpen bat bidali behar diote Europako Kontseiluko idazkari nagusiari.

2. Salaketak idazkari nagusiak jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita sei hilabeteko epea amaitu osteko hileko lehenengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

23. artikulua

Europako Kontseiluko idazkari nagusiak Kontseiluko kide diren estatuei eta Gutunari atxikitako estatu guztiei jakinaraziko dizkie:

- a) sinadura guztiak;
- b) Gordailuan utzi diren Gutuna berretsi, onartu, onetsi edo horri atxikitzeke agiri oro;
- c) Gutun hau, 19 eta 20. artikuluei jarraiki, indarrean sartzen den data oro;
- d) 3. artikuluko 2. paragrafoko xedapenak betez jasotako jakinarazpen oro;
- e) Gutun honekin zerikusia duen egintza, jakinarazpen edo komunikazio oro.

Horri guztiari jarraiki, behean sinatzen dutenek, horretarako behar bezala ahalmenduta, Gutun hau sinatu dute.

Strasbourgren egina 1992ko azaroaren 5ean, frantsesez eta ingelesez, testu biak balio berekoak izanik, Europako Kontseiluko artxiboan jasoko den ale bakarrean. Europako Kontseiluko idazkari nagusiak kartaren kopia ziurtatuak bidaliko dizkie Europako Kontseiluko kide diren estatu guztiei eta Gutun honi atxikitzeke gonbita egin zaien estatu guztiei.

5.3.2. Nazio-Gutxiengoak Babesteko Hitzarmen Orokorra, 1994. urteko azaroaren 10ekoa: 5 eta 10. artikulua

5. artikulua

1.- Alderdiek konpromisoa hartzen dute, beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko, baldintza horiek ahalbide dezaten nazio-gutxiengoetako gizakiek euren kultura iraunarazi eta garatzea, bai eta haien nortasunaren oinarritzko osagaiak babestea ere, hala nola, euren erlijioa, hizkuntza, tradizioak eta kultura-ondarea.

2.- Alderdiek, euren integrazio-politika orokorraren barruan hartutako neurriei kalterik egin gabe, ez dute inolako politika edo eginerarik burutuko, horren helburua bada nazio-gutxiengoetako gizakiak euren borondatearen aurka berdinestea; aitzitik, gizaki horiek babestuko dituzte, berdineste hori helburu duten ekintza guztien aurka.

10. artikulua

1.- Alderdiek konpromisoa hartzen dute, nazio-gutxiengoetako gizaki guztiei aitortzeko, askatasunez eta trabarik gabe, euren hizkuntza gutxiengoz erabiltzeko eskubidea, ahoz eta idatziz.

2.- Nazio-gutxiengoetako gizakiak, tradizioz edo kopuru handietan, zein gune geografikotan bizi eta gune horietan, gizaki horiek hala eskatuta eta eskari hori benetako beharrezana denean, alderdiek ahaleginak egingo dituzte, ahal den neurrian, zenbait baldintza ziurtatzeko, baldintza horiek ahalbide dezaten gizakien eta administrazio-agintarien arteko harremanetan eremu urriko hizkuntza erabiltzea.

3.- Alderdiek konpromisoa hartzen dute, nazio-gutxiengoetako gizaki guztiei bermatzeko, eperik laburrenean eta eurek ulertzen duten hizkuntza horretan, informazioa jasotzeko eskubidea, atxilotetaren arrazoiei buruz, eta euren aurkako akusazioaren izaera eta arrazoiari buruz; bermatuko dute, orobat, hizkuntza horretan haiek euren burua defendatzeko duten eskubidea, beharrezkoa bada, interpretearen doako laguntzarekin.

§6. Espainiako Erresuma

6.1. ESPAINIAKO KONSTITUZIOA (1978): 3. ARTIKULUA

3. artikulua

1. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.

2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik.

3. Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

6.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

6.2.1. Euskal Herriko Autonomi Estatutua (1979): 6. artikulua

6. artikulua

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, berorien ofizialtasuna erregulatuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.

3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko.

4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholkumale.

5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroriekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala –edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko–, horretara euskara zaindu eta bultzatzea dadin.

6.2.2. Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzekoa

Euskadiko Herri osoari, Legebiltzarrak Azaroaren 24ko 10/1982 “Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko” Legea, onartu duela jakinarazten zaio.

Beraz, hori bete eta betearazi dezatela agintzen diet Euskadiko herritar guztiei.

Gasteizen, 1982garreneko Azaroaren 24an. Lehendakaria, CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Konstituzioak eta Autonomia-Estatutoak Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dute euskeraren erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea, euskera Euskal Herriaren Kultura-Ondarearen funtsezko zati eta, gaztelaniarekin batean, Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizial denez.

Helburua zera da: Euskera, gure Elkartearen nortasunaren erakusgarri nabarmenena eta behinena eta, ezagutzaren eta erabilkeraren bidez, gizabana-koak Elkartean erabat bertakotzeko bidea dela aitortzea.

Euskera Euskal Herriaren berenezko hizkuntza eta gaztelaniarekin batean hizkuntza ofizial izateak ez die, inola ere, batagatik edo besteagatik hartaz baliatzen ez diren herritarren eskubideei kalterik ekarri behar, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 6garren Ataleko 3garrenak berariz dionez.

Hizkuntzari Euskal Herriko herrikide guztien baterapide denaren aitortpena egin ondoren, euskal herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten eskubi-deak gure Lege-Antolapidetzaratu beharra dago eta, batipat, hizkuntza ofizial bietan ihardutzeko eskubidea, eta hizkuntzarekiko babesaren bermea, Euskal Herriak gordetzen duen kultura-ondare baten funtsezko zati denez.

Legea gauzatzen duten guztizko oinarri-irizpideetatik abiatuta, Aintzin-Idazpuruak euskera Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen berenezko hizkuntza denaren aitortpena egiten du, eta haren lur-mugartean euskera eta gaztelania hizkuntza ofizial direnekoa. Atal horretan bertan, hizkuntzagatikako bereizkeria galerazten da.

Lehenengo Idazpuruak, herritarrek hizkuntzaren alorrean dituzten esku-bideak eta euskal Herri-Agintaritzak egin beharrekoak ditu gai.

Bigarren Idazpuruak Herri-Agintaritzaren ekintzak araupetzen ditu. Bertako lehen-Atalburua Herri-Arduralaritzan euskera erabiltzeari buruzkoa da, Autonomia-Arduralaritzarekiko harremanetan euskera eta gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen delarik. Agiri-paperak herri-erroldegetiaratzea ere araupetzen da, aginte-araupideak edo erabakiak edo Arduralaritzaren egintza guztiak, baita mezuak eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan argitaratu beharko direla agintzen da. Zuzenbidea eragiten dutenekingo harremanetan herritar guztiei bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofiziala erabiltzeko esku ematen zaie. Autonomia-Elkarteko herrien eta orohar toki-izen guztien izen ofizialak finkatzeko ahalmena Jaurlaritzari, Kondaira-Lurralde-etako Foru-Erakundeei edo Toki-Erakundeei ematen zaie. Kale-bidetango seinale eta iragarpenen idazkera araupetzen da. Zinpeko itzultzaile-tituloa lortu eta ematea araupetzeko ahalmena Jaurlaritzari ematen zaio, baita itzultzaileen zerbitzu ofiziala sortaraztekoa ere. Herri-Agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura-eredu ofizialak, baita Euskal Herritik abiatzen diren Herri-Garraioen zerbitzuak ere bi hizkuntzetan erabili beharko direla agintzen da. Hemi-Arduralaritzari datxekon lanarigoa arian-arian euskalduntzea aintzin-ohartematen da.

Bigarren Atalburuak euskeraren irakaskuntzango erabilpena araupetzen du. Aukeratuz besteko hizkuntza ofiziala irakatsi beharra araupetzen delarik, ikasle guztiek bere ikasketak euskeraz egiteko duten eskubidea aitortzen da. Jarri beharreko hizkuntza-ereduak araupetzea, bi hizkuntza ofizialak behar hainbat ezagutzeko neurriak hartzea eta ikasketa-egitamuak elkarri egokitzea Jaurlaritzaren gain uzten ditu. Irakasleak gaitzeari buruzkoan, irakasleok euskeraz eta gazteleraz erabateko gaitasuna lor dezaten, hauen ikasketa-egitamuak egokitzea ohartematen da. Euskera ikasi beharrik ez izateko agiango barkapenak ere ohartematen dira.

Hirugarren Atalburuak, albisteak euskeraz jaso ahal izateko eskubidea aitortzen duelarik, euskeraren adierazpideetango erabilpena araupetzen du. Autonomia-Elkarteko adierazpideetan euskera suztatzea eta EITB-n euskerrari indar ematea eta irratigintzan, albistaritzan, irudiaren eta hotsaren irarpideetan etabar, euskera suztaitezko eta babestezko neurriak hartzea jaurlaritzaren gain uzten ditu.

Laugarren Atalburua euskera gizartean eta erakunde-mailako beste alorrean erabiltzeari buruzkoa da eta gara-adinekoei euskera erakustea eta euskeraz alfabetatzeko lana, maila ezberdinetan euskeraren erabilpena suztatzea Jaurlaritzaren gain uzten du eta, Lege honen erabilpena eta hedapena elkarkidetzeko, Jaurlaritzak harreman-sail bat sortaraziko duela ohartematen du.

Boskarren Atalburuan agizko euskera-idatzi ofizialaren batasun eta arauz-kotasunaz arduratzeko lana Jaurlaritzaren gain uzten du.

Erabaki Gehigarriak, Autonomia-Elkartetik kanpo egon eta euskerarekin zerikusirik duten ekintzapidetan ihardun diharduten iraskunde edo aginte-sailekin atxikipenak antolatzea Jaurlaritzaren gain uzten du.

Aldibaterako Erabakiak, orain arkitzen garen egoeratik, Lege honen fun-tsa beste Lege eta Araudietan gauzatu artean araupidetza-hutsik gerta dedina galeraziz, Lege honen erabilpena eta hedapena bete-betekoak izan daitezene-ko beste egoera ,batera aldatzea segurtatzen du.

Legeak Baliogabetzezko eta Azken-Erabaki bana sartzen ditu eta hoietan Legearen arauzko hedakuntza egiteko baimena ematen zaio Jaurlaritzari.

AINTZIN-IDAZPURUA

Lehenengo Atala Euskeraren eta gaztelaniaren erabilkera

Lege honetan agindutakoari eta Lege honen hedapenerako Eusko Lege-biltzarrak eta Jaurlaritzak eman ditzaten gainerako aginduei atxikiko zaie.

2garren Atala

Euskal Herriak euskera du berenezko hizkuntza.

3garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen hizkuntza-ofizialak euskera eta gaztelania dira.

4garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri-Agintesaelek ardura izan eta behar daitezen neurriak har-tuko dituzte.

LEHENENGO IDAZPURUA ATALBURU BAKARRA

Herritarren eta herri-agintaritzaren eskubide eta eginbeharrak hizkuntza-ren alorrean

5garren Atala

1. Euskal Herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubide.

2. Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskeraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

b) Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.

c) Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskeraz jasotzeko eskubidea.

d) Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskeraz aritzeko eskubidea.

e) Edozein bilkuratan euskeraz egiteko eskubidea.

3. Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, herri-agintesailek beroien erabilpena bermatuko dute.

BIGARREN IDAZPURUA

Herri-agintaritzaren ihardunez

LEHENENGO ATALBURUA

Euskera Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko lur-eremu barruko herri-arduralaritzan erabiltzeaz

6garren Atala

1. Herritar guztiei, Autonomia-Elkarteko lur-eremuan Herri-Arduralaritzarekin izan ditzaten harremanetan euskera nahiz gaztelania erabiltzeko eta bakoitzak aukera dezan hizkuntza ofizialean harrera egin dakioneko eskubidea aitortzen zaie. Horretarako, behar daitezen neurriak hartuko dira eta eskubide honen erabilpena arian-arian bermatzeko beharrezko gerta daitezen eskuarteak ebatziko.

2. Norbanako batek baino gehiagok eskuhartu dezateneko zehaztapidetzan edo arazopideketan, haiek elkar hartuta aukeratu dezaten hizkuntzaz baliatuko dira herri-agintariak. Elkar hartzerik ez bada, zehaztapidetza edo arazopideketan hasitakoak nahi dezan hizkuntza erabiliko da, bi aldetakoek argipideak bere aukerako hizkuntzan jasotzeko duten eskubidearen kaltetan gabe.

7garren Atala

1. Autonomia-Elkartearen menpeko agiripaperak herri-erroldelegietara-
tzea, hauek nahiz Eusko Jaurlaritzarenak, bertako Erakunde Burujabeenak;
Foru-Arduralaritzenak, Toki-Arduralaritzarenak, nahiz besterenak izan, egon
daitezeneke hizkuntza ofizialean egingo da.

2. Autonomia-Elkartearen menpeko ez diren herri-erroldelegietan, Eusko
Jaurlaritzak, gaitasunaren jabe diren ihardutze-sailekin elkar hartuz, euskera-
ren erabilpena arauzkotzea suztatuko du.

3. Hoiiek erakusteko eta/edo hoielikiko egiaztapen-agiriak egiteko, Euskal
Herriko Autonomia-Elkarteko edozein hizkuntza ofizialetarako itzulpenaren
bermea emango da.

8garren Atala

1. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezene Herri-Agintari-
tzagatikako edozein aginte-araupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan
idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.

2. Euskal Herriko Autonomia-Elkarteango herri-agintariak eskuhartu
dezateneke egintza guztiak, eta bai arduralaritza-mezu eta adierazpenak ere,
bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berariz Autonomia-Elkarteko
hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu.

3. Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko ego-
era dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri-agin-
tariak, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango
dute.

9garren Atala

1. Epailaritzarekingo harremanetan, herritar guztiak aukerako hizkuntza
ofizialaz baliatu ahal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska dakiekeela.

2. Euskeraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta bai epailaritza-ihardunak,
balio osozkoak eta eragite-indarrezkoak izango dira.

3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien ihardutze-sailekin elkar hartuta, Euskal
Herriango Epai-Arduralaritzan euskeraren erabilpena arauzkotzea suztatuko
du.

10garren Atala

1. Autonomia Elkarteko lurralde, udal, herri, jeografia-gorabehera, hiribi-
de eta, orohar, toki-izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Kondaira-Lurral-

deetako Foru-Erakundeek edo Toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuaren barruan eta, beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelaniazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginez. Toki-erakundean eta Eusko Jaurlaritzaren artean aurreko atalean esandako izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritzak ebatziko du, aurrez Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren.

2. Kale-bidetango seinale eta iragarpenak bi hizkuntzetan egongo dira, nolana ere nazioarteko arauai eta baliatzaileekiko ulergarritasunari eta segurantzari atxikiz.

3. Izen hauek oso ezberdinak izanez gero, bide-seinaleei buruzkoetarako, biak ofizialtzat joko dira.

11garren Atala

Euskal Herritik abiatzen diren herri-garraiozko zerbitzu guztietan, jendearentzako irarkiak, mezuak eta adierazpenak euskeraz eta gaztelaniaz egingo dira.

12garren Atala

1. Jaurlaritzak araupetuko ditu bi hizkuntzen arteko zinpeko itzultzaile-titula lortzeko eta emateko baldintzak.

2. Halaber, itzultzaile-zerbitzu ofiziala sortaraziko du; hori Autonomia-Elkarteko herritarren eta Herri-Erakundeen esku egongo da, itzulpenen zehaztasuna eta legezko baliokidetasuna bermatzeko.

13garren Atala

Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko herri-agintaritzak erabili beharreko iragarki edo itxura-eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.

14garren Atala

1. Lege honen 6garren atalean aitortzen diren eskubideak egiteratu daitezzen, herri-agintariek Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzari atxikitako lanariak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartuko dituzte.

2. Herri-agintariek erabakiko dute zein lantokitarako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea.

3. Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremuango Arduralaritzako gainerako lantokietara sartzeko egin daitezzen baztertze-indarrezko azter-

ketetan, beste merezimenduen artean hizkuntza ofizialen jakintzamaila hartuko da kontutan; horren haztaketa lanbide-maila bakoitzerako egingo du Ardularitzak.

BIGARREN ATALBURUA

Euskeraren irakaskuntzango erabilpena

15garren Atala

Ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskeraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie. Horretarako Legebiltzarrak, edo hala badagokio Jaurlearitzak, elebitasuna arian-arian Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko hezkuntza-erapidetza osora hedatu dedineko xedezko neurri egokiak hartuko ditu.

16garren Atala

1. Unibersitate ikasketetaraino eman dedin irakaskuntzan, aitak, kuradoreak edo hala egokituz gero ikasleak berak ikasketak egiteko aukeratu ez duen hizkuntza ofiziala erakustea nahitaezkoa izango da.

2. Hala ere, Jaurlearitzak ikastegi bakoitzean erabili beharreko hizkuntza-ereduak araupetuko ditu, guraso edo kuradoreen nahia eta eskualdeko gizar-te-hizkuntzazko egoera kontutan izanik.

3. Herri-diruzko laguntza hartu eta araupeko irakaskuntza Elkartean ofizial ez den hizkuntza bat oinarri dela eman ditzaten norbanako-jabetzapeko ikastegiei, euskera eta gaztelera nahitaezko ikasgai gisa emango dituzte.

17garren Atala

Jaurlearitzak, ikaslegoari nahitaezko ikastaldiak bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabilzeko adina ezagutuko ditueneko segurantza emateko xedezko neurriak hartu eta euskera-giroa bermatuko du, barne nahiz kanpo-ekintzapidetan eta Ardularitzako ihardun eta agirietan euskera agizko adierazpide eginez.

18garren Atala

Irakasketa-egitamuak 15garren, 16garren eta 17garren ataletan jarritako helburuei egokitu zaizkie.

19garren Atala

Irakasleen gaikuntzarako unibersitate-eskolek irakasleak bere berarizkotasunak eskatzen duenaren arauera euskeraz eta gazteleraz erabat gai izan daitezela lortzeko egokituko dituzte bere ikasketa-egitarauak.

20garren Atala

1. Jaurlaritzak, irakaskuntza euskeraz hartzeko eskubidea egiteratzeko, irakasleak arian-rian gehiago euskalduntzeko bideak jarriko ditu.

2. Halaber, eta Lege honen 15garren eta 16garren ataletan oharmandakoa betetzeko, euskeraz jakitea nahitaezko izango duten lantoki edo irakaskuntza-gelak zehaztuko ditu.

21garren Atala

Bere ikasketak Euskal Herriko Autonomia-Elkartetik kanpo hasita euki; edo bere ohizko egoitza Autonomia-Elkartean ez dutela egiaztatu dezaten ikasleei, euskera ikastea barkatu ahal izango zaie, horretarako jarri daitezten modutan.

HIRUGARREN ATALBURUA

Euskeraren gizarte-adierazpideetango erabilkera

22garren Atala

Gizarte-adierazpideek albisteak euskeraz eta gazteleraz eman diezaizkieten duten eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei. Horretarako Jaurlaritzak, euskera gizarte-adierazpideetan gero eta gehiago agertu dedineko neurriak hartuko ditu, hizkuntza ofizialen erabilkera arian-arian berdindu dedinera joz.

23garren Atala

Jaurlaritzak, aurreko atalak jarritako bi hizkuntzen arteko kidetasuna bermatzeko, Autonomia-Elkarteko adierazpideetan euskera lehenengotasunez erabiltzea suztatuko du.

24garren Atala

Jaurlaritzak, EITB-n hizkuntza arauzkotzeari bultza egingo dio, euskera, Euskal Herriaren berenezko hizkuntza denez behar bezala erabiliko dela bermatzeko.

25garren Atala

Jaurlaritzak 22garren atalean aitortutako eskubidea arian-arian bermatze-agotzeko, euskal argitalpenak suztatzeko eta babesteko neurriak hartuko ditu, nolana ere honako hauetan euskeraren zabalkundeari eta benetan erabili ahal izateari indar emanaz: Irratian. Egunkari eta aldizkarietan. Zineman. Antzerki eta ikuskizunetan. Irudiaren eta hotsaren irarpideetan. Horretarako, aurreko alor hoietaz ihardun eta hoiek araupetu ditzaten legeetan horretzazko idazpuru bat sartuko da.

LAUGARREN ATALBURUA

Euskeraren gizarte-erabilpena eta erakunde-alorrreko beste alderdi batzuk

26garren Atala

Euskal Herri-agintariek euskera gizarte-bizitzaren alor guztietan erabili dedila suztatzeazko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliapideak jarriko dituzte, herritarrei bere merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste nolana hiko ekintzapidetan euskeraz ari daitezeneko bideak eskeintzeko.

27garren Atala

1. Euskal herri-agintariek euskera zabalkunde-ihardunetan erabiltzea suztatuko dute.

2. Halaber, euskera-giroari indar emango diote, eta bai merkataritzazko, atsedenezko, kulturazko eta bazkunezko ofizialez besteko nolana hiko erakundetako iragarkietan erabiltzeari ere.

28garren Atala

Jaurlaritzak, euskeraren gara-adinekoentzako irakaskuntza eta euskaldunak alfabetatzea suztatuko ditu, horretarako Herri-Erakunde bat sortaraziz. Horrentzako araupideak Eusko Legebiltzarraren Lege baten bidez jarriko dira.

29garren Atala

Jaurlaritzak, euskeraren erabilpena arauzkotzeko lana errazteko, harreman-sail bat sortaraziko du, Lege hau egiteratzeari eta osabideratzeari buruzkoetan Erakunde Berezien ahalegin eta ekintzapideak aztertzea, zedarritzea eta antolakidetzea xede duela.

BOSKARREN ATALBURUA

Euskeraren idatzitako hizkuntza ofizial denezko erabilkera

30garren Atala

Jaurlaritza, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremu osorako idatzizko hizkuntza ofizial denez, euskeraren batasun eta arauzkotasunaz arduratuko da, Euskal Herriaren kultura ondarearen funtsezko zati direnez euskalkiei bizi diren tokietan zor zaien begirunearen kaltetan gabe.

ERABAKI GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Jaurlaritza, bere agintepideen hesparruan, Autonomia-Elkartearen mugartetik kanpo ihardun eta euskerarekiko ikerlan, babes eta suztapen-ekintzapidetan ihardun dezaten iraskundeen edo agintaritzen lankide izango da, horretarako kultura-atxikipenak antolatuz.

Bigarrena.- Jaurlaritzak, Euskal Herriko gizarte-hizkuntzazko egitamuketarako mapa egingo du, hori aldian-aldian Eusko Legebiltzarrari jakin erazi ondoren birrikuskatuz.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzak, horretarako gaitasuna duten ihardutze-sailekin elkar hartuta, Lege honen 6garren, 8garren, 11garren, 13garren eta 14garren ataletan araupetu-takoetan, Erresumaren Euskal Herriko Autonomia-Elkartean arduralaritzan euskera arian-arian arauzkotzenagotu dedineko neurriak hartzeari bultz egingo dio.

ALDIBATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.- Herri-Arduralaritza berezitan Lege hau indarrean jarri baino lehen hasitako biderapen eta zehaztapidetza guztiei, hasi zireneko hizkuntzan jarraituko zaie bukatu arte.

Bigarrena.- Jaurlaritzak, tokiko herri-agintariak eskatuta, eta tokiko gizarte-hizkuntzarekiko egoerari bereziki begiratuz, Lege honetan Konstituzioaren edo Estatutoaren aginduz noraezko izan ez daitezten atalen batzuk egitera-teea aldi baterako barkatu ahal izango du, bere agintepide-eremuaren barruan.

BALIOGABETZE-ERABAKIA

Lege honetan agindutakoaren aurkako gerta daitezten maila bereko edo apalagoko agintza guztiak baliogabetuta gelditzen dira.

AZKEN ERABAKIA

Lege hau egiteratzeko eta erabiltzeko behar daitezen araupidetza-agintzak emateko eskua ematen zaio Jaurlaritzari; Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.

6.3. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

6.3.1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legea (1982): 9. artikulua

9. artikulua

1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan.

Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza horren irakaskuntza ordenatuko du.

6.3.2 Abenduaren 15eko 18/1986 Foru-legea, Euskarari buruzkoa

NAFARRAKO GOBERNUAREN LEHENDAKARIA

Jakin erazten dut Parlamentuak honako hau onetsi duela:

EUSKARARI BURUZKO FORU LEGEA

Komunitateen ondare kulturalaren barruan, Hizkuntzek toki gailena izaten dute. Gizakien arteko komunikabideetako tresna nagusia izateak, giza harremaneko funtsezko oinarri bihurtu ditu, eta kolektibitateari bere identitatea ematen dio, gizarteko erkideei elkarbizitza eta ulermen elementua emanez. Aldi berean, hizkuntzak historia berekiaren sinbolo eta testigantza izaten dira, belaunaldiz belaunaldi erabiltzen dituzten herrien esperientzia kolektibo bildu, begiratu eta transmititzen bait dute.

Hizkuntz fenomenoaren izaera dinamikoak eta bertan parte hartzen duten faktoreen zailtasun eta aniztasunak, etengabeko gorabeherak sortu dituzte, historian barna komunitateetako hizkuntzen zabalera eta indarrari dagokienez: batzuen hedakuntza eta besteen atzerakada, batzutan hizkuntzaz kanpoko arrazoiak eraginak, dudarik gabe dira nabarmenenak. Aldaketa hauetan, maiz komunikazioaren oinarri diren kontrako jarrerak izan dute esku. Jarrera hauek, hizkuntzetan arrazoirik gabe elkarrengandik urruntzeko indarra aurkitzen dutenek, edo hizkuntz aniztasunak berekin daukan barnebarneko aberastasuna ikusteko gauza ez direnek bultzatu dituzte.

Nafarroa bezala, beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazka-
ren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3 artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz.

Printzipio hauetan ezartzen da Foru Lege hau, zeinek aipatutako konstituzio agindua bete eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan aurrikusitakoa garatzen bait du.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua

1. Foru Lege honen xedea euskararen erabilpen normal eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan.

2. Hauexek dira Lege honen ezinbesteko helburuak:

a) Hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.

b) Euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

c) Euskararen erabilpen eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune erizpideei jarraiki, guzti hau Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

3. Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute.

2. artikulua

1. Gaztelera eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak dira eta, horren ondorioz, hiritar guziek dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea.

2. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Baita euskara ere Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan eta Foru Lege honetakoetan aurrikusitako eran.

3. artikulua

1. Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen.

2. Botere publikoek hizkuntz araua errespetatuko dute, Foru Lege honetan xedatutakoa eta hura garatzen duten xedapenen ondorio diren iharduketetan.

3. Hizkuntz arauak ezartzeko ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko idazatian ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak.

4. artikulua

Indarrean dagoen legeriaren arabera, eta Foru Lege honetan ezartzen diren hizkuntz eskubideetan babestuak izateko, hiritarrak Epaile eta Auzitegiatarazuzen daitezke.

5. artikulua¹

1. Foru lege honen ondorioetarako, Nafarroak honako eskualde hauek ditu:

a) Eskualde euskalduna, ondoko udalerriek osatua:

Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arantza, Arano, Arakil, Arbizu, Areso, Aria, Aribe, Arruazu, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Betelu, Auritz, Ziordia, Donamaria, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Elgorriaga, Eratsun, Ergoien, Erroibar, Esteribar, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Uharte-Arakil, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Oitz, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz (Malerreka), Luzaide, Bera, Hiriberri, Igantzi, Zugarramurdi.

b) Eskualde mistoa, ondoko udalerriek osatua:

Abartzuza, Antsoain, Agoitz, Artzibar, Atez, Barañain, Burgi, Burlata, Ziriza, Zizur, Etxarri, Etxauri, Egües, Ezkaroze, Espartza, Lizarra, Ezkabarte, Garde, Goñi, Gorza, Gesalaz, Uharte, Izaba, Itza, Itzaltzu, Eaurta, Xulapain, Lezaun, Lizoain, Otsagi, Odieta, Olaiibar, Oltza, Ollaran, Orontze, Oroz-Betelu, Iruñea, Gares, Erronkari, Jaitz, Sarze, Urzainki, Uztarroze, Bidankoze, Bidaurreta, Atarrabia, Deierri eta Zabaltza.

c) Eskualde ez-euskalduna, gainerako udalerriek osatua.

2. Aurreko atalean zehaztutakoa berrius daiteke, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. eta 20.2 artikuluetan ezarritako prozedurari jarraiki.

¹ Hona hemen Nafarroako 18/1986 Foru Legearen 5. artikuluan ageri diren herri izenak, Euskaltzaindiak 2007an onartutako forma eta grafian eta hurrenkera alfabetikoan jarriak:

a) Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arakil, Arano, Arantza, Arbizu, Areso, Aria, Aribe, Arruazu, Auritz, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Erroibar, Esteribar, Etxalar, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Hiriberri, Igantzi, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Luzaide, Oiz, Olatzagutia, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Sunbilla, Uharte Arakil, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urroz, Ziordia, Zubieta eta Zugarramurdi.

b) Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Artzibar, Atarrabia, Atez, Barañain, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Garde, Gares, Gesalatz, Goñeri, Gorza, Iruñea, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoainibar, Odieta, Olaiibar, Ollaran, Oltza, Orontze, Oroz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uztarroze, Zabaltza, Ziritza eta Zizur.

3. Nafarroako Gobernuak aldizka euskararen errealitate soziolinguistikolari buruzko ikasketak egitea aginduko du, eta horien berri emanen dio Parlamentuari.

I. TITULUA Erabilpen normal eta ofiziala

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

6. artikulua

Aitortu egiten da hiritar guztiek Administrazio Publikoekiko harremanetan gaztelera nahiz euskara erabiltzeko eskubidea dutela, ondorengo kapituletan ezarritako eran.

7. artikulua

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala gazteleraz eta euskaraz emanen dira argitara, aldibereko edizio bananduetan.

8. artikulua

1. Foru Komunitatearen toponimoek gazteleraz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

a) Eskualde euskaldunean, izendapen ofiziala euskalduna izanen da, gaztelerazko beste izen bat izan ezik, kasu honetan biak erabiliko bait dira.

b) Eskualde misto eta ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gazteleraz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohizko izen bat baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren alde aurreko txostenari jarraiki eta artikulua honen lehendabiziko idazatian aurrikusitakoaren arabera, Foru Komunitatearen toponimoak erabakiko ditu, baita lurralde, herri eta hiriarteko bideen izen ofizialak ere, eta horren berri eman beharko dio Parlamentuari. Hiriko kaleen izenak jartzea Udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko idazatietan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz.

9. artikulua

Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelera itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko du.

II. KAPITULUA

Erabilpen ofiziala eskualde euskaldunean

10. artikulua

1. Hiritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute. Horretarako eta eskubide honen mailaz mailako erabilpena bermatzeko, neurri egokiak hartuko ditu eta beharrezko gerta daitezkeen bitartekoak erabakiko.

2. Pertsona batek baino gehiagok parte hartzen duen espediente edo prozeduretan, botere publikoek erabiliko dute biltzen diren parteek elkarrekiko akordioaz ezarritako hizkuntza.

11. artikulua

Erabilitako hizkuntza edozein izanik, Administrazio iharduera guztiek baliozkoak izanen dira eta legezko eraginkortasun osoa izanen dute. Horren ondorioz, Administrazio Publikoen organoek parte hartzen duten ekintza guztia, baita administrazio jakinerazpen eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira, interesatu guztiek espreski bakar bat erabiltzea aukeratzen badute izan ezik.

12. artikulua

Agiri publikoak, emaileak aukeratutako hizkuntza ofizialean idatzi beharko dira, edo emaile bat baino gehiago balitz, hauek aukeratutakoan.

Fede-emaile publikoek, interesatuak eskatutakoaren arabera, euskaraz edo gazteleraz luzatu beharko dituzte kopiak eta testigantzak, eta behar denean, matrize eta agiriak bere erantzukizunpean itzuliko.

Nolanahi ere, gazteleraz luzatu beharko dituzte eskualde euskaldunetik at indarra izan behar duten kopiak.

13. artikulua

1. Erregistro Publikoetan, idazpenak dokumentua dagoen hizkuntza ofizialean luzatuko dira, eta beti ere, gazteleraz.

2. Kopia eta ziurtagirien igorketa hizkuntza ofizialetarik edozeinetan egingen da.

14. artikulua

Justizia Administrazioarekiko harremanetan, hiritar guztiek beraiek hautatutako hizkuntza ofiziala erabili ahalko dute, indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera.

15. artikulua

1. Administrazio Publikoek eta izaera publikoko enpresek, eskualde euskaldunearan lan egiten duen langilegoaren euskara erabiltzeko gaikuntza progresiboa sustatuko dute.

2. Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskaraz jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean.

16. artikulua

Eskualde euskalduneko Entitate Lokalek euskara erabiliko dute beren xedapen, argitalpen, hiriko kaleen errotulu eta tokien berezko izenetan, beti ere, ohizkoak errespetatuz.

III. KAPITULUA

Erabilpena eskualde mistoan

17. artikulua

Hiritar guztiek euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoei zuzentzeko.

Eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatu Administrazioek honako hau egin dezakete:

a) Urteroko lanpostuen eskeintza publikoan zein lanpostutarako izanen den nahitaezko euskaraz jakitea zehaztu.

b) Gainerako lanpostuetara iristeko deialdietan euskararen ezagupena merezimendutzat baloratu.

IV. KAPITULUA

Erabilpena eskualde ez-euskaldunean

18. artikulua

Aitortu egiten da hiritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interesatuei gaztelerarako itzulpena eska diezaiokete, edo 9. artikuluan aurrikusitako itzulpen zerbitzuak erabili.

II. TITULUA

Irakaskuntza

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

19. artikulua

Hiritar guztiak dute hezkuntz mailetan irakaskuntza euskaraz eta erdaraz izateko eskubidea, ondoko kapituluetan ezarritako eran.

20. artikulua

Nafarroako Gobernuak arautuko du euskararen sartzeari ikasketa plangintzetan eta ikastetxe bakoitzean nola aplikatu zehaztuko, lege honek eskualde desberdinetarako xedatutakoaren xedearen barruan.

21. artikulua

Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, behar diren ekintzak aurrera eramanen ditu, irakaslearen prestakuntzarako goi-mailako zentruen ikasketa-planek euskarazko irakaskuntzarako beharrezko den irakaslearen gaikuntza egokia berma dezaten.

22. artikulua

Administrazio Publikoek, aurreko artikuluetan xedatutakoa eginkor bihurtzeko, beharrezko diren giza eta teknika bitartekoak eta materialeak paratuko dituzte.

23. artikulua

Ikasketa plangintza ofizialek euskara Nafarroako kultur ondareztat hartuko dute, baita Foru Lege honen xedeei egokituko ere.

II. KAPITULUA

Irakaskuntza eskualde euskaldunean

24. artikulua

1. Ikasle guztiak irakaskuntza hartuko dute, guraso-boterea edo tutoretza daukan pertsonak, edo hala badagokio, ikasleak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean.

2. Hezkuntz maila ez-unibertsitarietan derrigorrezkoa izanen da euskara eta erdararen irakaskuntza, ikasle guztiak oinarritzko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa frogatu ahal izan dezaten.

3. Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko ikasketak eskualde euskaldunetik at hasi dituzten ikasleak edota eskualde honetan ohizko ez den bizilekua dutela justifikatzen dutenak, euskararen irakaskuntzatik salbuetsiak izan daitezke.

III. KAPITULUA

Irakaskuntza eskualde mistoan

25. artikulua

1. Euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunaz eginen da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz.

2. Hezkuntz maila ez-unibertsitarietan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarritzko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten.

IV. KAPITULUA

Irakaskuntza eskualde ez-euskaldunean

26. artikulua

Euskararen irakaskuntza bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantziatua, sustapen eta promozio erizpideei jarraiki eta eskarien arabera.

III. TITULUA

Komunikabide sozialak

27. artikulua

1. Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan.

Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohizko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak ekonomi eta materiale laguntza-planak gauzatuko ditu.

2. Foru Komunitateak gestionatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du.

28. artikulua

Administrazio Publikoek babestuko dituzte euskaraz egiten diren azalpen kultural eta artistikoak, liburu argitalpenak, ikusentzunezko ekoizpena eta bestelako ekintzak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Nafarroako Gobernuak, “Bianako Printzea Erakundea” Kultur Zerbitzuaren bidez, Foru Lege honen 1.3 artikuluan ezarritakoa bete erazteko behar diren iharduerak aurrera eramanez ditu.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak, 9. artikuluan aipatzen den euskara-gaztelera itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezko diren xedapenak emateko.

Bigarrena

Foru Lege hau indarrean jarriko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Nik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 22. artikuluan xedatutakoa betez, Foru Lege hau B.M. Erregeren izenean aldarrikatzen dut, Nafarroako Aldizkari Ofizialean berehala argitaratu eta Estatuko Aldizkari Ofizialera igor dadin agintzen dut, eta hiritar eta agintariei bete eta bete eraz dezaten manatzen diet.

Iruñean, mila bederatziehun eta larogitaseigarreneko abenduaren hamabostean.

Nafarroako Gobernuaren Lehendakaria, Gabriel Urralburu Tainta.

§7. Frantziako Errepublika

7.1. GIZAKIAREN ETA HERRITARRAREN ESKUBIDEEI BURUZKO ADIERAZPENA (1789): 11. ARTIKULUA

11. artikulua

Pentsamenduak eta iritziak askatasunez komunikatzea gizakiak dituen eskubideetatik baliotsuenetako bat da: herritar orok askatasunez hitz egin, idatz eta inprima dezake; baina, askatasun horretaz abusatuz gero, erantzukizuna izango du, legeak ezarritako kasuetan.

7.2. DEIXONNE LEGEA (1951): FRANTZIAKO ERREPUBLIKAK EMANDAKO 1951/48 LEGEA, 1951. URTEKO URTARRILAREN 11KOA, TOKIKO HIZKUNTZEI ETA DIALEKTOEI BURUZKOA²

1. artikulua

Hezkuntza Nazionalaren Kontseilu Nagusia arduratuko da, lege honen eremuan eta aldarrikatua izango delarik, baliabide hoberenak bilatzen, tokiko hizkuntzak eta dialektoak laguntzeko, erabiltzen diren eskualdeetan.

2. artikulua

Argibide pedagogikoak errektorei igorriko zaizkie, irakasle baimena emateko tokiko mintzairak erabil ditzaten lehen mailan eta ama-eskoletan, baliagarriak izango diren neurrian beren irakaskuntzan, bereziki hizkuntza frantsesaren ikaskuntzan.

3. artikulua

Eskaera egingo duen irakasle orok, baimena erdiets dezake, astero oren bat erabiltzeko ekintza norabidetuentzat, tokiko mintzairaren irakurketaren eta idazketaren oinarritzko nozioak irakasteko eta arabera literaturaren atal hautatu batzuk lantzeko.

Ikaskuntza hau aukerakoa da ikasleentzat.

² Deixonne Legea ez dago indarrean, 1975. urteko Haby Legeak artikulua batera laburbildu baitzuen: *Erregioen hizkuntzen eta kulturen irakaskuntza eskola-garai osoan eman daiteke*

4. artikulua

Irakasleei baimena emango zaie liburuak hautatzeko, beren akademiako errektoreak urtero antolatuko duen zerrenda batean, eskoletako liburutegietan ezartzeko, baliatu ahal izango dituztenak ikasleei ezagutarazteko tokiko kulturaren eta folkloreaken aberastasunak.

5. artikulua

Heziketa-eskoletan, aukerako ikastaldiak eta egonaldiak antolatuko dira, ahal den neurrian, beren lanbide-heziketaren denboran, irakaslegaiantzat, irakastera joateko xedea badute tokiko hizkuntza bizkor den eskualde batera.

6. artikulua

Lizeo eta kolegioetan, tokiko hizkuntza eta dialekto guztien aukerako ikaskuntza antolatuko da, bai eta tokiko folkloreak, literaturaz, herri arteetaz ekintza norabidetuen bidez ere.

7. artikulua

Fakultate kontseiluan eta unibertsitate kontseiluen abisuak hartu ondoren, eta Hezkuntza Nazionaleko Kontseilu Nagusiaren proposamenez, sortzen ahal izango dira, kreditu eskuragarrien neurrian, euskaldunei buruzko ikaskuntza institutuak; horietan, katedrak izango dira, tokiko hizkuntzentzat eta literaturentzat, bai eta ere folklore etnografiarentzat, besteak beste.

8. artikulua

Lizentzia diploma berriek eta goi mailako ikaskuntza diplomek, doktorego tesiek onespena emango diote, ikastaldi horiei jarraituz diren ikasleen lanari.

9. artikulua

Epaimahaietan epaile aditu batek parte hartu ahal duen neurrian, unibertsitateek aukerazko azterketa sar dezakete batxilergo programetan.

10. artikulua

Lege hau, bigarren artikulutik bederatzigarrena arte, bi artikulua hauek barne, aplikatu daitezke aldarrikapenaren ondotik izango den lehen ikasturtean bretoiera, euskara, katalana eta okzitaniara erabiltzen diren zonaldeetan.

11. artikulua

Zazpigarren eta zortzigarren artikuluen aplikazioak hauexek izango dira, besteak beste:

a) Roazhonen, Ikaskuntza Zeltikoen Institutuak antolatuko ditu hizkuntza eta literatura zeltikoen irakaskuntza.

b) Bordeleko Unibertsitatean eta Bordeleko Ikaskuntza Iberikoen Institutuan, euskararen eta euskal literaturaren irakaskuntza antolatuko da.

c) Katalan hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza antolatuko da Montpellier eta Tolosako unibertsitateetan, Pariseko Ikaskuntza Hispanikoen Institutuan, Bordeleko Ikaskuntza Iberikoen Institutuan.

d) Okzitaniako hizkuntza, literatura eta historiaren ikaskuntza antolatuko da Aix en Provence, Montpellier eta Tolosako unibertsitateetan.

7.3. FRANTZIAKO ERREPUBLIKAREN KONSTITUZIOA (1958): 2. ARTIKULUA

2. artikulua

Errepublikaren hizkuntza frantsesa da.³

Nazioaren zeinua hiru koloreko bandera da, urdiña, zuria eta gorria.

Nazioaren ereserkia «Marseillaise» deiturikoa da.

Errepublikaren goiburua hau da: «Askatasuna, Berdintasuna, Elkartasuna».

Haren oinarria ondokoa da: herriaren gobernu, herriarengatik eta herriarentzat.

³ Esaldi hau 1992. urteko zuzenketa da.

7.4. HEZKUNTZAREN KODEA: L 312-10 ETA L 312-11 ARTIKULUAK⁴

L 312-10 artikulua

Erregioen hizkuntza eta kulturei dagokienez, horien irakaskuntza eskola-garai osoan eman daiteke.

Hezkuntzaren Kontseilu Nagusiari kontsulta egingo zaio, L 231-1. artikulua ematen dizkion eskumenen arabera, erregioetako hizkuntza eta kulturen ikaskuntza laguntzeko baliabideei buruz, hizkuntza horiek erabiltzen diren erregio horietan.

L 312-11 artikulua

Irakasleek erregioen hizkuntzez baliatzeko baimena dute, lehen mailako eskoletan eta haur-eskoletan, euren irakaskuntzarako lagungarri diren aldi oroz, bereziki frantsesaren ikaskuntzarako lagungarri denean.

⁴ Kode honek laburbildu eta sailkatzen ditu hezkuntzari buruz egin ziren legeetatik hainbat; bereziki Deixonne Legea (1951), Haby Legea (1975) eta Savary Legea (1984). Geroztik, lege horiek ez dute euren indar juridikorik.

**7.5. LEOTARD LEGEA (1986):
HEDABIDEETAKO KOMUNIKAZIO
ASKATASUNARI BURUZKOA:
1 ETA 2. ARTIKULUAK**

1. artikulua

Ikus-entzunezko komunikazioa askea da.

2. artikulua

Ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoak frantsesaren sustapena ziurtatzen du, eta erregioetako nahiz tokietako kultura- eta hizkuntza-ondarea balioesten du.

7.6. TOUBON LEGEA (1994) FRANTZIAKO ERREPUBLIKAK EMANDAKO 1994/665 LEGEA, FRANTSESAREN ERABILERARI BURUZKOA: 1, 11-I ETA 21. ARTIKULUAK

1. artikulua

Frantsesa, Konstituzioaren aginduz Errepublikaren hizkuntza dena, Frantziaren nortasun eta ondarearen oinarritzko osagaia ere bada.

Horixe da hezkuntzaren, garraioaren, trukeen eta zerbitzu publikoen hizkuntza.

Orobat, Frankofoniako erkidegoa osatzen duten estatuen arteko lotura nagusia da.

11-I artikulua

Irakaskuntzako zentro publiko nahiz pribatuetan, frantsesa da irakaskuntzaren, azterketen eta lehiaketan hizkuntza, bai eta tesiena eta oroitidazkiena ere, salbu eta atzerriko nahiz erregioetako hizkuntzen eta kulturen irakaskuntzak salbuespenak egitea behar duenetan, edota irakasle bazkideak nahiz gonbidatuak atzerrikoak direnean.

21. artikulua

Lege honen xedapenak aplikagarriak dira, Frantziako erregioetako hizkuntzen legeriari eta araudiei kalterik egin gabe, eta ez dira haien erabileraren aurkakoak.

**7.7. VOYNET LEGEA (1999),
LURRALDE ANTOLAKETA ETA GARAPEN
IRAUNKORRARI BURUZKOA:
14. ARTIKULUA**

14. artikulua

Kultura-zerbitzu kolektiboen egiturak... “zehaztuko du zein ekintza jarri behar den abian, frantsesaren sustapena eta hedapena bermatzeko, eta, orobat, erregioen nahiz gutxiengoen kultura eta hizkuntzen babesa eta transmisioa ziurtatzeko”.

AURKIBIDE ANALITIKOA

- Adierazpen, §5.2.1.a), 2.
Administrazio, §4, 6.
Agintari eskudun, §2, 27.2.
Alfabetatze, §6.2.2, 28.
Ama-hizkuntza, §3.1, 5.
Aniztasun, §1.6, 20.
Arrazakeria, §5.2.2, 6.
Asimilazio, §4, 4.2.
Askatasunak, §1.2, 2.
Autonomia, §1.2, 2.
Belaunaldien arteko, §5.2.7, I-3.3.
Bereizkeria, §1.1, 55.c).
Dialekto, §7.2, 1.
Diskriminazio, §5.3.1, 7.2.
Eleaniztasun, §3.1, 6.
Elkarlan, §5.2.2, 10.
Emigrante, §5.2.2, 16.
Eredu, §4, 17.2.
Eredu-proiektu, §5.2.1.a), 3.
Eremu, §4, 12.2.
Eremu urriko hizkuntza, §5.2.1.a), 6.
Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoa, §5.2.2, 11.
Eremu zabaleko hizkuntza, §5.2.4, 11.f).
Erkidego, §1.5, 1.
Erregelamendu, §5.2.5, 128.5.
Erregio, §4, 5.
Erregioen Biltzarra, §5.2.2, 18.
Eskola, §5.2.2, sarrera.
Eskualde, §5.2.5, 128.5.
Eskubideak, §1.2, 2.
Estandarizazio, §4, 9.
Estatu, §5.2.3, 31.
Estatu kide, §5.2.1.a), 2.
Etnia, §1.3, 27.
Europako Batzordea, §5.2.1.a), 2.
Europako Kontseilua, §5.2.1.a), 7.
Europar Batasuna, §5.2.4, 4.
Garapen iraunkor, §1.6, 20.
Giza eskubide, §1.2, 26.2.
Gizabanakoen eskubide, §4, atarikoak.

Gizaki, §1.2, 2.
Gobernu, §5.2.1.b), 5.
Gutun, §5.2.4, 6.
Gutxiengo, §1.3, 27.
Herri, §2, 26.
Herri indigena, §1.6, 20.
Herri interesdun, §2, 26.
Herritar, §5.2.2, 16.
Hezkuntza, §7.4, L312-10.
Hezkuntza eleanitz, §5.2.1.a), 3.
Hitzarmen, §2, 30.1.
Hitzarmen-marko, §5.2.2, 10.
Hizkuntza, §6.2.1, 6.1.
Hizkuntza mehatxatu, §4, atarikoak.
Hizkuntza nagusi, §5.1, 4.b).
Hizkuntza nazional, §2, 28.2.
Hizkuntza ofizial, §6.1, 3.1.
Hizkuntza ofizialkide, §5.1, 4.d).
Hizkuntza normalizatu, §5.1, 4.c).
Hizkuntza-aniztasun, §5.2.6, 22.
Hizkuntza-eskubide, §4, 1.2.
Hizkuntza-nortasun, §1.9, 1.1.
Hizkuntza-ondare, §7.5, 2.
Hizkuntzaren transmisio, §4, 8.2.
Hiztun, §5.3.1, 7.2.
Hiztun-kopuru, §5.3.1, 8.2.
Idazkera, §6.2.2, 10.1.
Identitate, §6.3.2, hitzaurrea.
Ikus-entzunezko, §5.2.5, 128.2.
Itun, §1.4, 2.1.
Jarrera, §5.2.1, sarrerako 2. Puntua.
Kide, §1.2, 20.2.
Kode, §7, 4.
Kolonizazio, §4, atarikoak.
Komunikabide, §3.1, 6.
Komunikazio, §4, 1.1.
Komunitate, §1.2, 29.
Konstituzio, §1.2, 8.
Kontzientzia, §1.2, 1.
Kultura, §1.3, 27.

Kultura-eskubide, §3.1, 5.
Kultura-ondare, §4, 28.
Lankidetzta, §1.4, 2.1.
Lege, §1.2, 2.
Literatura, §1.2, 27.2.
Mehatxu, §5.2.4, 14.
Mendekotasun, §1.5, sarrera.
Migrazio, §4, 2.2.
Nazio-hizkuntza, §5.2.2, 5.
Naziotasun, §5.2.6, 21.2.
Neurri, §1.4, 2.1.
Normalizazio, §6.3.2, 8.3.
Nortasun, §1.2, 22.
Oinarrizko eskubide, §1.2, 8.
Ondare, §5.2.6, 21.1.
Prentsa, §5.3.1, 11.1.
Soziolinguistika, §6.3.2, 1.2.c).
Sustatze, §1.1, 55.
Terminologia, §5.3.1, 12.1.h).
Tradizio, §2, 30.1.
Transmisio, §4, 8.2.
Tratatu, §5.2.6, 21.2.
Txosten, §5.3.1, 15.
Ulergarritasun, §6.2.2, 10.2.
Xedapen, §2, 28.
Zapalkuntza, §1.2, hitzaurrea.

TESTU-ITURRIEN ZERRENDA

Liburu honen testuak moldatzeko irizpide nagusiak, testu-iturriei dago-kienez, honakoak izan dira:

– Nazioarteko testuetan, euskarazko bertsioa aurkitu izan denean, horixe izan da hemen jasotakoa; baina, gure irizpideen arabera beharrezkoa izan denean, moldaketak eta zuzenketak egin dira, testua ez baita zegoen-zegoenean islatu, modu egokitu batez baino. Bestelakoetan, jatorrizko testuak izan dira ingeles, frantses nahiz gaztelaniaz ondutako bertsioak; zenbait kasutan, bertsioen arteko kontraesanak aurkitu izan dira, eta, horiei aurre egiteko, nahitaezkoa izan da testuak erkatu eta interpretazio orekatua egitea.

– Esan gabe doa Espainiako erresumako euskarazko testuak euren horretan hartu direla, aldizkari ofizialetan hizkuntza horretan argitaratu izan direnean. Espainiako erresumako gainerako testuetan eta Frantziako errepublika-ko testuetan, gaztelaniaz nahiz frantsesez idatzitakoak izan dira iturri, hurrenez hurren, horiek ere aldizkari ofizialetatik jasoak.

Hortaz, hona hemen testu-iturri nagusiak:

a) Iturri idatziak:

MEDGYESI, E. (2003). *Vade-Mecum. Textes officiels internationaux concernant les langues moins répandues en Europe*. Bureau européen pour les langues moins répandues. BELMR/EBLUL. Bruxelles. 508 or.

b) Web-orriak:

<http://www.behatokia.org/>

<http://www.boe.es/g/es/>

<http://www.ciemen.org/mercator/>

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_00?e/

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-2210/eu/>

<http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-502/es/>

<http://www.legifrance.gouv.fr/>

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/

<http://www.un.org/>

AURKIBIDEA

Aurkezpena. <i>Andres Iñigo</i>	7
Atarikoak. <i>Andres Urrutia</i>	9
TESTUAK	13
§1. Nazio Batuak	15
1.1. Nazio Batuen Gutuna (1945): 55. artikulua	17
1.2. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)	18
1.3. Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966. urteko abenduaren 16koa: 27. artikulua	25
1.4. Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-Eskubideen Nazioarteko Ituna, 1966. urteko abenduaren 16koa: 2. artikulua	26
1.5. Teheraneko Aldarrikapena, 1968. urteko maiatzaren 13an, Giza Eskubideen Nazioarteko Konferentziak onetsitakoa: 1. puntua	27
1.6. Vienako Adierazpena, 1993. urteko ekainaren 25ean, Giza Eskubideen Munduko Konferentziak onetsitakoa: 19 eta 20. puntuak	29
1.7. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (1989): 30. arti- kulua	31
1.8. Rioko Adierazpena, Ingurumenaz eta Garapenaz (1992): 22. printzipioa	32
1.9. Hizkuntza- eta Erljio-Gutxiengo Nazional edo Etnikoeta- ko Pertsonen Eskubideen Adierazpena, 1992. urteko aben- duaren 18koa: 1. artikulua	33
§2. LANE	35
LANE-ren 169. Hitzarmena, Herri Indigena eta Tribalei buruz- koa: 26, 27, 28, 29 eta 30. artikulua	37

§3. UNESCO	39
3.1. Kultura-Aniztasunaren aldeko Adierazpen Nagusia (2001): 5 eta 6. artikulua	41
3.2. Kultura-Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeko Konbentzioa (2005): aitzinsolasaren 14. iragarpena eta 6.2.b) artikula	42
§4. Hizkuntz Eskubideen Adierazpen Unibertsala (Bartzelonakoa, 1996ko ekainaren 6koa)	43
§5. Europar Batasuna	63
5.1. <i>Europako Kontseiluaren Parlamentu Biltzarra</i>	65
Cirili txostena eta 928. gomendioa: 1981. urteko urriaren 7ko gomendioa, Europako eremu urriko hizkuntzen eta dialektoen hezkuntza- eta kultura-arazoei buruzkoa	65
5.2. <i>Europako Parlamentua</i>	67
5.2.1. Arfé Gomendioa:	67
5.2.1.a) Europako Parlamentuak 1981. urteko urria- ren 16an emandako Ebazpena, Erregioen Hizkuntza eta Kulturei buruzko Europako Gutuna eta Eremu Urriko Etnien Eskubideei buruzko Gutuna aipatzen dituena	67
5.2.1.b) Europako Parlamentuak 1983. urteko otsai- laren 11n emandako Ebazpena, Eremu Urriko Hiz- kuntza eta Kulturen aldeko Neurriei buruzkoa	70
5.2.2. Kuijpers Ebazpena: Europako Parlamentuak 1987. urteko urriaren 10ean emandako Ebazpena, Europa- ko Erkidegoko Erregioen eta Eremu Urriko Etnien Hizkuntza eta Kulturei buruzkoa	71
5.2.3. Pasquale Ebazpena: Europako Parlamentuak 1988. urteko azaroaren 18an emandako Ebazpena, Europa- ko Erkidegoaren erregio-politikari eta erregioen ze- reginari buruzkoa	78
5.2.4. Kililea Ebazpena: Europako Parlamentuak 1994. ur- teko otsailaren 9an emandako Ebazpena, Europako Erkidegoko eremu urriko hizkuntza- eta kulturei bu- ruzkoa	80
5.2.5. Maastrichteko Tratatua, 1992. urteko otsailaren 7koa: 128. artikulua	86

5.2.6. Nizako Ituna (2001). Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna: 21 eta 22. artikulua	87
5.2.7. Europarentzat Konstituzio bat eratzen duen Tratatu (2004): I-3, II-82, III-280 eta IV-448 artikulua	88
5.3. <i>Europako Kontseilua</i>	91
5.3.1. Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna (1992)	91
5.3.2. Nazio-Gutxiengoak Babesteko Hitzarmen Orokorra, 1994. urteko azaroaren 10ekoa: 5 eta 10. artikulua	108
§6. Espainiako Erresuma	109
6.1. Espainiako Konstituzioa (1978): 3. artikulua	111
6.2. Euskal Autonomia Erkidegoa	112
6.2.1. Euskal Herriko Autonomi Estatutua (1979): 6. artikulua	112
6.2.2. Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzekoa	113
6.3. Nafarroako Foru Komunitatea	124
6.3.1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legea (1982): 9. artikulua	124
6.3.2. Abenduaren 15eko 18/1986 Foru-Legea, Euskarari buruzkoa	125
§7. Frantziako Errepublika	135
7.1. Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideei buruzko Adierazpena (1789): 11. artikulua	137
7.2. Deixonne Legea (1951): Frantziako Errepublikak emandako 1951/48 Legea, 1951. urteko urtarrilaren 11koa, Tokiko Hizkuntzei eta Dialektoei buruzkoa	138
7.3. Frantziako Errepublikaren Konstituzioa (1958): 2. artikulua	141
7.4. Hezkuntzaren kodea: L 312-10 eta L 312-11 artikulua	142
7.5. Leotard Legea (1986): Hedabideetako Komunikazio Askatasunari buruzkoa: 1 eta 2. artikulua	143
7.6. Toubon legea (1994): Frantziako Errepublikak emandako 1994/665 Legea, Frantsesaren Erabilerari buruzkoa: 1, 11-I eta 21. artikulua	144
7.7. Voynet Legea (1999), Lurralde Antolaketa eta Garapen Iraunkorrari buruzkoa: 14. artikulua	145
Aurkibide analitiko	147
Testu-iturrien zerrenda	152